# Goienkaria

2009ko maiatzaren 8a > Egubakoitza > IX. urtea > 375. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net


**"Ez dauka logikarik sakabanake-tarekin segitzeak; lehen ez, eta orain gutxiago"**



**Enrike Letona**
Preso politiko ohia eta senidea > 09

**G2a** Lori Meyers taldea zapatuan, Jam aretoan > 37

**ERRETIRATUAK**
**APPALDEk autobusak antolatu ditu Bilboko manifestaziorako** > 04

**BERGARA**
**Bideberri kalea bi noranzko bihurtzeko lanak hasi dira** > 19

**ARAMAIO**
**Baserritarren Arbel elkartea kooperatiba bihurtuko dute** > 32



Mazmelako tunela. JOSETXO ARANZABAL

**AZPIEGITURAK** > ABIADURA HANDIKO TRENA

# AHTren lanen eragina begi bistakoa da dagoeneko bailaran

**IKUSGARRIA** Trenaren obrak paisaia modu ikusgarrian aldatzen hasi dira, Aramaion eta Eskoriatzan batez ere

**AGERRALDIA** AHT Gelditu! Elkarlanak dio aukera dagoela lanak gelditzeko, eta agerraldia deitu du biharko, zapatua

**KALTETUAK** Zenbait elkarteren nahia da, lanak gelditzea barik, arduradunek aintzat har ditzaten euren proposamenak > 02-03

## Aretxabaleta domekan hirugarren mailako taldea izan daiteke

Denboraldi osoan egindako lanaren ondoren, UDA taldea ezin hobeto iritsi da denboraldiko azken txanpara. Lau jardunaldi geratzen dira liga amaitzeko, 12 puntu daude jokoan eta Aretxabaletako taldeak zazpi puntuko aldea dauka. Zenbakiak kantuan hasi dira, eta matematikoki UDA hirugarren mailako talde bihur daiteke asteburuan.

Horretarako irabazi egin behar dio domekan (16:30) Mundarrori; Aloñak Hernani mendean hartu behar du. eta Tolosak ezin du irabazi Euskaldunaren aurrean. > 34




**TALDEKIDEAK** Pozik dauden arren, martitzeneko entrenamendu saioan esan zuten oraindik ez dutela igoeraz berbarik egin nahi. XABIER URTZELAI

AURKIBIDEA


**Debagoiena** > 04-07
**Iritzia** > 08
**Elkarrizketa** > 09
**Gutunak** > 10
**Herriak** > 13-33
**Kirola** > 34-36
**Kultura** > 38-39
**Sailkatuak** > 40
**Gazteak** > 42
**Telebista-Irratia** > 43
**Berri-zakua** > 44-45
**Eskelak** > 45
**Non-zer** > 46-47


**POLITIKA** > PRESOAK

## Kartzela zigorra Elkorori

Baldintzarik gabeko behin-behineko espetxe zigorra ezarri diote eta Soto del Realen dago > 04

**ELIZA** > KANONIZATZE PROZESUA

## Arizmendiarrieta kanonizatzeko agiriak Erromara bidaliko dituzte

Elizbarrutiko prozesua bukatuta, hilaren 15ean Erromara eroango dituzte agiriok, eta Santuen Kausetarako Idazkaritzaren esku laga, azter ditzan. Elizbarrutiko prozesuari asteon eman diote amaiera, elizkizun berezi batekin. > 05






Mazmelako tuneleko lanak aurrera doaz. JOSETXO ARANZABAL

**AZPIEGITURAK** > ABIADURA HANDIKO TRENA

# AHTren lanen eragina begi bistakoa da bailaran

**OBRAK** Aramaion eta Eskoriatzan daude lanak aurreratuen; Arrasaten ere hasiak dira, eta uda aurretik espero dute Bergarako proiektua gertu egotea

**ZUZENKETAK** Ibarreko hainbat elkarteren helburua da, lanak gelditzea barik, euren proposamenak kontuan har ditzatela arduradunek

**GELDIARAZI** AHT Gelditu! Elkarlanak agerraldia deitu du biharko, zapatua, Iruñean; bestalde, Aramaion protesta egin zuten 17 lagun epaituko dituzte

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Debagoieneko hiru herritan dabiltza dagoeneko Abiadura Handiko Treneko lanak egiten. Hala, Eskoriatzan, Mazmelako tunela (384 m) eta Marindik Legutiora doana (4,8 km, AHTko tunelik luzeena) egiten hasi dira, eta lanek irudi ikusgarria uzten dute. Bestalde, Aramaion ere, Induspeko tunela (2.224 m) egiten dabiltza, eta herriko bi lekutan dihardute obretan: Eskoriatzarekiko mugan eta Bolinburun. Azken horretan, kalteak handiak dira dagoeneko, lanak martxoan hasi baziren ere. Azkenik, Arrasaten ere lanak hasi direla jakinarazi zuen Adif enpresak, Espainiako Gobernuaren menpe dauden tramuen ardura daramanak: hain zuzen, Arrasate-Elorrio eta Aramaio-Arrasate tramuei dagozkienak. Besteak beste, Etxebarriko biaduktua (312 m) pasatuko da handik, izen bereko baserri paretik.

Horiek, zuzenean Espainiako Gobernuari dagozkien tramuetan; Eusko Jaurlaritzak egin behar dituen tramuetan, Bergara-Antzuola tramuko eraikuntza-proiektua uda aurretik gertu egongo da Adif-ek onartzeko; eta Euskal Trenbide Sareak urteko bigarren erdirako espero ditu Bergara-Bergara eta Antzuola-Ezkio proiektuak.

**"EZ DUTE BESTE BAIMENIK BEHAR"**

Bistan dago treneko lanek gainditu dutela ikuskatze edo aztertze fasea, eta aurrera doazela abiadura onean. Kontrako iritziek eta kaltetuen aldarrikapenek eragin txikia dute, behin desjabetzeak egin ondoren. Gesalibarko Etxebarri baserriko alaba Lurdesek jasaten duten babesgabetasun egoera salatzen du: "Bidea eurendako hartu dute, euren makinak ibiltzeko. Eurek ez dute biderik egin, geurea hartu dute. Ordu erdi-eta egon behar izaten dugu zain gu pasatzeko. Larrea ere kendu egin digute… Eurek esaten dute ezinbestean dela, baina gu hemen bizi gara. Eta gero zer gertatuko da?", dio berak, haserre.

Lurjabe horrek esaten du eurengana ez dela inor joan kontuak ematera. Baina gauza bera diote udal ordezkariek. Kasu deigarriena Aramaiorena da; hango alkate Asier Agirre inputatu egin du Fiskaltzak, prebarikazioa eta aginte judizialari desobedientzia egotzita, AHTren gaineko galdeketa egitearren. Horrez gain, bere egunean izan ziren protesten harira, 17 lagun epaituko dituzte astelehenean. Agirrek dioenez, "obrak hasi aurretik, Adif-eko bi lagun etorri ziren planoekin eta trazatuan hobekuntzarik geneukan galdetu ziguten. Orain, Udalak esateko zerbait duenean, dagokion arduradunari deitu behar zaio, asko daude-eta. Azkenaldian eskatu dugu Untzillan, obretan dihardu ten lekuan, bide zati bat zabal dezaten; Foru Aldundiak arrazoia eman digu, baina horrek ez du esan nahi ezer lortu edo egingo denik".

Eskoriatza da obra gehien jasaten dabilen beste herria. Hango alkate Pedro Lasagabasterrek dioenez, "Udalarekin apenas dute harremanik. Lurrak desjabetu zituztenetik, ez dute beste baimenik behar". Udalak badu zer esanik: "Azkenaldian, errekak oso zikin datozela salatu dugu Jaurlaritzan, baina ezer egingo duten itxaropen txikiarekin".

**OBRAK, AHALIK ETA ONDOEN**

Udalekin ez, baina auzo alkateekin eta zenbait elkarteko ordezkariekin harreman handiagoa dute obren arduradunek. Azpiegitura handiek kaltetutakoak batzen dituen Onbide.org elkarteko Juan Karlos Beloki eskoriatzarrak honela diosku: "Autobidearekin gertatu zenarekin ikasi egin dugu, eta orain, AHTko arduradunekin harreman hobea dugu. Zerbait behar dugunean, badakigu ze arduradunengana jo behar dugun, eta eurek ere zuzenean auzotarrongana jotzen dute".

Elkarteak orain egiten dihardunaz, hauxe dio Belokik: "Lanak aurrera doaz, eta orain gure helburua da ziurtatzea lanak egoki egin ditzatela, eta auzo bakoitzean behar diren zuzenketa-neurriak egin ditzatela". Horretarako, elkartekoak obren gainean daude, eta arduradunen-

Iturrieta Sagardotegia
Txotx garaiaren ondoren merendero gisa



Plater konbinatuak
•
Hamarretakoak
Aramaio (Araba) Tel.: 945 44 53 85 - 685 72 15 93

AHT-REN AURKAKO KALE-AGERRALDIA

## Krisi ekonomiko egoeran AHTrendako diru gehiago ez ematea eskatuko du Elkarlanak

*Guztion artean, AHT gelditu! Txikizioarentzat diru gehiagorik ez* leloarekin nazio-agerraldia deitu du AHT Gelditu! Elkarlanak biharko, zapatua, Iruñean. Debagoienetik autobusa irtengo da, 14:30ean Eskoriatzatik, eta geldialdiak egingo ditu Aretxabaletan, Arrasaten, Bergaran eta Antzuolan; izenematea ohiko lekuetan dago zabalik. Elkarlanak krisi egoeran AHTk dakarren "diru xahuketa" salatu nahi du deialdiarekin.

Elkarlaneko kide Mila Elortzak animuak ematen ditu AHTren aurka jarraitzeko: "Denon artean lan eginda, AHT gelditu beharra dago, egin dituzten kalteengatik eta egoera ekonomikoarengatik". Lanak aurrera jarraitzearen gainean hauxe dio Elortzak: "Egin nahi dutena begiratuta, oraindik ez dute ezertxo egin, eta beti dago AHT geldiarazteko aukera. Bergaran, adibidez, oraindik ez dute proiekturik ere".



GOIENKARIA





Marin auzoan (Eskoriatza) egiten diharduten lanak. JOSETXO ARANZABAL

## AHTren adjudikazioak eta lizitazioak

| LIZITATUTAKO TRAMUA | LUZERA | ENPRESA ADJUDIKATARIOA | ADJUDIKAZIOA | EGITEKO EPEA |
|---|---|---|---|---|
| Tolosa | 3,79 km | - | - | - |
| Legorreta | 3,58 km | - | - | - |
| Beasain Ekialdea | 2,16 km | - | - | - |
| Beasain Mendebaldea | 1,87 km | - | - | - |
| Ordizia-Itsasondo | 2,8 km | FCC-Constr. Olabarri-Guihor-Constr. Donosti | 2007-12-10 | 31 hilabete |
| Arrazua/Ubarrundia-Legutio I | 2,5 km | Comsa SA-Cycasa Canteras y Constr. SA | 2007-12-26 | 20 hilabete |
| Arrazua/Ubarrundia-Legutio II | 5,2 km | Tecsa SA-Altuna y Uria SA | 2006-03-31 | 24 hilabete |
| Legutio-Eskoriatza II | 2,4 km | Ferrovial Agroman SA-Fonorte SA | 2006-12-26 | 45 hilabete |
| Legutio-Eskoriatza I | 5 km | Comsa SA-Cycasa Canteras y Constr. SA | 2006-12-26 | 45 hilabete |
| Eskoriatza-Aramaio | 5,58 km | Acciona Infraestr. SA-Excav. Vda. de Sainz SA | 2007-03-30 | 30 hilabete |
| Aramaio-Arrasate | 3,39 km | Sacyr Valleh. SA-Amenabar SA-Proyectos SA | 2007-03-30 | 30 hilabete |
| Arrasate-Elorrio | 4,44 km | Obras Subterráneas SA | 2007-01-26 | 33,5 hilabete |
| Abadiño-Durango | 3,52 km | Cons. Moyua-Constr. y Prom. Balzola-Azvi SA | 2007-01-26 | 21 hilabete |
| Durango-Amorabieta/Etxano | 4,6 km | Vías y Construcciones SA-Nortúnel SA | 2007-10-26 | 30 hilabete |
| Amoreb./Etxano-Amor./Etxano | 5,03 km | Cons. Moyua-Constr. y Prom. Balzola-Azvi SA | 2007-09-28 | 27 hilabete |
| Amorebieta/Etxano-Lemoa | 3,45 km | - | | 26 hilabete |
| Lemoa-Galdakao | 5,4 km | Ortiz Con. y Proy. SA-Cons. Murias SA-Enrique Otaduy SL | 2007-10-26 | 32 hilabete |
| Galdakao-Basauri | 3,5 km | Dragados SA-Iza Obras y Promociones SA | 2007-12-26 | 28 hilabete |

## Hamazazpi lagun epaituko dituztela salatu dute

Urrian AHTren aurkako protesta baten hondeatze-makinetara kateatzeagatik epaitu egingo dituzte 17 lagun astelehenean, hilak 11, Gasteizen. Hori salatzeko agerraldia egin zuten eguaztenean Aramaion. AHTko lanak "sarraski" eta "antzezlan makabrotzat" jo zituzten, eta "bizimodu gris hau aldatzeko" dei egin zuten. Bestalde, maiatzaren 25ean, Bergaran epaituko dituzte zazpi lagun, Arrasateko desjabetzeetako protesta ekintza batzuetatik.




Aramaioko Zabola auzoan egin zuten agerraldia. JON BEREZIBAR

gandik jasotzen duten tratuaz eta informazioaz "konforme" daudela diote, eta euren ideiak eta sujerentziak entzuten dituztela. Hala ere, horrek ez du ezer ziurtatzen: "Eurek hasierako proiektua dute, orduan ez ziguten kaltetuoi ezer galdetu. Orain proiektu horri zuzenketak onartzeak dakar beste proiektu bat egitea, eta hori diru asko da. Proiektuei alegazioetan zenbait eskari egin genituen, eta horiek aztertzen dabiltza, baina ez dakigu ze erantzun jasoko dugun", onartzen digu Belokik. Onbidekoek proposatzen dituzte lurjabeei zein ingurumenari ahalik eta kalte txikiena egiteko zuzenketak: fase hontan, batik bat, makinak obren lekura joateko bideetan edo eurek behar duten azpiegituretan proposamenak, eta baita neurri zuzentzaileak ere.

Antzeko lana egiten jardun dute Aramaio Zainduz elkartekoek, 40 kaltetu inguru batzen dituenak, baina egunotan euren jarduerak kolpe bortitza jasan du. Izan ere, Aramaioko proiektu berrienak ingurumen-kalte azterketarik ez zuela ikusita, hura egiteko eskatu zuten, eta epaitegien bidea hartu zuten, baina prozesuarekin jarraitzeko aurrekontua altuegia dela jakin dute. "Orain arte, 12.000 euro badutugu gastatuta, 8.000 zuzenean bazkideek ipinita". Udalari laguntza eskatuta, ezezkoa jaso zuten. Elkarteko Jesus Arregik dioenez, "trenaren alde dauden alderdiek ez lukete trena gaizki egitearen alde egon behar".

**"JENDARTEA ALDE DAGO"**

Onbide.org eta Aramaio Zainduz elkarteen helburua, momentu honetan, AHT ahalik eta modu egokienean egitea bada, kalte txikienarekin, trena bertan behera geldiaraztea da AHT Gelditu! Elkarlanaren helburua. Hori eskatzeko kale-agerraldia deitu dute bihar, zapatua, Iruñean.

AHTren aurkako mugimendu horrek ekonomia-krisia hartzen du argumentutzat; hala, egunotan, gutunak bidali dituzte etxeetara, AHTk dakarren kostua salatzeko. Gutun horiekin, jakinarazi nahi zioten Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako adinez nagusi bakoitzari 4.859 euro ordaindu beharko dituela AHT finantzatzeko. Azpiegitura horrek 6.341 milioiko gastu publikoa duela salatu du Elkarlanak. Debagoieneko eginda dauden proiektuek –Arrasate-Elorrio, Legutio-Eskoriatza I eta II, Eskoriatza-Aramaio eta Aramaio-Arrasate– 33,91 milioiko aurrekontua dute.

Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, gutun horiek "gezurrez josita" zeudela eta ekintza hori "doilor eta ezmoraltzat" jo zuen, eta jendartea "beldurtu" nahi izana aurpegiratu die. Horrez gain, Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkari Mikel Cabiecesek gogorarazi zuen, Arrasate-Elorrio obrak hasi zirenean, apiril hasieran, "berri ona" zela lanen hasiera, "izan ere, jendartearen gehiengoa argi eta garbi azaldu da AHTren alde, eta ikus dezake lanak aurrera doazela herritarrei funtsezko garraiobidea emateko".




GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
MAIATZAK 21 - 17:30 osteguna 2.zikloa
ARRASATE-MONDRAGÓN AULA MAGNA Tel.: 943 73 96 29 // bguerenu@eps.mondragon.edu

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA
MAIATZAK 14 - 18:00 osteguna
OÑATI AULA MAGNA Tel.: 943 71 80 09 // cgarate@eteo.mondragon.edu
MAIATZAK 21 - 18:00 osteguna
IRUN AULA MAGNA Tel.: 943 63 91 29 // ioiartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
MAIATZAK 9 - 11:00 larunbata 2.zikloa
ESKORIATZA AULA MAGNA Tel.: 943 71 41 57 // sarrera@huhezi.mondragon.edu

**EZKER ABERTZALEA** > 18/98 AUZIA

# Jose Luis Elkorori behin-behineko espetxe zigorra ezarri dio epaileak

Eguaztenean eman zuen aditzera Espainiako Auzitegi Nazionalak baldintzarik gabeko behin-behineko espetxe zigorra

Elkororen alaba Kristinak dio Madrilgo Soto del Realen dagoela aita, baina ez dutela haren berririk jasotzen

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Espainiako Auzitegi Nazionalak ateratako autoaren arabera, Jose Luis Elkoro bergarar̄rak eta harekin batera atxilotutako beste zazpi lagunek espetxean jarraitu beharko dute. Epaileak baldintzarik gabeko behin-behineko espetxe zigorra ezarri die guztiei.

**BALDINTZAPEAN ASKE**

Baldintzapean aske zeuden lehengo eguenera arte, eta atxilotu ostean defentsak haien askatasuna eskatua zuen, gaixotasunagatik edota epaia irmoa ez izateagatik. Elkororen alaba Kristinak esan digu atxilotu zutenean Martutenera eraman zutela aita. Zapatuan aita bisitatzeko aukera izan zuten eta familiak dio "lasai" ikusi zutela.

Astelehenean epailearen aurretik pasa behar zuen Elkorok, *bisitilla* deitzen dena. "Normalean *bisitilla* egin ondoren erabakitzen dute atxilotu edo ez atxilotu. Kasu honetan, aurretik atxilotu dute; hortaz, protokolo hutsa da. Erabakia hartuta zegoen", dio Kristina alabak.

Aitaren egoeraz galdetuta, Kristinak dio ez dakitela ezer. "Guk Soton eskatu dugu bisita egiteko baimena eta onartu egin digute; hortaz, uste dugu Soton egongo dela. Baina, egia esan, ez dugu aitaren egoeraren gaineko informaziorik jasotzen", azaldu du Elkororen alabak.

**ELKORORON ALDEKO MOZIOA**

Astelehenean ezohiko bilkura egin zuen Bergarako Udalak. Agurne Barruso alkateak eta beste hiru zinegotzik Elkororen aldeko mozioa aurkeztu zuten; Udal Gobernu taldearen zortzi aldeko boto, eta EAJ eta EAren abstentzioekin onartu zuten mozioa.

Ezohiko bilkurara ez ziren agertu PSE-EEko bi zinegotziak, ezta EAJko bat eta Aralarko bat ere. Mozioa onartu ondoren EAJko Rafa Amasorrainek hartu zuen hitza. Esan zuen eurak beti egon direla 18/98 sumarioaren aurka, baina mozioan EAJri egiten zitzaion aipamena baztertzen zutela. Aralarrek ere hartu zuen berba eta EAJri egiten zitzaion aipamena soberan zegoela iruditu arren, gaiaren larritasunaragatik onartu egin zutela adierazi zuen Iñigo Iñurrategi zinegotziak.

Ondoren, manifestazioa egin zuten herriko kaleetan Elkororen askatasuna eskatzeko.

Bestalde, Elay taldeko enpresa batzordeak eta Oerlikon Balzes-Elayko langileek kartzelaratzea salatu eta Elkororen askatasuna eskatu dute.

DATUA

**500**

**URTEKO KARTZELA ZIGORRA**

2007an Espainiako Auzitegi Nazionalak 500 urteko espetxe zigorra ezarri zien 55 herritarri; tartean, Elkorori. Zortzi kalean zeuden joan den eguena arte.

ESANAK

**"Soton eskatu dugu bisita eta onartu egin digute; hortaz, uste dugu han egongo dela, baina ez dugu aitaren berririk"**

**Kristina Elkoro** > Elkororen alaba

MOZIOA

## Onartutako mozioak 18/98 epaia Euskal Herriaren aurkako erasoa dela dio

Ezohiko bilkuran astelehenean onartutako mozioan Elkororen familiari "elkartasuna eta babesa" eskaintzen zaio. Gogoratzen da nola 2007ko abenduan Elkoro behin-behinekoz kaleratu zuten, haren defentsa abokatuak osasun arazoak zirela-eta kartzelaratze-agindua errekurritu ondoren. "Urte eta erdi honetan Jose Luis gure artean izan dugu Bergararen eta Euskal Herriaren alde lanean", dio mozioak.

Osoko bilkurak onartu egin zuen 18/98 epaia eta atzean dagoena Euskal Herriaren aurkako erasoa dela; Espainiako Estatuan ez dagoela demokraziarik; Jose Luis Elkororen eta 18/98 sumarioan kondenatutako gainontzekoen askatasuna exijitu zuen; era berean, haien senideei elkartasuna eta babesa eskaini zien; eta, astelehenean egin zen manifestazioan parte hartzeko gonbita egin zien Udalak herritarrei. Horren guztiaren berri herritarrei eta atxilotuei emateko konpromisoa hartu zuen Udalak.

## Batzar Nagusietako autobusa Arrasaten aurkeztu dute

Batzar Nagusiak herritarrengana gerturatzeko ahaleginetan autobus ibiltaria abiatu dute herririk herri. Egunotan Arrasaten dago ikusgai. Astelehenean egin zuten autobusaren aurkezpena eta ekitaldian egon ziren Batzar Nagusietako mahaiko kideak; tartean, Rafaela Romero presidentea. Besteak beste, jolas bidez Batzar Nagusietako funtzionamendua azaldu zieten bertaratutako guztiei. Autobusaren hurrengo geldialdia Eskoriatzan egingo dute hilaren 10etik 14ra.



JON BEREZIBAR

**AZPIEGITURAK**

## Beasain-Bergara korridorea aurrera doa

Urretxu eta Bergara arteko zatia aurten aterako dute enkantera

**A.E.** > BERGARA

Krisiari aurre egiteko asmoz, aurten aterako dute Beasain eta Bergara arteko korridorearen azkeneko zatia enkantera. Hala, datorren urtean hasiko dira lanekin, eta aurreikusi dute hiru urte iraungo dutela lanok.

**120 MILIOI EURO**

9,7 kilometroko zatia izango da Urretxu eta Bergara artekoa, eta lanon aurrekontua 120 milioi izango da.

Azkeneko zati horrekin, Beasain eta Bergara arteko korridorea amaituta geratuko da. Beasain eta Urretxu arteko zatia amaituta dago; eta, Urretxu eta Zumarraga artekoa orain dabiltza egiten. Zati hori 2010ean martxan egotea espero dute.

**ERRETIRATUAK** > MANIFESTAZIOA BILBON

# Bilboko manifestaziorako autobusak APPALDEren eskutik

Hilaren 20an izango da manifestazioa eta besteak beste pentsio duinak eskatuko dituzte

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Aurretik erretiratutakoen eta alargunen Debagoieneko elkarteak (APPALDE) autobusak jarriko ditu doan hilaren 20an Bilbon egingo duten manifestaziora joateko. Autobusak Oñatitik, Bergaratik eta Arrasatetik irtengo dira. Manifestazioan parte hartu gura dutenek hilaren 17a baino lehen eman behar dute izena hiru telefono hauetakoren batean: 943 78 05 26, 943 79 09 67 edo 943 76 27 12. Autobusa 09:00etan irtengo da Oñatiko Olakua auzotik, eta Arrasatetik eta Bergaratik pasatuko da Bilbora hartu aurretik.

**HIRU ESKAERA**

Jesusen Bihotza plazatik hasita egingo duten manifestazioan hiru eskaera egingo dituzte APPALDEko ordezkariek : alde batetik, 65 urtetik aurrera penalizaziorik gabeko pentsioa eskatuko dute; bestetik, alargunendako pentsioaren %70 eskatuko dute; eta azkenik, euren gaineko erabakiak hartzen dituzten batzordeetan parte-hartzea aldarrikatuko dute.

**TEKNOLOGIA**

# Eskoletan ere atera daiteke IT txartela

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Orain arte KZguneetan soilik atera zitekeen IT ziurtagiria. Orain, baina, hainbat ikastetxek emango dute aukera hori. Debagoienean, Bergarako Aranzadi ikastolan, Arrasateko Arizmendi ikastolan eta Oñatiko Zuazola-Larraña institutuan atera daiteke IT txartela. Esan behar da eskolako ikasleek zein herritarrek bertan egin ahal izango dituztela probak.

Izena emateko web orri honetara jo behar da: *http://www1.eeuskadi.net/ereg/index.html.* IT txartela Esi erakundeak ematen duen ziurtagiria da, eta teknologietan oinarrizko gaitasunak neurtzen ditu.

> SALMENTA

## Mundumirako kamiseta solidarioak salgai jarri dituzte

Mundumira jaialdiko kamiseta solidarioak salgai jarri dituzte 24 eurotan Debagoieneko hainbat tokitan; hain justu ere, Eskoriatzako Azkoagaenea hotelean, Inkernu tabernan, Namaste belardendan eta Plataforma Vasca de Solidaridad con Chiapas elkartean; Arrasateko Harreman dendan; Oñatiko Arantzazuko oroigarrien dendan; Aretxabaletako Asensio arropa dendan; eta Elgetako Espaloian. Salmentatik jasotako dirua ibarreko gobernuz kanpoko erakundeen proiektuetara bideratuko dute.

**ELIZA** > KANONIZATZE PROZESUA

# Arizmendiarrieta kanonizatzeko agiriak Erromara bidaliko dituzte



Erromara bidaliko dituzte agiriak aldare nagusiaren aurrean jarri zituzten, Arizmendiarrietaren argazkiaren ondoan. GOIENKARIA

Agiriak hilaren 15ean eroango dituzte Erromara Santuen Kausetarako Idazkaritzara

Kanonizatze prozesua onartzen badute zabalik dauden gainerako prozesuen zerrendan jarriko dute

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

Jose Maria Arizmendiarrieta kanonizatzeko prozesuaren lehen etapa eginda –2006ko martxoaren 21ean hasi zuten–, orain arte jasotako agiriak Erromara bidaliko dituzte. "Elizbarrutiko prozesua bukatuta, Erroman zabaldu beharko dute prozesu berria. Hemendik bidalitako agiri guztiak aztertuko dituzte", esan digu kanonizatze prozesuan parte hartzen diharduen Jabier Retegik. Era berean, hurrengo etapa oso luzea izango dela esan digu: "Bi urte-edo beharko dituzte agiriak aztertu eta ondo daudela esateko. Baliozkotasun Dekretua jaso ondoren, Santuen Kausetarako Idazkaritzak epaimahai bat izendatuko du agirien ikerketa sakona egiteko".

Baliozkotasun Dekretua ematen duten artean, izendatu berri duten Ildefonso Moriones postulatzaileak *Positio* izeneko ikerketa egingo du. "Alde batetik, Arizmendiarrietaren bizitzaren laburpena egingo du; eta beste alde batetik, haren santutasuna non oinarritzen den aztertuko du tesi batean", esan digu kanonizatze prozesuko bultzatzaile izan den Alfonso Gorroñogoitiak.

Kanonizatze prozesua onartzen badute, zabalik dauden gainerako prozesuen zerrendan jarriko dute (egun 400 dituzte zabalik eta urtero 15 onartzen dituzte). "Prozesua azkartzeko modu bakarra On Jose Mariak miraria egin izana da. Miraria dela egiaztatuko balute, beato izendatuko lukete. Bigarren mirariarekin santu izendapena jasoko luke", dio Gorroñogoitiak.

**ELIZKIZUN BEREZIA**

Elizbarrutiko prozesua bukatzeko elizkizun berezia egin zuten eguaztenean Donostian. Uriarte gotzainak zuzendu zuen meza. Besteak beste, Arizmendiarrietaren senideak eta lagunak, apaizak, elizbarrutiko kolaboratzaileak eta kanonizatze prozesuko bultzatzaileak egon ziren elizkizunean.

ESANAK

**"Kanonizatze prozesua hasi besterik ez dugu egin; hurrengo emaitzak bi urte barru-edo ikusiko ditugu"**

**Jabier Retegi** > MUko ordezkaria

**"Prozesua azkartzeko modu bakarra On Jose Mariak miraria egin izana da; egiaztatuko balute, beato izendatuko lukete"**

**Alfonso Gorroñogoitia** > Bultzatzailea




## EKINTZAILETASUNA BULTZATZEA ETA SENTSIBILIZATZEA

**Nori zuzendua:** Eskualdeko pertsona ekintzaileei, negozio ideia izanda edo izan gabe.
**Hizlaria:** Jesus Romeo. A+Gko kudeaketa-kontsultorea.

**Edukia:**
> Erakargarritasun enpresariala eta negozioa martxan jartzeko gaitasunak, bakarrik edo beste pertsona batzuekin.
> Ekintzailea eta negozio ideia.
> Proiektuaren garapena: diagnostikoa, planifikazioa, lan-tresnen diseinua, emaitzen ebaluazioa.

**Eguna:** maiatzak 14, osteguna. Ordutegia: 17:30–19:30

Plaza mugatuak – Jardunaldietan parte hartzeko beharrezkoa da aurrez izena ematea 943 79 30 90 telefonoan
Tokia: Debagoieneko Mankomunitatea –Nafarroa etorbidea 17, 2. solairua– ARRASATE
Izenematea dohainik.

ANTOLATZAILEA: DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
BABESLEAK: EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA; EUROPAKO GIZARTE FONDOA

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Apirileko irabazleak

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Kuota: 40 euro

SARRERAK
Miren Anduaga Kortabarria
(Antzuola)

KAMISETA+DVD
Arrasateko Udal Euskaltegia
(Arrasate)

KAMISETA
Mertxe Kalparsoro Esteneibar
(Aramaio)

PEN-DRIVE
Juan Arriolabengoa
(Aramaio)

SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA



BELAONTZI BATEAN IRTEERA HONDARRIBIATIK

J.L Abuinen eskutik
J.L ABUIN / PUY BIDEBURU
25 urtetan teknika naturalak zure eskura jartzen
Mendia jauregia 639 02 47 14
S. Josepe, 10 943 77 01 33
Kiroldegia 943 77 16 77

**POLITIKA** > LOPEZ, LEHENDAKARI

# Abertzale ez izatea baino gehiago, legitimotasun falta

Hainbat hedabidetako kazetari debagoiendarrei galdetu diegu Lopez lehendakari izatearen eta Ibarretxeren agurraren gaineko iritzia



Mikel Lizarralde
BERRIA

## "Lehendakari izan ondoren normala da oposiziora ez joatea"

"Sorpresa ez da izan Ibarretxek alde egitea; agian, ez genuen uste inbestidura saioan adieraziko zuenik, baina normala da 10 urtez lehendakari izan ondoren oposizioburu izatera ez pasatzea", dio Mikel Lizarraldek. Lopezek esan zuenaren gainean hauxe dio: "Azpimarratu zuen ETAren aurkako lehendakaria izango dela; eta uste dut Batasunaren inguruan dagoen ezker abertzaleari dei bat luzatu gura izan diola, haien aurka gogor jardungo duela esanez".

Lehenengo aldiz lehendakari ez abertzalea izatearen gainean dio "hauteskunde bereziak" izan direla eta Parlamentuak ez duela gizartea islatzen.



Marta Moral
COPE

## "EAJ-PSOE paktu bat egongo da etorkizun ez oso urrutian"

Ibarretxek EAJko lidergoari uko eginda, alderdiari utzi dio PSOErekin harreman berriak sortzeko aukera. Patxi Lopezen izendapen egunean horren berri emateak helburu bat zeukan: informazio aldetik garrantzia izango zuen gai bakarra izaten ez uztea. Sesioko bi albisteak izan ziren horiek.

Goizegi da lehendakari berriaren eragina jakiteko. EAEko gehiengoa abertzalea dela ahaztu barik, PSOEk gero eta boto gehiago ditu, eta abertzaleak zatituta daude. EAJ-PSOE paktu bat aurreikusten dut, etorkizun ez oso urrutian. Gainera, harritu egingo nintzateke PSOE-PP paktuak legealdia bukatuko balu.



Xabier Letona
ARGIA

## "Alderdien Legearen azpijoko politikoak kezkatzen nau gehien"

Espero nuen Ibarretxek Legebiltzarra uztea, baina ez hain azkar; apur baten eutsiko ziola uste nuen. Halako pisua eta ibilbidea izan duen politikaria oposizioan ikustea ez da ohikoa; eta argi dago EAJren aspaldiko ildoan ez dela eroso egon. Hala ere, euskal herritarren zati handi batek errespetuz ikusi du bere figura eta ibilbidea.

Bestalde, lehendakari ez abertzalea izateari ez nioke halako garrantzirik emango, atzetik Alderdien Legearen marrukeria politikoa ez balego; bestela, normaltasunez hartuko nuke. Hori bai, ETAren deslegitimazioaren diskurtsoan, hezkuntzan eta euskararen alorrean igarriko da.



Maria Agirre
EUSKADI IRRATIA

## "Lehendakaria eta Legebiltzarra ez dira gizartearen isla"

Gatazka politikoaren inguruko irakurketa desberdina egin zuten. Lopezek uste du poliziak ETArekin bukatu eta gatazka amaituko dela; Ibarretxeren ustez, berriz, elkarrizketaren bidez konpondu behar da. Bestalde, Lopezek eskua luzatu zien jeltzaleei, eta jarrera hori faltsua iruditu zitzaidan. Ibarretxeren agurra ezustekoa izan da. EAJ barruko presioen eraginez utzi du, agian, politika.

Lehendakaria abertzale den edo ez... hori ez da garrantzitsuena. Nire ustez, ez du gizartearen gehiengoa ordezkatzen. Eta oro har, Legebiltzar berria ez da gizartearen isla, milaka herritar ez daude-eta ordezkatuta.



Jokin Zubia
ETB

## "Lopez abertzalea ez izateari dramatismoa kendu behar zaio"

Ibarretxerena nahiko hitzaldi gogorra izan zen, baina argi dago besterik ezin zuela egin. Alde egin behar zuen. Hala ere, ez nuen uste inbestidura saioan esango zuenik agur. Lopezen diskurtsoari dagokionez, berriz, espero zena izan zen. Euzko Alderdi Jeltzaleari luzatu zion eskua, baina lehenengo PPri eskatu zion botoa. Frentismoa aldentze aldera egin zuen hori.

Bestalde, lehendakari ez abertzalea izateari dagokionez, gaiari dramatismoa kendu behar zaiola uste dut. Kontuan izan behar da, gainera, Lopez lehendakari dela gauzak dauden moduan daudelako.



Martin Garitano
INFO 7

## "Ibarretxe joateagatik pozik egongo da EAJko sektore bat"

EAJren sektore garrantzitsu batek pozez hartuko zuen Ibarretxek alde egin izana; argi dago sektore horrek ez daukala arima abertzalerik, kontrakoa baizik. Hala ere, ez zait dotorea iruditzen Ibarretxek une hori aukeratu izana. Hauteskundeen emaitzak faltsuak dira, eta EAJk ez zuen horren kontra ezer egin, emaitzak ikusi arte.

Bestalde, EAEko biztanleria eta Euskal Herrikoa osotasunean abertzalea da normalizazio baldintzak betetzen ez diren arren. Patxi Lopezek legalitatea badauka, baina legitimitaterik ez. Euskaran eta hezkuntzan, behintzat, txarrera egingo dugu.

**KOOPERATIBAK** > FAGOR TALDEA

# Soldatak %91n finkatu edo ez bozkatuko dute

Soldatak Lagun Arok jarritako indizearen %91n finkatzeak soldatok jaistea eragingo du, nahiz eta neurri desberdinean, kooperatibaren arabera

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE

Fagor Talde osoak, kooperatibarik kooperatiba, soldatak jaistea onartu ala ez bozkatuko du. Bozketak datorren astean hasiko dira, eta Talde osoaren bozak batera zenbatu behar direnez, hil erdialderako jakingo dituzte emaitzak. Soldata jaitsiera Batzar Orokorrei proposatuko die Fagor Taldeko Batzorde Mistoak. Proposamena da soldatak Lagun Aroren kotizazio tarifaren eta prestazio-oinarriaren %91n finkatzea. Soldatak kooperatiba bakoitzak finkatzen dituenez, bakoitzaren egoeraren arabera, jaitsiera handiagoa edo txikiagoa izango da. Jaitsiera hori aurtengo apiriletik 2010eko martxora arteko eperako izango da.

Beste proposamen baten gainean ere bozkatu beharko dute: langabeziaren kofinantzazio eta osagarritasun kontzeptuan bazkideek soldataren %3 ematea, langabezian, egutegi mugikorren eraginpean edo aurre-erretiroan dauden bazkideen alde. Proposamen hori eta soldatei dagokiena modu bereizian bozkatuko dituzte.

**EROSKIREN GEZURTAPENA**

Bestalde, Eroski Taldeak gezurtatu egin ditu egunotan hainbat hedabidetan agertutako albisteak, soldatak jaitsi eta aparteko pagak kendu egingo zituztela esaten zutenak. Krisiari aurre egiteko abenduan hartu zituzten neurriak ezkero, ez dituela gehiago planteatu esan du Eroskik.

**Enara Agirre** > Debagoieneko Kutxa-Zeharoko arduraduna

# "Erdi eta goi zikloak eginak dituzten gazteak datozkigu, lehen pentsaezina zena"

**JOKIN BEREZIARTUA / L.K.** > ARRASATE

**Badira lau urte Kutxa-Zeharok Arrasaten bulegoa zabaldu zuenetik. Kutxako Gizarte Ekintzak finantzatu eta Gureak Taldeko Zeharo Fundazioak kudeatzen duen enplegu zerbitzua da. Euren helburua laneratzeko zailtasun gehien dituzten pertsonei horretan laguntzea da.**




Enara Agirre, Arrasateko bulego aurrean. JOKIN BEREZIARTUA

**Nola egiten duzue enpresen eta lan bila dabilenaren arteko bitartekari lanak?**

Enpresari aurre-hautaketak egitea eta kontratazioetan egon daitezkeen dirulaguntzen gaineko informazioa eskaintzen diogu; erabiltzaileari, harrera egiteaz gain, orientazio-elkarrizketa sakonagoa egiten zaio. Horrez gain, lan-bilaketa prozesuan, laguntza zuzena ematen zaio –curriculumak eta aurkezpen gutunak nola egin erakutsiz, lana bilatzeko nondik nora jo dezakeen adieraziz…– eta baita lanpostuan bertan ere –dokumentuak ulertzen, lantokian bertan irakatsiz, eta abar–. Guztia, modu pertsonalizatuan.

**Debagoieneko bulegoko emaitzak zeintzuk dira?**

Lau urteotan, 885 lagun lan mundura bideratu ditugu, 463 enpresa bisitatu ditugu eta 258 bitartekaritza egin ditugu. Kontuan hartuta lau urte direla zerbitzua ireki genuenetik eta inguruko gero eta enpresa, zerbitzu eta erabiltzaile gehiagok ezagutzen gaituztela; pozik gaude.

**Zertan igartzen duzue krisia?**

Kutxa-Zeharoko erabiltzailearen profila erabat aldatu da. Orain, prestakuntza handiagoko jendea dator; krisia dela-eta langabezian geratu direnak, adibidez: batetik, erdi eta goi mailako zikloak eginak dituzten gazte langabeak gero eta gehiago datozkigu, lehen pentsaezina zena; bestetik, 45 urtetik gorako gizonezkoen kasuak ere nabarmen ugaritu dira. Eta erabiltzaile kopurua ere nabarmen hazi da.

**"Krisiaren eraginez, Kutxa-Zeharoko erabiltzaileen profila guztiz aldatu da"**

**Egia da gurean gizonezko langabe gehiago dagoela emakumezkoak baino? Horrela baldin bada, zergatik?**

Bai, hala da; gure ustez, sektore industrialeko enpresa txikien itxierak eta enplegu erregulazio espedienteak dira horren arrazoia.

**Gureak Taldeak kudeatzen du Kutxa-Zeharo zerbitzua. Nola egiten duzue haiekin elkarlana?**

Zeharo Fundazioa Gureak Taldearen zati da, eta edozein taldek izan dezakeen barne-funtzionamenduaren bidez egiten dugu lan, elkarlanean une oro.

**etxeko leihotik**



**Monika Belastegi** > 'mbelastegi@goiena.com'

## Gaztelera galbidean dago Euskal Herrian

Hizkuntzaren gaiak buruhauste ugari sortzen dihardu. Euskara inposatu ei du orain arteko Eusko Jaurlaritzak eta ondorioz, gaztelera Euskal Herrian galbidean ei dago. Hori entzun dugu behin eta berriz, eta azkenean horrenbeste aldiz entzunda, egia bihurtu dute Espainian. Lopezek kargu hartze ostean eskainitako lehen elkarrizketan ere (Antena 3n) hori izen zen egin zioten galderetako bat: "Aurrerantzean gazteleraz ere ikasi ahal izango dute neska-mutikoek EAEn?". Euskararen aurkako jarrera tematia dute; ikusi besterik ez dago boterea duten guneetan euskarari ematen dioten tratamendua. Nafarroan, esaterako, komunikabideetatik ezabatu nahi dute euskara. Eta euskaraz zerbait sortu edo bultzatu nahi bada, hor irteten dira betiko espaniar demokratak ele-bitasunaren aldeko aldarria egiten. Baina ez dute jarrera bera gaztelera hutsez argitaratzen diren komunikabideekin, horiek zilegiak dira.

**"Euskara inposatu ei du orain arteko Eusko Jaurlaritzak"**

Orain espainiarrek EAEn ere boterea hartu dute eta Nafarroan daukaten sentsibilitate bera adierazten badute, euskarak atzerapauso itzela eman dezake. Hori ez gertatzeko, orain arte lortutakoa mantentzea ezinbestekoa izango da eta baita euskaraz bizi nahi dugunon artean elkarlana bultzatzea ere. Izan ere, orain arte haizea alde edukita euskararen itsasontzia oso urrun joan ez bada, haizea kontra edukita ez dakit nora iritsiko den.

**> Ume sahararrak**
**udan etxean hartzeko dei egin dute sahararren aldeko elkarteek. Aljerian, Tindufeko errefuxiatuen kanpalekuetan bizi diren umeak dira. Umeok etxean hartzeko borondate ona baino ez dela behar diote elkarteetako kideek.**

**> Langabeziak**
**gutxi bada ere, behera egin du apirilean bailaran. Martxoan baino 26 langabe gutxiago dagoela entzutea pozgarria da, argi izpia laino ilunen artean. Fagor Taldean ere soldata jaitsiera bozkatuko dute: 8.000 langileri eragingo die.**

> LANA

### Zertxobait jaitsi zen langabezia apirilean: 26 langabe gutxiago

INEMeko datuen arabera, apirileko langabezia tasa %11,11 izan zen Debagoienean; martxokoa %11,19 izan zen. Apirila 3.443 langaberekin bukatu zen, martxoan baino 26 gutxiago.

Herri batzuetan, zertxobait jaitsi zen langabezia –Antzuolan, %10,66tik %9,45era; Elgetan, %9,55etik %8,94ra; eta Leintz Gatzagan, %10,53tik %8,27ra–, baina beste batzuetan igo egin zen –batik bat, Eskoriatzan, %12,84tik %13,18ra, zazpi langabe gehiago, eta Bergaran, %9,85etik %9,97ra, zortzi langabe gehiago–. Beste herrietan ia berdin jarraitu zuen datuak.

> IKASTAROA

### Autoenplegu saioak daude Oñatin herriko langabeendako

Autoenpleguaren gaineko prestakuntza saioak antolatu ditu Oñatiko Udalak, Oñatiko langabeei zuzenduta, eta izenemate epea zabalik dago maiatzaren 15era arte. Horretarako, Udal Enplegu Zerbitzura jo behar da (Bidebarrieta 12).

Gai teoriko-praktikoak emango dituzte –enpresa bat sortzea, bideragarritasun proiektuak, laguntzak eta baliabideak, e.a.– eta tailer praktikoak ere –ideiak bilatzeko teknikak, informazio interesgarria, krisi garaietarako aukerak, e.a.– 60 orduko jardunaldia da, martitzen eta eguenetan, 09:00-12:00 ordutegian.



zabalik

Javier Marcos

# Atzealdeak

Bruniren eta Ortizen atzealdeen argazkiak zeresana eman zuen pasa den astean. Makina bat ordu ibili dira *tertulianoak* monarkiaren eta errepublikaren atzealdeekin bueltaka. Izan ere, batzuen ustetan, hanka-sartzea izan zen argazkiaren publikazioa, kutsu matxista zeukalako (niri ez zitzaidan iruditu), eta irakurleak konparazioak egiten hasteko arriskua zegoelako (Ortizen kalterako, noski). Beste batzuek, berriz, baietz, argitara eman behar zela, komunikabideek ezin dutela *Bruni efektua* ekidin, eta gainera informazioa aurkezteko modu erakargarriagoa zela. Zenbat buru, hainbat aburu!

Periodikoetan badira, baina, geroz eta gehiago gainera, kutsu matxista duten beste irudi batzuk: Relax atalean azaltzen direnak. Hori da hori ikuskizun lotsagabea!

Neska bat titi bistan, bestea halako posturan, hirugarren batek kuleroak orkatiletan dituela, lau hankatan jarririk dagoenik ere izaten da... Eta argazkiaz aparte, mezuak: *Proba nazazu!; Ausartzen?; Sentsazio berrien bila?; Egin nazazu zeurea; Beroberoak; Hatsik gabe utziko zaitut!*, eta horrelakoak. Gehienak, noski, gaztelaniaz (euskal komunitatea ez ote da izango merkatu horren erabiltzailea?).

**"Egunkari gehiago saltzeko helburuarekin dena da zilegi? Non da muga?"**

Hiru hausnarketa. Lehena: ale gehiago saltzeko helburuarekin, dena zilegi? Non da muga? Non gelditzen da hainbat egunkariren etika?

Bigarrena: irudi gutxi dago matxistagoa hainbat egunkaritako relax orrialde bat baino.

Hirugarrena: egunkariak umeek ere ikusten dituzte, edo ikus ditzakete. Eta? 18 urtez gorakentzako egunkariak asmatu behar?

Eta azken oharra: zorionez, badira hainbat egunkari horrelako ikuskizunik eskaintzen ez dutenik, nahiz eta relax atala izan.

usteak uste

Mirari Altube

# Koldarkeriaren zomorroak

Ez da izan arma nuklear modernoena izua sortu duena. Ezta hondamendirik ikaragarriena ere. Ikusi ere egiten ez diren zomorroek eragin dute gripea eta horrekin epidemia, pandemia eta endemia sortzeko beldurra. Eta zomorro horrek gizakiaren koldarkeria utzi du agerian, beste behin. Mexikotik datozenak bakartu, baztertu, koarentenan jarri eta ateak itxi –inolako froga aztarna barik–. Beti pobreenei eta txikienei tokatzea ere… Baina iritsiko zaigu guri ere.

marrazkiz

Unai Busturia



blog-top

# Harrizko errealitatea

**Pello Urzelai**
www.berria.info/blogak/pello

Patxi Lopezek Eusko Legebiltzarra «euskal gizartearen isla zuzena» dela eta bertan «egon behar duten guztiak» daudela ozenki aldarrikatu arren, nabaria da irudi hori gero eta kamutsagoa dela, lurraldetasun ikuspuntutik zein botoen araberako herri borondatearen ikuspegitik. Hitzak hitz, irudipen hori indartu du inbestidura saioak: Legebiltzarrak irudikatzen duen errealitatea ez dator bat gizarteak osatzen duenarekin.

Bi hautagaien diskurtso eta planteamenduak alderatzea argigarria da aro berri horren gakoa ulertzeko. Diferentzia nabarmen bat izan da Ibarretxe eta Lopezen artean: gatazka politikoari buruzko ikuspegia. (...).

Kontraste hori egitean, argi atzematen da lehendakari berriaren ahalegina errealitatea bere kasa janzteko, arazoaren muina alde batera utzita. Baina Loiolako eta Suitzako elkarrizketetan auzi politiko horretaz hitz egin bazen, ez da posible auzia desagertzea PSE-EE Ajuria Enera iritsi delako. Martxoaren 1eko hauteskundeen ondorioz suertatutako konbinazio matematikoak, berez, ezin du ezabatu egun batetik bestera erro historiko sakonak dituen gatazka bat.

Garai berriaren ezaugarri nagusietako bat gatazkaren gako politikoak estaltzeko ahalegin berritua izango da, Patxi Lopezen inbestidura hitzaldian agerian gelditu denez. Orain arte ez bezala, Estatuak tresna berri bat izango du esku artean errealitatearen ikuspegia ezartzeko, Eusko Jaurlaritzaren aparatu instituzionala, alegia. (...)

Hemendik aurrerako galdekizun nagusia honako hau da: nola bideratuko da herri oso baten burujabe izateko nahia? Argitu beharra dago nola eutsiko dion eragile bakoitzak helburu horri. Batetik, ea agur esan ondoren Ibarretxeren aroak nolako jarraipena izango duen oposiziora iragan den EAJren eskutik. Ea Patxi Lopezek luzatutako eskua hartzen duen (...). Bestetik, nola helduko dioten aldarrikapen horri gainerako eragileek. (...)

koplak

Manex Agirre

# Bustoa eta gustoa

Ondorengoa da sei koplatan
azaldu nahi nukeena:
Patxi Lopezek etxe berria
apaintzeko duen dilema.

Egongelan sofaren ondoan
ipiniko du, jakina
Basagoitiren busto handi bat
brontze landuan egina.

Garbitzaile ekuatoriarrari
esango dio: "aditu,
hautsak astero astindu baina
busto hori ez ikutu!".

Eta panorama baietz egon
hiruzpalau asterekin:
Ajuriaenea distira betez
ta bustoa zikin zikin.

Noski, Lopezek berak pasako
dio trapua goizean
parlamentuan botazioa
tokatzen den bakoitzean.

Garbitasuna gauza ona da
baina ze erremedio,
etxe honi, garbi mantendu arren,
lizun usaina dario...

**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Edu Mendibil (Goienka2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Sakabanaketak dakarren sufrimenduaz dihardute Mattin Troitiñok eta Enrike Letonak. Biak elkarrizketatu ditu oraingo astean Goiena Telebistako *Magazinea*-n Arritxu Barruso kazetariak. Han esandakoak ekarri ditugu paperera. Besteak beste, diote Frantziako eta Espainiako estatuek euren senideak Euskal Herrira gerturatzea lortu arte lanean segiko dutela.

**Enrike Letona eta Mattin Troitiño** > Euskal Preso Politikoen senideak

# "Ez dauka logikarik sakabanaketarekin segitzeak; lehen ez, eta orain, gutxiago"

**ENEKO AZKARATE** > ARRASATE

**Euskal preso politikoei aplikatzen zaien sakabanaketa politikaren gainean jardun dugu Mattin Troitiño Etxerateko Bilgune Nazionaleko kide eta senidea denarekin eta Enrike Letona preso ohi eta senidearekin. 20 urte bete dira sakabanaketa politika abian jarri zuenetik Espainiako Gobernuak.**



Enrike Letonak eta Mattin Troitiñok diote presoen sakabanaketarekin amaitu beharra dagoela. JON BEREZIBAR

**Mattin Troitiño, ze helburuarekin sortu zen sakabanaketa politika orain dela 20 urte?**

Era honetako politika zorrotz eta gordin batek helburu jakina du: gure senide presoek osatzen duten kolektiboa apurtzea; horri gehitu behar diogu guri, senideoi, zein kostu suposatzen digun dispertsioak.

**Aita Txomin, Jon anaia eta osaba Antton espetxean dituzu eta aita 20 urtean, adibidez, ez duzu 20 kilometro baino gertuago izan, ezta?**

Bi urte neuzkala atxilotu zituzten aita eta osaba; hortaz, 22 urte daramatzate espetxeetan sakabanaturik. Milaka eta milaka kilometro egin behar izan ditugu eta dispertsio horrek suposatu digun kostu ekonomikoa handia izan da. Urte hauetan guztietan ikusi dugu zela presoon oinarrizko eskubideak behin eta berriro izan diren zanpatuak egunero eta, ondorioz, baita gureak, senideonak ere.

**Enrike, zeu preso izandakoa zara: senideekiko harreman hausketa hori lortzen da?**

Sortu zutenean, sakabanaketa politikarekin lortu nahi zutena zen presoak damutzea, ETAri izugarrizko kostua suposatzea eta harekin apurtzea presoek. Sakabanaketa politika horrek hasieran, beraientzako, abian jarri zutenendako esan nahi dut, nolabaiteko zentzua izango bazuen ere, gaur egun ez dauka inolako zentzurik. 20 urteotan inolako emaitzarik lortu ez badute, ez dauka zentzurik horrekin jarraitzeak; are gehiago, sakabanaketaren eraginagatik, presoaren eguneroko baldintza, egoera, aldatzen denean, bakartua denean. Azken 20 urteotan espetxean sartu denak ez du sakabanaketaren aurreko egoerarik ezagutu. Ez dauka presiorik. Badaki preso sartzen dutenean zein izango den biziko duen egoera. Hortaz, damutzea baldin bazen hasierako helburua, badakite hori ez dutela lortzen eta, azken finean, mendekua bilakatu da sakabanaketa; besterik ez: presoa zigortzea, bakartzea eta senideak milaka eta milaka kilometro egitera behartzea.

**Uste duzu jendea jabetzen dela senideok bizi duzuen egoeraz?**

Uste dut zaila dela, norberak bizi arte, jabetzea zein den egoera: asteburu guztietan milaka kilometro egin... Preso asko eta asko daude 1.000 kilometro baino urrunago daudenak eta horrek suposatzen du senide askorendako asteburu guztiak kanpoan egotea. Kontuan izan behar da, gainera, gazteak ez goazela bakarrik espetxeetara bisitan, batez ere zaharrak doazela, amak-eta. Hemen urrun joan barik, *Garratx* eta *Gautxori*-ren amak laurogeitik gora urte dituzte eta horiek behartzen dituzte milaka kilometro egitera, zeratarako eta semeekin 40 minutu egoteko. Okerrena ez da hori, okerrena da Estatuak dioela legea aplikatu behar dela, bete egin behar dela eta, hala ere, legea egin dutenek ez dute betetzen legerik; izan ere, legeak dio presoak egon behar duela etxebizitzatik gertuen dagoen espetxe batean. Garbi dago hori ez dela betetzen.

SAKABANAKETA

**"Politika zorrotz eta gordin honek helburu jakina du: gure senide presoek osatzen duten kolektiboa apurtzea"**

ONDORIOAK

**"Inolako emaitzarik lortu ez badute, ez dauka zentzurik horrekin jarraitzeak"**

LEGEA

**"Legeak dio presoak egon behar duela etxebizitzatik gertuen dagoen espetxe batean"**

**Zuk ere, Mattin, bizi izan dituzu sakabanaketa politikaren ondorioak, ezta? Kontatu zure esperientzia.**

Nik aldamenean senide asko izan ditut bidaietan eta balorazio laburra egin behar badut, esan behar dut bizitza goitik behera aldatzen zaizula. Edukitzea preso aita, osaba eta orain dela lau urtetik anaia ere bai, eta hara eta hona ibiltzeak, bizimodua asko baldintzatzen dizu, ze asteburu guztietan milaka kilometro egiten baititugu, horrek suposatzen duen kalte fisiko, psikiko eta ekonomikoarekin. Gaur egun denon ahotan dagoen gaia da eta ez du inongo logikarik sakabanaketarekin jarraitzeak; lehen ez zeukan logikarik, eta gaur egun gutxiago.

**Aste honetan denak Legebiltzarrari begira egon gara, Patxi Lopezen inbestidura saioa dela-eta. Zela ikusten duzue etorkizuna kontu honetan lehendakari berriarekin?**

Egia esan, hedabideen bitartez jakin dugu gobernu berriak bertan behera utzi nahi dituela presoen senideoi gure familiartekoak bisitatzeko ematen zaizkigun dirulaguntza publikoak. Sozialistek jarri zuten abian sakabanaketa politika, EAJren laguntzarekin, orain dela 20 urte, eta, egia esan, denborak erakutsi digu abian jarri zutenek ez dutela borondaterik amaitzeko sakabanaketarekin eta gatazka honekin. Guk, bitartean, jarraituko dugu haiengana jotzen, errealitatea ezagutarazten eta egin behar duten lana egiteko exijitzen; azken finean, oinarrizko eskubideen defentsan jarraitzen.

**Enrike, zuk Parisen duzu anaia Igor, espetxean. Zelakoa da zure esperientzia?**

Frantzian dauden presoen egoera, epaitu aurreko egoera behinik behin, nahiko gogorra da, baina Espainiako kartzeletan dagoen tentsiorik ez dago. Edozelan ere, Frantzian ere geroago eta preso gehiago daude eta han egon edo hemen egon antzerakoa da. Lortu behar duguna da hona gerturatzea eta, presoek esaten duten moduan, legea bete dadila exijitzea.

**Euskal gatazka politikoaren konponbidearen barruan sartzen duzue presoen egoera?**

Bai, horixe. Guk argi daukagu Euskal Herriak bizi duen gatazkaren ondorioz ditugula presoak kartzeletan, eta, haien eskubideak konpontze aldera, gatazka ere konpondu behar dela uste dugu. Lotuta daude biak.

**Aro berri baten aurrean gaudela diote Zapaterok Madrilen eta Lopezek hemen. Zela ikusten duzue egoera?**

Gordina. Esperientziak esaten du denborak nor bere lekuan jartzen duela. Guk jarraituko dugu gure lana egiten, gure errealitatea salatzen, gure senideen eskubideak defenditzen eta Legebiltzarrean sortu beharko den Giza Eskubideen Batzordearen aurrean hantxe, tinko.

# Elkartasuna!

**Kristina Elkoro**
(Elkoro familiaren izenean)
Bergara

Jose Luis Elkororen atxiloketa dela-eta, pasa den astelehenean Bergarako udaletxean ez ohiko pleno bat ospatu zen. Ez da idatzi honen helburua zenbait jokaera iraingarri eta mingarri salatzea, ezta ere plenoan gertatu zena azaltzea, bertan urduritasuna dela-eta, esan gabe gelditu zena adieraztea baizik.

Hitz hutsez gain, elkartasun hitza zentzuz betetzen ari zareten guztioi eskerrak ematea da idatzi honen helburua.

Lehendabizi, Bergarako Alkateari eta alkatetzako Ezker Abertzaleko hautetsiei. Guardia Zibila etxeko atean agertu zenerako, zuek han zeundetelako kaletik zuen babesa eta elkartasuna erakusten. Momentu guztietan Jose Luisen egoeragatik adierazten ari zareten arduragatik. Hau gure aitaren bosgarren atxiloketa izan bada ere, aurreko Alkatetzatan inoiz jaso ez dugun elkartasuna sentitu dugu.

Eskerrik asko ekimen ezberdinen bidez mobilizazioak, mozioaren onarpena, jasotzen ari garen eskutitz, oharrak, bisita, dei, laguntzarako eskaintza, eta abar luze batekin momentu gogor hauetan aitaren Soto Del Realeko zelda eta gure etxea benetan elkartasunez betetzen ari zareten guztioi.

# Aski da!

**Iban Molina, Maite Saez de Maturana eta Jon Markuerkiaga**
(Orni eta Dakiguko delegetuak, langileen izenean)
Bergara

2009ko apirilaren 24an Anabel Hernandez Mateosen eskutitza argitaratu zen GOIENKARIAn, Orni SL, Dakigu SL eta Inversiones Neobas enpresetako bazkide baten emaztearena. Eskutitz honetan, bere haserrea agertzen zuen Orni eta Dakigu enpresetako langileok beharturiko mobilizazio eta gizarte salaketetan hartutako jarreragatik eta lapurrak deitu genielako. Ez dakigu ezjakintasunetik edota lotsagabekeriaz egiten duen salaketa hau, baina esaten duen bezala bazkideek isilik egotea erabaki zuten hartzekodunen konkurtsoak beraiei arrazoia eman eta errugabeak direla frogatu arte, baina berak ezin duela jadanik isilik jarraitu eta frogarik ez dugula argudiatzen du. Eta horregatik eskutitz hari erantzuna ematera behartuta gaude.

Lehenik eta behin, bazkideen jarrera egokia da: isiltasuna. Hori da zeuk ere egin behar zenuena. Bigarrenez, ez daukagu inongo dudarik, nahiz eta itxaropena den galtzen den azkenengoa, arazo honetatik errugabeak irtengo zaretela, baina honek ez du esan nahiko ez dela gertatu guk esandakoa, baizik eta ez dela azterketa sakonik egingo (hau gure iritzia da ia 2 hilabetez hartzekodunen konkurtsoan egon, eta bertako funtzionamendua ikusita) nahiago genuke erratuko bagina.

Anabel, froga faltaz hitz egiten ari zara. Zer iruditzen zaizu zuri Eroskiri saldutako pabiloia, Orni SA enpresako aktibo nagusia, Ornik berak ez saltzea eta Inversiones Neobasek saltzea? Eta nola ulertu daiteke orain Orni enpresa kokatua dagoen pabiloia, Artzamendi eraikuntzen ondasuna, Inversiones Neobasi (zure senarra bazkide den enpresari) saltzen ari dela eta honek, berriz, Orni enpresari alokatzen diola hilean 12.054 euro ordainduz. Beraz, Inversiones Neobas 1.500.000 euro (250 miloi pezeta) balio duen pabiloiarekin geratzen ari dela sosik ipini gabe? Ez al zaizu arraro samarra iruditzen Neobas enpresak Orniri pabiloia alokatzea enpresa bietako bazkideak pertsona berak izanda?

Hau azaltzeko era desberdinak daude: lapurreta, deskapitalizatzea, fondoak bidegabetzea… edo beste hainbat era, baina honek ez du errealitatea aldatzen.

Horretaz gain, bazkide berberekin beste enpresa batzuk hedatu dira, Arbastu SL enpresa berria, eta lehendik zegoen Serviorni SL, eta beraien artean diru mugimendu oso arraroak sumatu ditugu, baina ez badituzte aztertzen eta frogatzen, ezin ditugu hemen azaldu. Beraz, frogarik ez dugula esaten duzunean, zure hitzak neurtu beharko zenituzke.

Bazkideek eta familiakoek ekarpen pertsonalak egin dituzuela ere esaten duzu, eta guk ez dugula frogarik esaten duguna esateko. Baina non daude zuen frogak? Erraza da, jendearen errukia arren eskatzea egoera dramatikoak kontatuz, baina froga ezazu. Gustura ikusiko genituzke ekarpen pertsonal horiek frogatzen dituzten agiriak.

Orni egoera honetara eskaera faltagatik iritsi dela esaten duzu; bai, egia da eskaera falta egon dela, baina honek ez du esan nahi 2008ko urtarriletik abendura arte ez dela lanik egon. Urte guztian zehar lan egin badugu, zergatik esan zeniguten abenduaren 19an, abenduko soldata eta aparteko ordainsaria ez genituela kobratuko eta 2009ko urtarrilaren 31ra arte kobratu gabe lanean jarraitu beharko genuela bazkideak ez zeudelako prest dirua jartzeko (diru gehiago, zure arabera), enpresak aurrera jarraitu zezan? Nola da posible urte guztian zehar lan egin ondoren, 6 milioi inguru fakturatzen dituen enpresa batek 5 milioi euroko galerak edukitzea urte berean?

Nahiz eta egoera horrela azaldu, langileok urtarrilean lanean jarraitzea erabaki genuen, ezer kobratu gabe, noski, guk bai aurrera egin nahi genuela, nahiz eta baliabiderik ez eduki.

Egoera honetan, enpresari zera eskatu zitzaion: langileon artean hiru langilek ezin zietenez gastuei aurre egin, mesedez hiru pertsona hauei soldatak ordaintzeko. Hiru soldata! Hau dirutza! Bada, ezta hori ere, ez zenuten egin. Hala eta guztiz ere, zure senarrak hornitzaile bati zera esan zion: ezin ziola ordaindu, Orniko azken diru apurra beraien hipotekak ordaindu ezin zuten langileei pagatzeko erabili zelako. Hipokrita samarra zure senar hori. Gero, gu gara gezurtiak…

Horrez gain, bizpahiru alditan nabarmendu duzu langile batzuen erreakzioa izan dela, ez dakit nahita edo ez. Baina jakin ezazu ez dela langile batzuen erreakzioa. Guztiok ez bagara, ia gehienok pentsatzen dugu lerro hauetan eta kalean esaten duguna.

# 'Vacio Sanitario'

**Jesus Markaide**
Arrasate

Agian, irakurleok, *vacío sanitario* terminoa berria da, baina esaten bada dela gerran dagoen herrialde batean ospitaleak bonbardatzen dituztenean sortzen den egoera, bada, esaera ezagunagoa egingo zaizue.

Baina Arrasaten badauka beste esanahi bat (sekretupean dagoena), komeni zaionean erabiltzen duena Juan Antonio Urdangarin, Hirigintza Saileko gure goi funtzionario zarauztarrak. Zu izan zaitezke lokal baten jabe, bere ate eta guzti; bada, Urdangarin jaunak esaten badu lokal hori ez dela lokala, *vacío sanitario* baizik; bada, izorra zaitez!, ez dago zer eginik.

Izorra zaitez zu, ze Urdangarin jaunak ukatzen dizu sarbidea zeure lokalera (edo zurea zela uste zenuena). Eta, gainera, pare bat kiloko isuna jaso dezakezu, hark uste badu lokal hori erabili duzula.

Urdangarin jaunak ahalegin guztiarekin esaten dio ezetz *vacío sanitario* hori zer den azaltzeari. Sekretupean dauka. Mondragoetar batek bost bider eskatu dio eta erantzun dio Cuencan eiria diharduela… Eta azkenaldian, Urdangarin jaunak kontatu ei dio hau dena Ane Zabala Zubiaurreri, Arrasateko Udaleko letratu bikainari; izan ere, hainbeste gustatu zaio berba, gero eta sarriago erabiltzen du.

Exegeta aurreraturen batek ondorioztatu du funtzionario hauek daukatela goi izaki baten (beronen identitatea ez dugu ezagutzen) ahalmena bihurtzeko zeurea den ondasun bat *res nullius*, hau da, inorena ez dena. Eta inorena ez balitz, Udalarena ere ez litzateke izango (egoera honek ekar dezake, arriskutsuki, desjabetzea, eta hori bai dagoela jasota legeetan).

Irudika dezala irakurleak Urdangarin jaunak eta Zabala andereak *vacío sanitario*-tzat hartzen dutela bere etxeko komuna eta jartzen diela isuna berau erabiltzeagatik, etorkizunean erabiltzea galaraziz, eta errekuperatzeko modu bakarra bihurtzen dela abokatuetan kilo erdi gastatzea, Udalarekin auzitan jarduteagatik. Seguru gustuko duela plana, ezta?

Bitxia da zerbait egotzi izana, baina ez jakitea zer. Bada, ulertzeko hain erraza den hori ez da Urdangarin eta Zabala goi funtzionarioen buruan sartzen, eta badirudi ondo iruditzen zaiela Udal honetako zinegotziei, behinik behin eurena ez bada *vacío sanitario* aitortua izan den komuna.

Harrigarria da 100 metro koadroko *vacío sanitario*-a, ezertarako erabiltzen ez den eta erabil ez daitekeena, Udaleko teknikoak 20.000 eurotan baloratu izana. Ezertarako balio ez duenak baliorik izan dezake eta norbait egon daiteke zerbait ordaintzeko horren truke? Ai, ene!

# Txerri gripea: negozio, guda biologiko…?

**Salvador Gonzalez Santiago**
Bergara

Txerri gripea ez da berria. 60ko hamarkadatik hona gurekin dago, nahiz eta gaixotasun grabe izan, senda daiteke. Gizakioi erasotzen digun zepa H1N1 da. H1N1 hiru azpitaldetan mutatu da, Sendito gripea, Txerri gripea eta Hegazti gripea.

2004 eta 2005. urteetan, *Science* aldizkariak eta Ameriketako Estatu Batuetako beste aldizkari batzuek argitaratu zituzten artikuluekin, iskanbila handia sortu zen. Artikuluen arabera, AEBetako Armadako Molekula-Patologia Institutuak espainiar gripeko genoma ikertu eta eskuratu egin zuen. Sortutako iskanbila honen bidez, gizartea aldaketa txiki batzuekin arma biologikoak egin daitezkeela konturatu zen.

Gaixotasun hau sendatzeko, botikaren patenteak esku pribatuetan daude, eta gobernuek ez dituzte askatzen patenteak. Zergatik?

Kaliforniako Pueblos Sin Fronteras kazetari elkarteak galdera batzuk planteatu ditu. Ehun pertsona baino gehiago hil ditu birusak, nondik dator? Nori ematen dio mesedea? Zergatik ari dira ezartzen larrialdiko neurriak Mexikon?

Indonesiako Osasun ministroak idatzi zuen liburuan, *Es tiempo de que cambie el mundo: manos divinas detrás de la gripe aviar*, arma biologikoei buruzko xehetasunak ematen ditu. Liburu honetan, aipatutako ministroak dio AEBek arma biologikoak fabrikatu ditzaketela.

Lori Price ikertzaileak esaten duenez, sortu den histeriak etekin handiak emango dizkio Donald Rumsfeldi. Rumsfeld, AEBetako Denfentsa idazkari ohia izan zena, Gilead Sciencen laborategiko zuzendarietako bat da. Laborategi honek Tamiflu medikamentuaren eskubideen patentea dauka. Hala izanik, gaur egun Tamiflu botika Txerri gripea sendatzeko gai den botika bakarra da.

Beste kazetari batek, bere liburuan, *Nubes de secretos,* Osasun Publikoko irakasle bati elkarrizketa bat egin zion. Irakasle honek, dokumentu abalatuekin, Pentagonoak I baziloa isuri zuela zioen ondoko lekuetan: New Yorkeko metroan, Mineapoliseko eskola publikoetan eta San Frantziskoko badian. Azken 40 urteotan, 10 milioi pertsona kutsatu zirelarik bazilo honekin.

Alde batetik, Txerri gripe berri arriskutsu honekin, beste berri inportante batzuk estali ditu. Lori Price ikertzaileak, bere liburuan, *La gripe acaba con los memos de la tortura,* esaten duenez, Txerri gripea, seguruen, AEBetako laborategi militarretan fabrikatu da. Birusaren inguruko berriek CIAk, Guantanamon eta Abu Ghraib-en dauzkan presoen aurkako torturen inguruko berriak estali dituzte.

1956 eta 1958ko desklasifikatu berri dituzten dokumentuetan, Ameriketako Estatu Batuetako armadak Georgian eta Floridan eltxo asko hazi zituen, ea arma biologiko bezala erabili zitezkeen frogatzeko.

Hegazti gripearekin, Roche eta Gilead laborategiaren akzioek igoera handia izan zuten eta honekin Ronald Runsfelden etekinak igoarazi ditu. Une honetan, Tamifluren milioika dosi saltzeko prest daude.

# AEDren literatur lehiaketa

**Itxaro Artola**
(AEDko dinamizatzailea)
Arrasate

Apirilaren 27ko *Asteleheneko Goienkaria*-n AED elkarteak antolatzen dituen literatur lehiaketen gainean argitaratutako informazioa osatu gura dut lerro hauen bitartez. Kaleratutako argazki-notizian esaten da: "Unai Bergaretxek, Miren Arizmendiarrietak, Larraitz Trojaolak eta Joxerra Agirreurretak osatu duten epaimahaiak 23 gazte saritu" zituela.

Egia esan, aipatu laukoteak bertso-paper lehiaketako epaimahaia osatu zuen bakarrik, ipuin, poesia eta komiki

(12. orrialdean jarraitzen du)


8x4
8 x 4 Gordailua
Aukera bikaina zure aurrezkientzat.
Gure 8x4 Gordailu berriarekin, oso errentagarritasun erakargarria eskuratzeko aukera duzu, zure kapitala arriskatu gabe.
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa

(10. orrialdetik dator.)
lehiaketetara aurkeztutako lanak epaitzen beste kolaboratzaile batzuk aritu baitziren: Herri Eskolako irakasleak, Hain_1 taldeko neskak, Haritz eta Andoni Iñurritegi anaiak, Xabier Agirre eta Josu Herrarte hain zuzen. Esaerak dioskunez, Nori berea da zuzenbidea. Bide batez, aukeraz baliatuko naiz denei eskerrak emateko.

## Herri kirolak eta Jakioneko baserritarrak

**Gurutz Garmendia**
(Herri kirolen antolaketarako lantaldea)
Bergara

Alaba berarekin hartu eta mendialdera alde egin zuen Anbotoko Damak, Bizkaiko Jaun zen Haroko Lopetz On Diegok gurutzea musukatu zuenean. Eta ederki adierazita azaldu zen Erdi Aroko elezahar honetan geroago gertatuko zena, hiriak erdalduntzea eta euskal erroak mendi eta baserri giroan irautea. Gure baserritarrek eutsi diete bertako ohitura, usadio, hizkuntza jator eta, noski, herri kirolei. Hor dago, beraz, gure jatorria eta bertako iturritik eran nahi dugu euskal erroak berriro ere geureganatzeko.

Hori dela-eta, joan zen urtean Gari ijitoak Herri Kirol txapelketa antolatu zuen berak bakarrik buru-belarri jardunaz eta aurten bigarren ekitaldia izango da. Aurrekoa hobetu nahian, hiru laguneko lantaldea osatu dugu eta txapelketa tabernen artean antolatu. Zortzi taberna bakoitza bere taldearekin izango dira aurten aurrez aurre eta erronkak mahai gainean daude dagonerako. Oso ona izan da tabernarien harrera antolaketa lanetan laguntzeko eta, berezikí, Pol Pol tabernakoa aipatu nahi da. Bergarako txapelketak, beste herrientzako eredugarri izan nahi du eta ekitaldi polita izango da Mendekosteetako jaietan. Nesken partaidetza bultzatzen ari gara eta talde irabazleak sari modura eskultura jasoko du gero urte osoan beren tabernan denen erakusgarri izateko.

Bestalde egitasmoa borobildu nahian, zera erabaki da antolakuntza lantaldetik, txapelketaren izena Jakioneko baserritarrei eskaintzea izen honetxekin: Bergarako Herri Kirolen Jakion txapelketa. Baina hor Udaleko lege gogor eta zurrunekin aurkitu gara. Gure baserritarren elkartea, enpresa pribatua omen eta, ondorioz, ezin jarri euren izena.

Beste behin, legea zentzuari nagusitu zaio eta, ondorioz, gure baserritarren kooperatiba herritarren artean hitzez hitz ibiltzeko aukera baztertu. Denon laguntza behar dute baserritarrek eta ez da ulertzen Udalak bera, Jakioneko partaide izanda, nolatan ez duen zentzu gehiagoz jokatzen. Garaiz gabiltza oraindik ere zentzua nagusitu dadin eta baserritarrei berea emateko.

## Kanon digitala

**Mikel Errasti**
Arrasate

Dena beltza ikusten den krisi garai honetan, gure poltsiko urratuei arintasuna kendu dien beste albiste bat gehitu beharra dago. Dirudienez, Europar Batasunean egiten den legez, liburutegietan dohainik ematen den mailegutzan, kanon bat ezarri nahi da estatu espainiarrean ere.

Hemendik aurrera liburu edo CD bat hartzen dugun aldiro, diru kopuru bat ordaindu beharko litzateke egilearentzat. Ordainketa noren esku egin beharko litzatekeen da koska; erabiltzaile partikularrak edo Estatuek. Kontua da, gai honek zalantzak sortzen dizkidala. Alde batetik, idazle xumea denak, bere ogia eramateko eskubidea daukan bezala, lege honen atzetik, dirua ateratzeko aitzaki soil bat ez ote den egongo.

Lerro hauen bitartez, honako galdera hau luzatu nahi nuke, idazle, liburutegiko langile edo, ni bezala, erabiltzaile arruntak zaretenondako. Onargarria irudituko litzaizueke, hartzen duzuen liburu bakoitzeko, kanona ordaindu beharko balitz?

Post-data: jeneralean, ez beti, baina bai askotan, Europar peto-petoak izateko, bertako gauzak egin behar dira, gu ere horrelakoak izateko. Horrela, bada, adibide gisa, gasolina era neurri gabean igotzen zutenean, Frantzian garestiagoa zela-eta isilik egoteko esaten ziguten.

Nik ere europarra izan nahi dut. Baina ez zamak jasotzeko bakarrik. Nik Europako gauza onak ere nahi ditut. Nahiz eta utopikoa izan, noizko autopistak dohainik Alemanian bezala? Noizko umeen kalitatezko hezkuntza dohainik Suedian bezala? Noizko gazte batek bere kontura bizitzeko aukera, Dinamarkan bezala?

## Jose Luis askatu!

**Juan Luis Barrutia**
(Elay taldeko komitearen izenean)
Antzuola

Elay taldeko langileen ordezkariok (ELA, LAB, UGT) 18/98 sumario barruan dauden herritarren eta bereziki Jose Luis Elkororen atxiloketa eta kartzelaratzea salatu nahi dugu. Epaiketa politiko honen aurka gaude eta Jose Luis Elkoro eta bere senitartekoei gure elkartasuna adierazi nahi diegu. Era berean, euren askatasuna eskatzen dugu.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Telefonoa:
943 25 05 05
Faxa:
943 25 05 12
Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com



# Herriak

**Arrasate** > 18-19 **Bergara** >24-25 **Aretxabaleta** > 31-32 **Oñati** > 33
**Eskoriatza** > 34-35 **Antzuola** > 36 **Elgeta** > 37 **Aramaio** > 38 **Leintz Gatzaga** > 39



**> ARRASATE**
Kontzezino Kale Estalia tapatu, eta eskailerei estalkia kenduko diete **> 14**



**> ARETXABALETA**
Sahararen aldeko II. herri krosa egingo dute bihar, zapatua **> 25**



**> OÑATI**
San Martin egoitzako beheko solairuan konponketak **> 27**



**> ESKORIATZA**
Santa Anako 19. zenbakiko lokala gazteei utziko die Udalak **> 28**



Kaonbi elkarteko Yesica, Txelo, Mari Mar eta Luis, azken horren *Txuri* katuarekin; kalean topatu zuen Luisek. LEIRE KORTABARRIA

**ARRASATE** > JENDARTEA

# "Jendeak jakin dezala katuei ezin zaiela minik egin, babestuta daude"

**KALEKO KATUAK**
Arrasateko kaleko katuak ondo bizi daitezen, Kaonbi elkartea lanean dabil

**TXABOLAK**
Katuak babesteko eta jatekoa emateko 10 txabola ipiniko dituzte auzo batzuetan

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE

Hilabete inguruko ibilbidea du bakarrik Kaonbi –Katuak Ondo Bizi– elkarteak, baina, jendaurrean aurkeztu zenetik, interesa agertu duen jendea inguratu zaie; hala, 11 bat lagun dira orain. Arrasatear horiek batzen ditu katuenganako duten zaletasunak eta kaleko katuak Arrasaten ondo bizi izateko kezkak: "Gure asmoa ez da kalean bizi diren edo jendeak gehiago gura ez dituen katuak batzea, baizik eta Arrasaten dauden kaleko katuek kalean jarrai dezatela, ondo zainduta, janda, larregi ugaldu barik, eta bai herritarrak bai katuak pozik egon daitezela", azaltzen du Luis Baldezate elkarteko presidenteak.

Hainbat ekintza egiten dituzte: katuei jaten eman, modu antolatuan; katuok antzutu, koloniak modu deskontrolatuan ugaritu ez daitezen; katuren bat gaixorik edo zaurituta badago, sendatu... Orain hurrengo, txabola batzuk jarriko dituzte behar diren lekuetan. "Gure asmoa da 10 bat egitea datorren astean", dio Baldezatek. Txabolotan, katuek euriaren, hotzaren eta erasoen aurreko babesa izango dute, eta jatekoa ere hantxe ipiniko diete.

Oraingoz, dena eurek egiten dute, Udalaren laguntzarekin; Udalak lokal bat eman die. "Elkarlana da: koloniak zaintzea Udalaren ardura da, baina guk egiten dugu lan hori".

**KATUEI ESKER, ARRATOIRIK EZ**

Iaz, zenbait auzotako bizilagunen eta katuen artean elkarbizitza ona egon zedin, hitzaldiak antolatu zituen Arrasateko Udalak; Errenteriako Bubastis elkarteak egin zituen. Hortik burura-tu zitzaien arrasatear horiei Kaonbi elkartea sortzea. Izan ere, Arrasaten badaude hainbat katu-kolonia edo talde, populatuenak Erguinen eta Makatzenan; denetara, zentsurik egin ez badute ere, Kaonbikoek uste dute 120 bat kaleko katu bizi direla herrian; eta, gauzarik arruntena izan ez den arren, katuenganako eraso edo akabatze kasuak izan dira. Horien aurrean, elkarteko Mari Mar Martinek hauxe ohartarazten du: "Jendeak jakin behar du katuak babestea ez dela gure elkartearen kontua, baizik eta nazioartean babestuta daudela katuok; haiei min egitea delitua da". Martinek 33 urte darama auzo berean bizi izaten, eta "katuak betidanik ezagutu ditut", diosku; "katuok kalean egon behar dute, eta mesede egiten dute, gainera: katuak dauden lekuetan, arratoirik ez dago".

Oro har, Kaonbi denon onerako lanean dabilela ziurtatzen dute sortzaileek: "Katuak maite dituztenendako, jakin dezaten katuak ondo zainduta daudela; maite ez dituztenendako, katuek traba egin ez diezaieten eta elkarbizitza ona izan dezaten"; eta katuak ondo bizi daitezen, jakina.

**KAONBI ELKARTEA**

**> KONTAKTUA**
Kaonbi elkartearekin harremanetan jartzeko honako bideak daude: telefonoa (619 38 94 68) eta posta elektronikoa (*kaonbi@gmail.com*). Bloga ere badute, hemen: *www.kaonbi.blogspot.com*.

**> PARTE HARTZEKO**
Bazkide egin zaitezke, urtean 20 euroko kuota ipinita. Laguntzeko beste modu batzuk daude: materiala ematea, tratu txarrak salatzea, diru-ekarpena Euskadiko Kutxan ireki duten kontuan...

**> KATUEKIN ZELA JOKATU**
"Jende askok ematen die jaten kaleko katuei. Onena pentsu sikua da. Edozelan ere, onena da guri deitzea, guk otorduak antolatu ahal izateko", diote elkartekoek.

**> KATUA ADOPTATU NAHI?**
Kaleko koloniak neurriz kanpo hazi ez daitezen, katakumeak adoptatzeko aukera ematen du Kaonbik. Euren blogean ipiniko dituzte argazkiak eta katutxoen historiak. Orain, eskaintza baino eskaera gehiago dituzte, baina.


Langileak Kontzezino Kale Estalian lanean. UBANE MADERA

**OBRAK** > KONTZEZINO KALE ESTALIA

# Txiza usainak eta usoen kakak saihesteko obrak

## Kontzezino Kale Estalia tapatu egingo dute eta eskailerei estalkia kenduko diete

**U.M.** > ARRASATE

Astelehenean hasi zituzten obrak Kontzezino Kale Estalian; hau da, Kontzezinoko tunelean. Bi obra egingo dituzte: estalitako kalea kendu eta espazio hori pareko dendendako egokituko dute, eta eskailera zentralen estalkia kendu egingo dute.

Eskoriatzako Frixi enpresak egingo ditu lanok, 236.000 euro pasatxoko aurrekontuarekin. Hiruzpalau hilabetean bukatuko dituztela esan dute.

**GARBIKETA ARAZOAK**

Aski ezaguna da Kontzezinoko tuneleko txiza usaina, eta bizilagun asko labaindu izan da eskaileretako uso kakekin.

Orain arteko arazoa izan da ingurua garbitzea ez zela erraza, garbitzaileek ezin zituztelako mangerak erabili, garajeetara ura sartzen zelako.

Urtetan egoera bera sufritzen egon ostean, baina, Kontzezinoko bizilagunek lortu egin dute egin beharrekoaren gaineko adostasuna, eta, esandako moduan, asteon hasi dira hori gauzatzen. Izan ere, Kontzezinoko tunelak, nahiz eta pasabide publikoa izan, izaera pribatua dauka; hau da, hango etxeetako bizilagunen ardura da.

## oharrak

BERDINTASUNA

**> Ekin Emakumeen batzarra**

Ekin Emakumeak elkarteak batzarra antolatu du, oro har elkartean parte hartu gura dutenei begira. Hitzordua da maiatzaren 18an, 18:30ean.

ABAROA

**> Donostiara irteera**

Maiatzaren 27an Donostia ingurura irteera egingo dute Abaroakoek. Donibane Lohizune bisitatuko dute, eta bueltan geratuko dira Donostian. Izena eman behar da maiatzaren 11n, 10:30ean. 24 euro da prezioa. Bi autobus aterako dira.

KINTOAK

**> 1937an jaiotakoen eguna**

58ko kintoendako ospakizun eguna antolatu dute maiatzaren 23rako. Meza, txikiteoa eta bazkaria (Hilarionen) egingo dituzte. Izena eman behar da maiatzaren 17a baino lehen, 20 euro ordainduta. Izena emateko: 943 79 10 57 edo 943 79 66 11 (Jose Riviere).

**Eñaut Iraeta** > Merkataritza Laguntza Teknikorako Kabineteko teknikaria

# "Hipermerkatuen moda atzera botatzen hasita dira Europan"

**UBANE MADERA**> ARRASATE

**Jaurlaritzako dirulaguntza baliatuz, urte hasieratik Arrasateko merkataritzak badu etorkizunaz arduratuko den langilea: Eñaut Iraeta, orain arte Debagoieneko merkataritza kontuez arduratu dena. Ardura aldaketak Arrasaterako zer ekarriko duen galdetu diogu.**



Eñaut Iraeta, Nafarroa etorbidean duen bulegoan. UBANE MADERA

**Zein izango da zure egitekoa?**

Ibai Arte elkarteak berak antolatzen dituen ekimenak antolatzen lagundu; saiatu Udal, Jaurlaritza eta halakoekin harremanak sendotzen, dirulaguntzak eskatzen, informazioa batzen…

**Ibai Arteren hainbat ekimen abiarazita daude; zelan doaz?**

Opari-txekeak martxan daude: txartelean batutako 200 punturen truke 10 euroko opari txekeak. Aurreko zapatuan bukatu zen txartela erabiltzeagatik afarien zozketa. Eta astelehenean hasi da, berriz, zinema sarreren zozketa: 150 zinema sarrera bikoitz zozketatuko dituzte Amaia antzokirako. Aurrerago, bidaiak zozkatuko ditugu eta opari katalogoa ahalik eta lasterren aterako dugu. Eguenetako ostalaritza ekimena ere Ibai Artek bultzatutakoa da, baita *Arrasate bizirik* aldizkaria ere, eta maiatzaren 20an Merkataritza eta Segurtasuna jardunaldiak izango dira, gehitu diren lapurreten aurrean hainbat gomendio emateko. Irailean, berriz, atera behar ditugu telazko poltsak, plastikozkoengatik ordezkatzeko, Merkataritza Berdea astean.

**Orokorrean, zein da Arrasateko merkataritzaren egoera?**

Ez da oso ona, baina ezta oso txarra ere. Lanean segitzeko moduan daude, eta horretan dabiltza; irabazteko baino gehiago, bezeroak, lanpostuak eta salmentak ez galtzeko. Batez ere, saihesteko jendea kanpora joatea. Jendea Arrasaten gera dadin eta herriari bizitasuna emateko lanean dabiltza. Ez nuke esango Gasteizko merkataritzaren egoera Arrasatekoarena baino hobea denik.

**Igarri da AP-1en eragina? Kezkatuta daude dendariak?**

Itxaron egin behar da AP-1en eragina ikusteko, batez ere bidesaria kobratzen hasten direnean. Dena den, astelehenean atera ziren datu batzuk esaten hipermerkatuek historiako jaitsierarik handiena izan dutela salmentetan, eta Europan moda hori atzera bota eta supermerkatu eta denda txikietara bueltatzen dabiltzala.

**"Merkataritza eta Segurtasuna jardunaldiak egingo ditugu maiatzean"**

**"Ez dut uste Gasteizko merkataritzaren egoera Arrasatekoarena baino hobea denik"**

**Arrasaten izan zen merkataritzagunea zabaltzeko oihartzun handia; zelan dago hori?**

Proiektuak ez doaz aurrera. Horren partez, aukera da gune irekia egitea: gune itxietan dauden gauza berak, baina etxe ondoan, abantailekin, kalitate eta hurbiltasunarekin; hau da, kalean.

**Denda txikiek badute etorkizunik, zure ikuspuntutik?**

Bai. Krisia aukera izan daiteke. Adibidez, merkataritzagune handietara joateko, autoa behar da, gasolina, autobidea ordaindu… Baliteke irteerak murriztu eta jendea herrian geratzen hastea, herrian erosketak eta aisialdia egiten hastea. Gainera, herria bizirik mantentzeko asmo sendoa dute denda txikiek, euren ekimenek erakusten duten moduan.




BEDONABE HAURRESKOLA

Matrikulazio epea zabalik

**NOIZ:** Maiatzaren 4tik 15era.
**NON:** Arrasateko Bedoñabe Haurreskolan (Alfonso VIII. 1)
**NORENTZAT:** 2008 eta 2009 urteetan jaiotakoentzat.
**MATRIKULATZEKO ORDUTEGIA:** 13:15-14:15
15:30-17:00

**Harremanetarako zenbakia:**
943 79 76 86

Haurreskolak



Kale animazioak aho bete hortz utzi ohi ditu ikusleak; aurten ere ez da animaziorik faltako. GOIENKARIA

**AZOKA** > ANTZINAKO ARRASATE

# Maiatzaren 30ean eta 31n, Erdi Aroko Arrasate

### Azken xehetasunak hurrengo tokiko batzarrean zehaztuko dira; berritasunen artean, artilea nola lantzen den bertatik bertara ikusteko aukera

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Erdi Aroko azoka izenarekin hasieran eta Antzinako Arrasate moduan egun, Arrasatek maiatzaren 30ean eta 31n dauka aurten Erdi Aroarekin hitzordua. Herriko alde zaharra garai hartaz jantziko da aste bukaeran zehar, urtero arrakastatsua izaten den ekimenean.

Oraindik ez dira xehetasun guztiak lotu. Udaleko Kultura Sailak jakinarazi duenez, datorren asteleheneko –hilak 12– tokiko batzarrean zehaztuko dira oraindik zehazteke dauden ekitaldi eta bestelakoak.

**NAPARBIDEAK BIDELAGUN**

Azken urteotan Arrasateko Udalak Naparbideak kooperatiba nafarrarekin batera antolatu du Antzinako Arrasate azoka. Aurten ere batera egingo dute lan aste bukaera berezi horretan, dena ondo irten dadin.

**HERRIKO PARTE-HARTZEAK, GORA**

Herriko alde zaharra Erdi Aroan girotzeak arrakasta izan zuen hasieratik arrasatearrengan. Hala ere, akats garrantzitsu bat izan zuen ekimenak: Arrasaterekiko eta Euskal Herriarekiko lotura falta, hain zuzen. Hala, Udala akatsa konpontzen saiatu da azken urteotan. Eta helburua bete egin dute, neurri handi baten, behintzat. Izan ere, aurten, adibidez, inoiz baino herriko elkarte gehiagok hartuko dute parte.

Udaleko Kultura Sailaren arabera, iaz dantza eta txistulari taldeek ez zuten parte hartu, "denbora faltagatik". Aurten, baina, biek hartuko dute esku. Horiez gain, Portaloia elkartea, Doke taldea eta trikiti taldea ere animatu dira.

**IAZ BESTE SALTOKI**

Saltokiei dagokienez, iazko kopurua zehaztu du Kultura Sailak; hau da, 60 stand inguru guztira. Eta postuotan denetarik ikusi, erosi eta dastatzeko aukera izango da: txokolateak, eztiak, gaztak, bitxiak eta zilarrarekin, narruarekin eta bestelako materialekin egindako eskulanak, besteak beste. Eta aurten ere saltzaile gehienak Arrasate eta Euskal Herrikoak izango dira.

**ARTILEAREN PRESENTZIA AURTEN**

Berritasunik ere ez da faltako: Udaleko Kultura Sailak aurreratu duenez, artileak presentzia berezia izango du. Hau da, artilea nola lantzen duten bertatik bertara ikusteko aukera izango da. Lan horretan adituak diren moztaileek jardungo dute. Eta noski, artilezko produktuak ere erosi ahalko dira.

**OSPAKIZUNAK** > ERRETIRATUEN EGUNA

# Erretiratuen Eguna, parte hartzearen adibide garbia

### Maiatzaren 30ean ospatuko da; Musakolako bazkarian 1.000 lagun inguru batzea espero da

**J.B.** > ARRASATE

SUDC elkarteak eroaten du Erretiratuen Eguneko antolakuntza lan handien. Hala ere, elkarteko presidente Juan Luis Arkauzek dioenez, "herri osoak hartzen du parte egun horretan". Izan ere, zuzenean edo zeharka, herriko hamaika talde, dendari eta tabernarik euren laguntza ematen dute herriko Erretiratuen Egunean dena ondo irten dadin.

Erretiratuen Eguneko ekitaldi nagusia Musakolako kiroldegiko bazkaria da, 1.000 erretiratu batzen ditu-eta. Gonbidapenak eskuratzeko azken eguna maiatzaren 26a izango da, eta edozein erretiratu-etxetan eskuratu ahalko dira. Bazkariaren aurretik meza izango da San Juan elizan eta gero autobus bat egongo da erretiratuak kiroldegira eroateko. Bazkariaren ostean, guztiek jasoko dute merezitako oparitxoa.

**EGUN BEREAN, MUS TXAPELKETA**

SUDCek ez du atsedenik hartuko egun horretan, egun berean ospatuko baita urtero antolatzen duen elkarteen arteko mus txapelketa. Izena emateko elkarte bakoitzeko bikoteak 16:00 aldera agertu behar du Txalaparta elkartean. Gero, afaria egingo dute bikote guztiek.



Ohiko Mus txapelketa Txalaparta elkartean egingo da aurten ere. SUDC

**GAZTE BULEGOA** > IKASTAROAK

# Sukaldaritza, flamenkoa eta argazkilaritza maiatzean

**J.B.** > ARRASATE

Arrasateko Gazteria Sailak eta Gazte Bulegoak hiru ikastaro antolatu dituzte maiatzerako.

**ASTERO, MAIATZA AMAITU ARTE**

Ikastaro guztiak datorren astean hasiko dira, 18:00etatik 20:00etara. Munduko sukaldaritza ikastaroa eguaztenero egingo da Mankomunitatean, Meritxell Estanyren eskutik. Flamenko ikastaroa Askoa Etxebarrietak emango du eguenero, Kulturaten. Eta, azkenik, argazkilaritza ikastaroa astelehenero izango da, Kulturaten. Ibai Bengoak emango ditu azalpenak. Prezioa 20 euro da; ikasle eta langabeendako, 12 euro.

PILDAIN JATETXEA
Berriro ere zabalik!
Eguneko menuak • Karta
Udala auzoa • Arrasate
Tel.: 943 79 11 65
943 77 18 67



MUSIKA > KONTZERTUA

# Londresko Chrome Hoof taldea igoko da gaur gaztetxeko agertokira

Gaueko hamarretan hasiko den kontzertu horretarako sarrerak herriko Irati, Basati, Ekaitz eta Kajoi tabernetan salduko dituzte, 5 eurotan


Londresko Chrome Hoof taldeko kideek kapa eta txano distiratsua erabiltzen dituzte kontzertuan. GOIENKARIA

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Musikazaleek hiru gune izango dituzte egunotan aukeran. Gaur, egubakoitza, esaterako, musika berritzailea egiten duen Chrome Hoof talde britainiarrak kontzertua eskainiko du gaztetxean. Emanaldia 22:00etan hasiko da eta horretarako sarrerak salgai daude Irati, Basati, Ekaitz eta Kajoi tabernetan, 5 euroren truke. Gaztemaniak! egitarauaren barruan gaztetxeak, Diputazioak eta Udalak antolatutako kontzertua da Londresko taldearena.

Leo eta Milo anaiek zuzenduta, Chrome Hoof bikote moduan sortu zen. Bateria, baxua, lau pistako grabagailua, ordenagailua eta sintetizadorea zutela, zuzeneko emanaldietan musika progresiboaren, doom musikaren eta disko musikaren arteko nahasketa pentsaezina egiten hasi ziren. Taldeko kideak kapa eta kaputxa distiratsuz jantzita agertzen dira, diskotekako bola erraldoia *atrezzo* moduan dutela.

Duda barik, gaur egungo zuzeneko erakargarrienetakoa egiten dute; *performance* espirituaren, disko musika onaren, glam soinu benetakoaren eta 90eko hamarkadako *raver* espirituaren arteko nahasketa, dena dance eta elektronika kulturan oinarrituta.

### 3.60 ARETOAN ETA GURE LEKUN

Baina, esan bezala, gaztetxekoa ez da kontzertu bakarra izango, 3.60 aretoan eta Gure Leku tabernan ere aurreikusita daude-eta emanaldiak. Gaur, egubakoitza, 22:30ean, Norman, Foxy Boxxi eta The Shaggin Wagon taldeak 3.60 aretoko agertokian izango dira. Hitzordua 22:30erako egina dago. Bihar, berriz, La Txusma, Dirty Shadow eta Mendeko Itxua taldeek hartuko dute lekukoa ordu berean.

Gure Leku tabernan, bestalde, DJ festa egingo dute domeka goizaldean. Bilboko Gonzalo Morbidek musika jarriko du, 01:00etan hasita. Domeka arratsaldean, azkenik, herriko Gosemari & Marigose taldearen kontzertua egongo da toki berean. Emanaldia 20:00etan hasiko da. Ikusten denez, zuzeneko musikarik ez da faltako egunotan herrian.

CORAZON DE ENCINA > ASTE KULTURALA

# Aste kulturala azken txanpan sartuko da

Gastronomiarekin lotutako ekimenak eta musika emanaldiak nagusituko dira datozen egunotan

M.B. > ARRASATE

Arrasateko Corazon de Encina kultura elkartekoek XIX. aste kulturala ospatzen dihardute asteon. Gaurtik domekara bitartean, askotariko ekimenak antolatu dituzte. Gaur, egubakoitza, 19:00etan hasiko dira, Dragoi gimnasia taldearen erakustaldiarekin. Iluntzean, 21:00etan, Francisco Davilak saiheski jana gertatuko du eta jarraian, gitarra eta flamenko ikuskizuna eskainiko dute Isabel Fernandez kantariak eta El Rubio gitarra jotzaileak. Eguna Alex Barredo umoristarekin amaituko da.

Bihar, zapatua, ekitaldiz josita dator Extremadurako elkarteak antolatutako aste kulturala. 13:00etan, elkarteko presidentearen agurra eta jarraian, lurraldeko ardoarekin brindisa eta Extremadurako produktuen dastatzea izango da.

Hori, eguerdiari dagokionez. Arratsaldean, berriz, 18:00etan, Las Chambras taldeak musika ikuskizuna eskainiko du eta ondoren, Donostiako Extremadurako elkarte kulturaleko Nuestra Señora de Guadalupe izango da agertokira igoko dena.

### ZAPATUAN, AFARIA

Biharko musika emanaldiak ez dira hor amaituko. 19:30ean, Arrasateko Al-Andalus elkarteko koro rozieroaren emanaldia hasiko da eta jarraian, *play-back* lehiaketa egongo da. Eguna amaitu aurretik, Corazon de Encinako bazkideek gertatutako afari ederra eta gero, goizaldera arte, Rex izeneko taldearekin dantzaldia izango da.

### DOMEKAN, LEHIAKETAK

Aurtengo aste kulturalari etzi, domeka, emango diote amaiera. 12:30ean, Extremaduraren gaineko bideoek eta musikak izango dute tokia eta jarraian, patata tortilla zein Extremadurako erara egindako gazpatxo lehiaketaren txanda izango da. Jarraian, gertatutako tortillak eta gazpatxoa dastatu ahal izango dituzte elkartearen gunera joaten direnek.

Arratsaldean, mahai-jokoak eta txiste lehiaketa egongo dira. 18:45ean, azkenik, itxiera ekitaldia hasiko da; horretan, egunotan izandako joko eta lehiaketako sari banaketa egingo dute.

> ZINEMA

### 'Los abrazos rotos' eta 'El luchador', egunotako filmak

Astero moduan, hainbat film eskainiko dituzte datozen egunotan Amaia Udal Antzokian. Egubakoitzean eta domekan, Pedro Almodovar zuzendariaren *Los abrazos rotos* drama ikusteko aukera egongo da, 22:00etan eta 19:30ean, hurrenez hurren.

Domekan, gainera, haurrendako emanaldia izango da, 17:00etan. *Superpoli de centro comercial* eskainiko dute. Eta eguenean, hilak 14, Darren Aronofskyren *El luchador* filmaren txanda izango da, eguneko zinemaren barruan. 20:30ean hasiko da hori.



**SASKIBALOIA** > JAITSIERA FASEA

# Lehenengo mailan jarraitu edo ez, hori izango du bihar MUk jokoan

MUko mutilek bihar (18:00) jokatuko dute etxeko azken partidua; azkena eta erabakigarriena

Javi Zurbanoren mutilek sei puntuko aldeagatik irabazi behar diote UPNA talde nafarrari

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Mikeldi, UPNA eta Mondragon Unibertsitatea, neurri handian hiru talde horien artean erabakiko da nork galduko duen kategoria, atzerago dauden sailkatuek dagoeneko gutxi dute-eta egiteko. Jaitsiera fasean azken lau sailkatuak lurraldeko txapelketara jaitsiko dira, eta bi jardunaldi geratzen dira hori erabakitzeko.

Hala, Mondragon Unibertsitateak ez du erronka makala, batez ere oraingo asteburuan, sailkapenean puntu bat gehiago duen Nafarroako UPNA taldea izango da-eta Iturripen bihar (18:00). Lehenengo mailan geratzeko derrigorrez mendean hartu beharreko kontrarioa da biharkoa: "Halaxe da, Bidegintzaren kontra ez dugu-eta zereginik; izan ere, ligan euren kontra galdu egin genuen, eta kontuan hartzen da hori".

**SEI PUNTUKO ALDEAGATIK**

UPNA taldearen kontra ere galdu egin zuen MUk martxo amaieran jokatutako partidua (79-74), eta, sailkapenean aurre hartzeko, biharko partidua irabaztea ez da nahikoa, sei puntuko aldea behar dute-eta: "Nahiko talde antzerakoak gara. Guk daukagu ligako talde gazteena, 20 urteko batez bestekoarekin, baina eurek ere hainbat jokalari gazte dituzte. Hala, defentsan lan ona egiten badugu UPNA mendean hartzeko gauza gara".

**HARMAILETAKO BULTZADA**

Klubak ibarreko saskibaloizale guztiak animatu gura ditu biharko partidurako: "Orain da gazteekin egoteko momentua; UPNAk igar dezala harmailetatik partidua galduta daukala".


MU erasoan eta Bide Bide defentsan, Iturripen jokatutako partiduan. J.A.

ANALISIA

### MUrendako aspaldiko urte gogorrena, jokalari gazteak zailtzeko balioko duena

Jaitsiera faseko azken txanpara bizirik iritsi da MU, eta, liga erregularrean zelan ibili ziren ikusita, ez da gutxi. Jaitsiera fasean erakutsi dute ez zeukatela amore emateko asmorik, eta kategoria galtzekotan ere garesti saldu behar zutela postu hori (zazpi partiduetatik bost irabazi dituzte). Baina oraindik ez dago ezer galduta, ligari bi partidu geratzen zaizkioeta, eta bihar UPNA mendean hartzeko gauza dira, baita bost puntu baino gehiagoko aldea eskuratzeko ere.

Urte gogorra izan dute MUko mutilek. Mutilek baino gehiago gazteek, denboraldi hasieran klubak egindako apustu sendoak ekarri zuen-eta hainbat jokalari beteranok taldea uztea eta taldearen batez besteko adina izugarri jaistea. Hor dago etorkizuna, baina aurten gogotik ordaindu dute klubeko arduradunek euren alde hartutako erabakia. Talde indartsuak izan dituzte aurrean, joko gogorra, zenbakiak kontran eta Iturripeko harmailetako eserleku asko hutsik. Baina, duda barik, urte honek zaildu egingo ditu. Bi partidu geratzen dira; gogor egin bihar.

### Jaitsiera faseko sailkapena

| | P | J |
|---|---|---|
| 1. Urdaneta | 27 | 16 |
| 2. Bide Bide Ibiza | 26 | 16 |
| 3. Tabirako Baque | 26 | 16 |
| 4. Bidegintza | 26 | 16 |
| 5. UPNA | 25 | 16 |
| 6. Mikeldi | 25 | 16 |
| 7. MU | 24 | 16 |
| 8. Suelbat La Peña | 23 | 16 |
| 9. Goierri-Verkol | 19 | 16 |
| 10. Getxo ST | 19 | 16 |

**ZALDIBAR**

## Kopako finalerdiak jokatuko dituzte bihar

**X.U.** > HERRIA

Oraingo asteburuan bi norgehiagoka baino ez dituzte jokatuko Zaldibarren. Hala, ligako bigarren faseak beste astebetez itxaron beharko du, bihar kopako finalerdiak egongo dira-eta jokoan.

Bihar, zapatua, 11:00etan jokatuko dute Abokajarrok eta Ekaitz Tabernak lehen finalerdia, eta 12:00etan Paulaner Driblingek eta Dublin Irish Pubek.

> BESAIDE

### Maiatzeko hitzorduak eta beteranoen martxa

Besaidek gertu ditu maiatzeko hitzorduak. Batetik, domekan Aralar aldera egingo dute mendi irteera, eta maiatzaren 16ko eta 17ko asteburuan Posets-era joango dira, mendi eskia egitera (izenematea maiatzaren 11n eta 12an, 19:30etik 20:30era). Maiatzaren 23an, berriz, Legutio aldera joango dira mendiko bizikletan ibiltzera (izenematea maiatzak 19an eta 20an). Bestalde, beteranoek aurten Urduña aldean egingo dute beteranoen martxa, ekainaren 6an. Eta, maiatzaren 30a baino lehen eman behar da izena.




PEUGEOT
ESPEZIALISTA
AUTOLAN
KARROZERIA
Uztailerarte 150 eurotik gorako edozein txapa edo margo konponketagatik, autoa barrutik garbituko dizugu.
Jesús Fernandez
Zalduspe 2 (ospitale ondoan)
Arrasate - Tel. - Faxa: 943 79 11 01
15 urte zure zerbitzura
Zure PEUGEOT autoari buruzko aholkuak emateko prest gaude.

mingainari tiraka

**Aitor Etxabe** > Txondorra erretegiko jabea

# "Bereziki enpresei zuzendutako menuak ditugu, kartako produktuz osatutakoak"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

**Aramaioko Iturrieta utzi eta Arrasaten Txondorra zabaldu berri du Aitor Etxabe arrasatearrak. Erretegia da, baina baita sagardotegia ere. Udalatxi begira, herrian bertan dago, Bizkaia etorbidean. Autoa hartu barik txotx egiteko aukera paregabea.**



**Arrasate ez da Astigarraga, baina sagardorik ez da falta.**

Asmoa horixe da. Urtarrila eta otsaila oso tristeak izaten dira, eta, kupelak jarrita, negua zertxobait alaitzea gura dugu. Txondorra erretegia da, baina kupel batzuk jarri ditugu: bi kupel sagardo eta kupel bat txakolin.

**Txotx egin ondoren, autoa hartu beharrik ez dago hemen...**

Leku oso polita da, aukera politak eskaintzen dituena. Kaletik lau minutura zaude, baina Udalan bertan zauden sentsazioa ematen du. Behean autoa utzi eta igogailuan bertaraino igo daiteke, eta baita bidegorritik oinez ere.

**Aramaiotik *hirira* etortzea aldaketa handia izan da?**

Inguruari begiratuta, hau ingurune polita da. Hala ere, ez dauka zerikusirik Aramaiorekin; hura *Suitza txikia* da.

**Kartako produktuz osatutako menuak ematen dituzue: haragia, arraina... dena parrillan erreta.**

Bai, hala da. Bereziki enpresei zuzendutako menuak dira: kartako produktuetan oinarritutako menuak, 30 eurotan. Erreboiloa (rodaballoa), bisigua, txuletak, legatz-kokotsak... Gainera, hasierakoak eta bigarren platerak daude aukeran. Ardo ondua (kriantza) edo ardo zuria ere aukeran, eta kafea barne.

**Eta sagardozaleentzat, sagardotegi menua.**

Sagardotegi menua enkarguz egiten dugu. 35 eurotan dago: lehenengo, bakailao tortilla, bakailaoa piperradan eta kiloko txuleta, bi lagunendako. Postrea aukeran, jende guztia ez delako gaztazalea. Edatekoa ere aukeran: sagardoa, txakolina eta ardoa.

**Gaur egun, ardoa modan dagoela esan daiteke. Zein da gehien saltzen dena?**

Jendea klasikoa da. Errioxako ardoa da gehien saltzen dena, eta baita Dueroko Erriberakoa ere. Eta zuria, batez ere alemana.

**Ze ardo duzu zuk gustukoen?**

Momentuan momentuaren arabera. Jaki bakoitzak ardo bat eskatzen du. Arrainarekin zuria, duda barik. Gainera, gero eta gorago doan ardoa da zuria. Haragiarekin, beltz sendo bat; adibidez, Dueroko Erriberako bat. Eta, sagardotegi menurako, sagardoa.

**Antzinako kutsua bai, baina teknologia berriek badute lekurik?**

Erretegiak antzinako kutsua izan arren, teknologia berriak eskaintzen ditu Txondorrak. Wi-fi gunea dago bertan. Aukera ematen du ordenagailuarekin etortzeko.

**Izena aukeratzerakoan, zer izan duzu kontuan?**

Txondorrak badauka zerikusia ikatzarekin, eta erretegian ikatza erabiltzen dugu. Izen polita da, eta, gainera, badauka zerikusia erretegiarekin.

bere ustez



Oihan Zubizarreta

## Haur baten begi urdinei begira

Telefono dei bat. *Natale askatuko dute. Noiz?*, galdetzen dut. *Orain*. Telefonoaren bestaldetik. Sinetsi ezinekoa gertatu da. Sinetsi ezingo nukeen bezala *Jon askatu dute* entzutea, edo Irantzu, edo Gorka, edo Kristina, edo Jurdan. Eta lasaitasuna sentitu dut, erdizka. Eta zoriontasun pixka bat, haur baten tamainakoa behintzat.

Herritarrak une batez pozik, elkar besarkatuz. Eta urduritasunetik hitzak. Eta poztasunetik algarak. *Ongi etorri*. Hitzak. Ikurriñak. *Borrokak merezi duelako*. Isiltasuna eta txaloak. Eta tabernara joan da jendetza. Kaletik lapurturiko argazkiek iltzaturik jarraitzen baitute paretetan eta jendetzaren bihotzetan.

**"Argazkiaren parera altxa zaituzte; amatxoren argazkia hartu duzu beso artean estu"**

Eta orduan ikusi zaitut, Aetz. Eta argazkiaren parera altxa zaituzte. Amatxoren argazkia hartu duzu beso artean estu. Eta amatxoren magalera itzuli zara. Eta segituan konturatu naiz, konturatu zarela. Begi urdinak paretan iltzatu zaizkizu. Aitatxoren argazkia. Eta haur batek ulertzen ez dituen galderak ikusi ditut. Eta erantzunek airean segitzen dute agian, haur baten eskuetatik urrun, baina bihotzetik gertu. Baina amatxoren begiekin topo egin dut gero, garaiotan inor gutxik ulertzen dituen hitzekin... *borrokak merezi duelako*.


UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

SERRERIA ERRASTI S.L.
EGUR BILTEGIA
Taula aglomeratuak
D.M. melaminak
Mozte zerbitzua
Aurremarkoak eta aholtzak
Egurrezko enbalajeak
Tel. 943 79 01 61 - 651 70 79 96
Araba ibilbidea, 7
ARETXABALETA

Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua

Gubi
ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
Tel.: 943 79 12 74

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak
Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

ad Ibabe
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

**HIRIGINTZA** > BERRURBANIZAZIO LANAK

# Bideberri-Zubieta guneko lanak ibaian hasi dituzte

Bideberriko errepidea bi noranzko bihurtuko dute eta Zubietarako bidegurutze egokia egingo; lehenengo lana izango da ibaia zuzenago jartzea



RUBEN MONTERO

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Dagoeneko hasi dira Bideberri-Zubieta eremua berrurbanizatzeko lanak. Eguzki SL enpresak dihardu lanok egiten, Sestra enpresak egindako proiektuan oinarrituta. Proiektuak kontuan hartzen duen eremua da Bideberri-Zubieta bidegurutzean hasi eta Irizar kalearen eta Santa Marina zubiaren hasieraraino.

Lanon helburu nagusia da Bideberri pasealekua ibilgailuendako bi noranzko bihurtzea, erdiguneko zirkulazioa arintzeko. Horrekin batera, beste hobekuntza batzuk ere ekarriko ditu: Bideberri eta Zubieta kalearen arteko bidegurutzea hobetzea eta inguruan dagoen espaloi gabeziari irtenbidea ematea.

Lanok egiteko zortzi hil inguru behar izango dira, eta, aurrekontuari dagokionez, 906.900 eurotan esleitu ditu Udalak.

**DEBA IBAIA, ZUZENAGO**

Deba ibaian hasi dituzte lanak. Izan ere, espazioa irabazi nahi dute eta horretarako, ibaia zuzenagoa egingo dute. Ibaia zuzenagoa egiteko, bidegurutze aldera duen bihurgunearen erradioa txikitu egingo dute. Horrekin batera, ibaiaren ertz horretako eustorma ere berria egingo dute, gaur egungo harlagaitzezkoari jarraipena emanez.

Bestetik, ibaiaren ertz horretan uraren mailan egongo den bi metro zabaleko bidetxoa egingo dute eustormaren luzera guztian. Bidetxo hori egingo dute, Jaurlaritzako Ur Agentziak hala araututa duelako.

Ibaiaren beste aldeari dagokionez, Usondo parkearen ertzari Krainer motako –lurrez eta harriz betetzen diren egurrezko kutxa antzekoak– tramaketa jarriko diote, eta parkeari jarraipena emango dion ezponda txikia ere egingo dute. Parkea ahalik eta gutxien ukitzea izan da helburua.

**BIDEBERRI, BI NORANZKOA**

Bi noranzkoa izango den errepideak 155 metroko luzera izango du –bidegurutzean hasi eta Irizar kaleraino– eta zazpi metroko zabalera. Eskuineko espaloiak –Eroski aurrekoak– hiru metroko zabalera izango du eta ezkerrekoak, bi. Horrekin batera, albo banatan aparkalekuak egongo dira: bost eskuineko aldean eta 21 ezkerrekoan. Gaur egun 80 autorendako ordenatutako aparkalekua dago, nahiz eta 120 bat autok aparkatzen duen.

**BIDEGURUTZEA 'T' FORMAN**

Zubieta eta Bideberri arteko bidegurutzeari dagokionez, *T* forman aurreikusi dute, eta erdian zoruan margotutako irlatxo antzekoa izango du, zirkulazioa antolatzeko, seinaleen laguntzarekin. Errepidea zuzenagoa ere egingo dute Bideberriko azken muturrean. Oinezkoendako espaloia egongo da Zubieta kaleko 5. zenbakiraino.

Bideberriko zuhaiztiari dagokionez, mantendu egingo dute, eta ingurunea erabat txukundu. Argiteria ere erabat berrituko dute eta *La Churre* kiosko berria jarriko dute, lekuz aldatuta.

## Madrildik iritsitako diruarekin egingo diren beste bi proiektuak ere abian dira

Tokiko Inbertsiorako Estatu Fondotik iritsitako 2.623.497 euroekin hiru proiektu gauzatuko ditu Udalak: bata, Bideberri-Zubieta eremua berrurbanizatzeko proiektua da –906.900 euro inguru–; bestea, Boluko auzotarren irisgarritasuna bermatzeko igogailuak jartzeko proiektua –1.200.000 euro inguru–; eta hirugarrena, Domingo Irala kalea berrurbanitzen bukatzea –387.442 euro inguru.

Hain justu ere, eta duela bi aste iragarri bezala, astelehenean hasi ziren Domingo Irala kaleko lanak. Helburuak dira, batetik, Usoa eta Eusebio tabernetako terraza Domingo Irala kaleko ordenazio orokorrean integratzea eta, bestetik, Irala kalea eta San Martin Agirre plazaren arteko oinezkoendako lotura hobetzea.

Bolurako igogailuei dagokienez, lau igogailu jarriko dituzte eta lanei ekiteko garabia asteon jartzekotan ziren. Helburu nagusia da auzora iristeko dagoen aldapa maldatsua kontuan izanda auzotarren irisgarritasuna bermatzea.

**bere ustez**



Ainhoa Agirreazaldegi

## Emetasunari leku egitearen garrantzia

Neure emakumetasunaz kontzientzia izatea da azken urteotan barneoreka eman didan ekarpenik handiena. Inoren aurrean gorde ezin dugun tasuna da emakume edo gizon izatearen ezaugarria. Baina gauzak nola diren, hainbat kontzientzia piztuta ditugun herri honetan, ez gaituzte genero-kontzientzian hezi. Are gehiago, feminismo kontzeptuak urte askoan kalanbrea eman izan du, eta horren ondorioz, orain 30 urte feminismoak egiten zituen gogoeta berberak egiten ditugu oraindik gune pribatu eta publikoetan.

**"Gai gara Euskal Herriaz hiru orduz hitz egiteko, baina ez emakume izateaz"**

Gai gara Euskal Herriaz hiru orduz hitz egiteko, baina ez dugu ezagutza eta ziurtasun berberaz hitz egiten emakume izateaz –are gutxiago gizon izateaz–. Norbere izaeraren, mundu-ikuskeraren eta jokatzeko moduen erantzun askoren gakoa, ordea, bertan dago. Are gehiago, gauzak aldatu nahi badira, urteetan ezarri zaizkigun genero-rolak detektatzea ezinbestekoa da.

Herria etxetik eraikitzen da, eta etxerik gertukoena, norbere burua da. Ezin digu geure buruak kalanbrerik eman. Feminismoari leku egin behar diogu, kalean, erakundeetan, lagunartean, familian, norbere baitan... Kalanbrerik gabe. Kalanbrerik gabe eta radarra piztuta.



**JENDARTEA** > ELKARTASUNA

# Udan neska-mutiko sahararrak etxean hartzeko dei egin dute

Bubisher elkarteak abiarazi du kanpaina, eta harrera horien gaineko azalpenak emateko batzarra egingo du hilaren 13an


Irudian, bi ume Tindufeko kanpaleku baten. GOIENKARIA

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Saharaen aldeko herriko Bubisher elkarteak ume sahararrak udan etxean hartzeko kanpaina abiarazi du. Hori horrela, interesa izan dezaketen guztiendako batzar informatiboa deitu dute maiatzaren 13rako, eguaztena. Kultura etxean izango da, 19:00etan.

**BESARKADA SOLIDARIOA**

Elkartasun proiektu horren helburua da haurrei beste errealitate bat ezagutzeko aukera ematea. Hori horrela, oporrok izan nahi dute, Bubisherko kideen esanetan, "neska-mutikoendako arnas bidea, errefuxiatuen kanpalekuetan bizi dituzten baldintza gogorrak kontuan izanda, eta, horrekin batera, bi herrien arteko besarkada solidarioa".

**ETXEAN, BI HILABETEZ**

Harrera kanpaina bi hilabetekoa izango da aurten ere, uztailaren 10etik irailaren 10era, gutxi gorabehera; modu horretan, neska-mutikoei eman nahi zaie aukera udako oporrak Aljeriako Tindufeko errefuxiatuen kanpalekuetatik kanpo pasatzeko.

Umeok 7 eta 12 urte bitartekoak dira; Tindufeko errefuxiatuen kanpalekuetan jaiotakoak dira, eta bizi ere, han bizi dira, familiarekin. Erbestealdi luzea dihardute han, oso baldintza gogorretan: janari, osasun eta hezkuntza gabezia handiak dituzte, eta udan, 50 graduko tenperatura jasaten dute eta zero azpitik, neguan. Gainera, nazioarteko laguntza, oro har, gero eta eskasagoa dela aurreratu dute Bubisherreko kideek eta horrek are zailagoa egiten duela erbestealdia.

## oharrak

BRIGADAK 09

**> Komite Internazionalistekin brigadetara joateko deia**

Brasil, Kuba, Venezuela, Palestina eta Kolonbiara joango dira KIko kideak aurtengo udan. Izenematea da maiatzaren 19ra arte, *www.herriak.org* webgunean. Brigadon aurkezpena astelehenean, hilak 11, egingo dute, 19:30ean, kultura etxean.

EAJ

**> Europako Parlamenturako posta bidezko botoa**

Ekainaren 7an postaz bozkatu nahi dutenendako bulegoa jarri du EAJk Bidekurutzeta kalean –Carmen Garate poltsa denda zegoen lekuan–. 11:00-13:00 eta 18:30-20:30 ordutegian egongo da zabalik. Eskaerak egiteko azken eguna da maiatzaren 28a. Argibideetarako: 943 76 47 00.

AISIALDIA

**> Jolasleku ibiltaria maiatzeko egubakoitzetarako**

Jardun elkarteak jolaskelu ibiltaria antolatu du. Lehen saioa gaur, egubakoitza, izango da, Fraiskozurin, 17:00etan.

KINTADA

**> 1963an jaiotakoek kinto-bazkaria egingo dute**

Maiatzaren 16an egingo dute, Azpeitxin. 13:00etarako egin dute hitzordua, San Martin plazan. Bazkaria 14:30ean izango da.

KINTADA

**> 1970ean jaiotakoek kinto-afaria egingo dute**

Maiatzaren 23an egingo dute, Azpeitxi jatetxean. 19:30erako egin dute hitzordua, Ariznoa tabernan. Izenematea da maiatzaren 20a baino lehen. Horretarako 30 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxan: 3035 0009 12 0091121307.

OSPAKIZUNA

**> Angiozarko Goimendi auzoan San Miguel jaiak ospatuko dituzte**

Domekan ospatuko dituzte San Miguel Monte jaiak. 12:30ean meza izango da eta gero *lunch*-a egingo dute.

KINTADA

**> 1949an jaiotakoek kinto-bazkaria egingo dute**

Maiatzaren 23an izango da, Lasa jatetxean. Izena emateko azken eguna da maiatzaren 19a. Horretarako, deitu 650 85 38 57 (Iñaki) edo 605 72 11 35 (Izaskun) zenbakira.

DEIALDIA

**> Bergara Igeri Elkarteak entrenatzailea behar du**

2009-2010 denboraldirako eta hurrengoetarako behar du igeriketa entrenatzailea. Interesatuok, bidali curriculuma *bergara@igeri.net* helbidera edo Bergarako 224 posta-kutxara idatzi.



JAIAK > ERROMERIAK

# 'Munibe Plazara dantzara', erromeriak egubakoitzero gaurtik

Moiazpi dantza elkartearen erakustaldia eta Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak gaur, 19:00etan

EDU MENDIBIL > BERGARA

Laugarren urtez, erromeria giroa izango da egubakoitzero Munibe plazan. Hiru hitzordu iragarri dituzte antolatzaileek eta lehenbizikoa gaur izango da, 19:00etan hasita. Moiazpi dantza elkartekoen erakustaldia izango da lehenbizi eta jarraian erromeria Ansorregi eta Larrañaga trikitilariekin.

Hurrengo egubakoitzean, ordu eta toki berean, Gazte Alai dantza taldearen eta Laja II.a eta Narbaiza trikitilarien txanda izango da. Azken hitzordua maiatzaren 23rako (zapaturako) deitu dute: erromeria-afaria egongo da egun horretan Muniben, eta Izer, Alabier eta Lutxurdio arduratuko dira giroa alaitzeaz. Afarirako txartelak ohiko tokietan jarriko dituzte salgai.

**ERANTZUN BIKAINA**

Aurreko urteotako arrakastari eta erantzunari eustea da antolatzaileen asmoa. Abarka, Xamatz eta Moises Azpiazu dantza taldeek, Jarduneko Bertso Eskolak eta Bergarako Trikiti Eskolak jardun dute antolaketa lanetan. Herritar guztiei parte hartzeko gonbidapena egin diete.

Abarkak eta Jardunek antolatutako arin-arin eta fandango ikastaroak erantzun ona jaso du. 70 lagun inguruk hartu dute parte aipatutako ikastaroan. Orain, han ikasitakoa praktikan jartzeko ordua iritsi da.



GOIENKARIA

## Aritzeta abesbatzakoak Burgosen

Aritzetako kideak Burgosen izan ziren aurreko asteburuan. Burgosko Abesbatzen Federazioko lehendakariarekin eta Caja Circulorekin izandako hartu-emanen ondorioz, Imanol Urtzelai eta Larraitz Agirreren zuzendaritzapean emanaldia egin zuten zapatuan San Juan Museoan. Euskal jantzi tipikoekin abestu zuten kontzertua, eta abestu bakarrik ez: Bergarako produktuak ere ezagutzera eman zituzten, Bergarako erreileno eta tostoiak eramanda.



*Cavek nije ptica, Gizona ez da txoria* antzezlaneko irudi bat. DEJA BU

ANTZERKIA > DEJA BU TALDEA

# 'Gizona ez da txoria' antzezlana gaur Zabalotegin

Deja Bu taldearen emanaldia 22:30ean izango da eta sarrerak 5 eurotan izango dira salgai

E.M. > BERGARA

*Cavek nije ptica, Gizona ez da txoria* antzezlana ikusteko aukera izango da gaur Zabalotegi aretoan, 22:30ean. *Cavek nije ptica*-k –bosniera– *gizona ez da txoria* esan nahi du. Hain zuzen ere, Deja Bu taldearena desterratutako hegazti errariei buruzko lana da, hegan egin ahal izateko euren erroetara bueltatu behar dutenen istorioa. Leihotik begira pasatzen du gau eta egun Simon zaharrak. Bizitza baserrian eman zuen; orain, ordea, herrira jaitsi behar izan du, etxe umel batera. Gauero ideia batek lapurtzen dio loa Simoni: bere oroimenetako lurraldera itzultzeko ideiak... Sarrerak 5 eurotan salgai izango dira gaur.

MUSIKA ESKOLA > 25. URTEURRENA

# Musika Eskolako Orkestra Mariaren Lagundian eta erakusketa Aroztegin gaur

E.M. > BERGARA

Musika Eskolaren 25. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan, Arrasate Musikaleko Orkestrak eta Bergarako Musika Eskolako Orkestrak emanaldia egingo dute gaur, egubakoitza, Mariaren Lagundiko elizan, 20:00etan.

**ERAKUSKETA AROZTEGIN**

Aurretik, azken 25 urteotako irudiak batzen dituen argazki erakusketa zabalduko dute Aroztegi aretoan, 18:00etan. Erakusketa maiatzaren 17ra arte izango da zabalik, ohiko ordutegian: martitzenetik egubakoitzera, 18:00-20:30; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta domeketan, 12:00-14:00.

**'MISERABLEAK' HONDARRIBIAN**

Bestalde, *Miserableak* musikala eskainiko dute bihar, zapatua, Hondarribiko kiroldegian, 22:30ean. Sarrerak 10 eurotan daude salgai *www.kutxa.net* webgunean.




BITXIEN ERAKUSKETA
Gioia Russo diseinugile italiarraren lanak.
Noiz: Maiatzaren 17an
Ordua: 12:00etatik 19:00etara
Non: Lasa jatetxean
Tel.: 661 21 40 78

MIZPILDI
OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

**PILOTA** > BERGARA HIRIA TXAPELKETA

# Ander Mugurutza bergararra, pilota txapelketatik kanporatuta

Senior mailako partidua galdu zuen martitzenean Yoldi-Cecilio bikotearen kontra

22 urtez azpikoetan Olaetxe-Perosanz bikotea nagusitu zen



Argazkian, Perosanz, Olaetxe, Zabaleta eta Jaunarena martitzeneko partidua hasi aurretik. MIREIA BIKUÑA

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Bergara Hiria pilota txapelketako final-laurdenetako hirugarren jardunaldia jokatu zuten martitzenean. Etxeko pilotaria ikusteko gogoz hurbildu ziren zaleak pilotalekura, baina Ander Mugurutzak ez zuen finalerdietarako txartelik lortu. Yoldiren eta Cecilioren kontra 10-22 galdu zuen Jauregirekin bikote eginez.

Bergararrak lan txukuna egin zuen aurreko koadroetan, baina Jauregik arazoak izan zituen atzekoetan. Yoldi-Cecilio bikoteak menderatu zuen partidua hasieratik, eta bikote sendoa osatzen dutela erakutsi zuten. Uste baino errazago irabazi zuten. "Lehia parekatuagoa izango zela uste genuen. Mugurutzak lan ona egin du, baina irabazleek oso ondo jokatu dute. Tanto batzuetan pilota menderatu arren ez dute asmatu azken kolpean", esan digu bergararren entrenatzaile Reyes Azkotiak. Gainera, Mugurutzaren bikotekide Jauregik min zuen eskuan, eta atzeko koadroetan pilota batzuk galdu zituen.

**22 URTEZ AZPIKOAK**

Senior mailako partiduaren aurretik 22 urtez azpikoen kanporaketa jokatu zuten. Olaetxe-Perosanz bikoteak 22-9 irabazi zuen Jaunarena-Zabaletaren kontra. Lehen aldiz Bergarako txapelketan parte hartzen zuen Olaetxe-Perosanz bikoteak maila ona erakutsi zuen martitzenean, eta iaz finala jokatu zuen Jaunarena hasieratik bukaerara menderatu zuten. Gainera, sakez hamar tanto egin zituzten irabazleek. Horregatik guztiagatik, partidu azkarra jokatu zuten.

**MENDIZABAL, HURRENGO ASTEAN**

Aitor Mendizabal antzuolarrak hurrengo martitzenean jokatuko du final-laurdenetako kanporaketa, Merinorekin bikote eginez. 19:30ean hasiko da jaialdia.

## Finalak ekainaren 1ean jokatuko dituzte

Bergara Hiria pilota txapelketaren final-laurdenetako hurrengo kanporaketa martitzenean jokatu dute, eta irabazleek aste honetako irabazleen kontra jokatuko dituzte bigarren finalerdiak hilaren 26an. Lehen finalerdiak hilaren 19an jokatuko dituzte: 22 urtez azpikoetan Kina-Peñas Epelde-Zubiriren kontra; eta senior mailan Idoate-Keralt Perez-Larrinagaren kontra. Maila bakoitzeko bi bikote onenak finalean elkartuko dira ekainaren 1ean, Bergarako Pazko jaien barruan.

### Labegaraieta

**PARTIDUAK**

| Maiatzak 9, zapatua | Epaileak |
|---|---|
| **16:30** Belengua-Internacional | **Zigalikatis** |
| **17:30** Zigalikatis-Diego Valor | **Internacional** |
| **18:30** Niu Tim-Monte Taberna | **Diego Valor** |
| **19:30** Los Blus-Komando Pip. | **Niu Tim** |

| Maiatzak 10, domeka | Epaileak |
|---|---|
| **09:30** Los Latinos-Errotagain | **Akabaoak** |
| **10:30** Akabaoak-Carboneros | **Errotagain** |
| **11:30** Irubide Tab.-Irish Pub | **Errotagain** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | UD Akabaoak | 72 | 25 |
| **2.** | Carboneros | 64 | 25 |
| **3.** | CM Errota-Gain | 57 | 25 |
| **4.** | Zigalikatis | 50 | 25 |
| **5.** | Los Latinos | 45 | 25 |
| **6.** | Komando Piperrak | 35 | 25 |
| **7.** | Diego Valor | 30 | 25 |
| **8.** | Niut Tim. | 29 | 25 |
| **9.** | Internacional | 29 | 25 |
| **10.** | Los Blus | 28 | 25 |
| **11.** | Irish Pub | 28 | 25 |
| **12.** | Belengua Taberna | 21 | 25 |
| **13.** | Monte Taberna | 11 | 25 |
| **14.** | Irubide Taberna | 10 | 25 |

### Azken jardunaldia eta 'lunch'-a

Labegaraietako txapelketak azken jardunaldia jokatuko du bihar eta etzi. Txapelketa erabakita dagoen arren (Akabaoak da txapeldun), emoziorik ez da faltako domekan. Izan ere, sailkapeneko lehenak eta bigarrenak elkarren kontra jokatuko dute. Domekako sari banaketaren ondoren *lunch*-a egingo dute jokalari guztiendako.

Liga bukatuta, kopa txapelketa hasiko dute hurrengo aste bukaeran.

trinmer telecomunicaciones
tdt televisión digital terrestre
**Bergaran ere badago Lurreko Telebista Digitala!**
Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu, ez itxaron gehiago eta alda zaitez TB digitalera.
**TRINMER 20 urte antenetan**
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne
TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR
Tel.: 943 12 73 50 – 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60
*antenas@trinmer.com* | *www.trinmer.com*

**ANTIA**
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

**GURIA**
*Taberna*
Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

**CAMACHO**
Drogeria
Usaindegia
Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono, 761051
R.S.I. 209374-SS
BERGARA

**BEHEKO TABERNA**
Menestra eta untxia dira gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

*Mujika*
*gozotegia*

Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 **BERGARA**
943 76 10 34

**ARRI**
Industri hornidura
*Latigilloak*
**Telleria 2, BERGARA**
**Tel.:** 943 76 19 04
**Faxa:** 943 76 43 03
**Sakelakoa:** 656 78 64 84

## bergararrak kanpoan

**Amaia Lazpiur** > Fisioterapeuta
Bartzelonan bizi da

# "Gracia auzoan, hiriguneko jendetzatik ihes egin daiteke"

**JASONE ZABALA** > BERGARA

**Zortzi urte daramatza Amaia Lazpiurrek Katalunia aldean bizitzen; ikasketengatik joan zen bertara eta han gelditu zen lanagatik. Gracia auzoan bizi da. Momentuz gustura dago bertan eta ez dauka itzultzeko asmorik.**

Lazpiur 2001ean joan zen Bartzelonara fisioterapia ikastera, eta lana topatu eta bertan gelditu zen. Gracia auzoko etxe txiki batean bizi da bikotekidearekin batera: "Egia esan, gustuko dut auzo hau; hemen, herri bizitza egin daiteke eta Bartzelona erdiguneko jendetzatik ihes egin".

Bertako jendearekin ondo konpontzen dela adierazi digu nahiz eta "berezi samarrak" direla aitortu.


Amaia Lazpiur.

**"Hemen jatetxe asko daude eta janari aldetik aukera asko"**

### HIZKUNTZA ULERTZEA, ERRAZA

Bertako hizkuntza ez ulertzeko ezta hitz egiteko ez dela zaila dio, baina "hizkuntza guztiekin moduan, lotsa galdu behar. Niri kostatu zitzaidan, baina orain bai lagunekin eta baita lanean ere katalanez hitz egiten dut". Klimari dagokionez, ederra dela aitortu digu eta euria gutxitan egiten duela. Janariari dagokionez, bestalde, Bartzelonan jatetxe asko daudela esan digu, eta alde horretatik, aukera asko dagoela: "Bartzelonan ohikoak diren janari goxo batzuk ere badaude hemen, besteak beste: boutifarra, calçots eta escalibada".

### IKUSTEKO GAUZA ASKO DAUDE

Lazpiurrek esan digu gauza asko daudela ikusteko hirian: "Sagrada Familia (beti lanen bat egiten daude bertan), Guell parkea, Gaudiren beste hainbat etxebizitza, ranblak eta hirian zehar ibilita txoko eta plaza polit asko topatzen dira. Nik lagunak bisitan etortzen direnean aprobetxatzen dut turismo pixka bat egiteko".

Lazpiurrek esan digu astebukaeretan Bartzelona futbol taldearen partiduak ikustera joaten direla tabernaren batera; "hemen egin naiz futbol zalea". Gauza asko igartzen ditu faltan: besteak beste, autoa hartu eta mendira igotzeko aukera izatea, Euskal Herriko janaria, baina batez ere lagunak eta familia.

## txaloak eta txistuak


JASONE ZABALA

# Beira zatia apurtuta eta arriskua Zubiaurren

Irakurle batek bidali digu aste honetan txistua; berak adierazi digu duela gutxi hasi zirela kale horretan etxebizitza berriak egiteko lanak, eta hainbat makina egon direla hango etxe zaharrak botatzen. Ondorioz, ondoan dagoen lokal bateko beira zatia apurtu dela esan digu, eta oso arriskutsu dagoela gune hori.

**BICIPRECISIÓN IGARTUA** Zubieta kalean 943 76 11 21

**Sei hilabetetan ordaintzeko, interes barik!**

LAPIERRE




cervélo




**Errepideko bizikletetan eskaintzak:**

| | LEHEN | ORAIN |
|---|---|---|
| * Goka monokaskoa, Ultegra 10 ab. | 1.980 € | 1.250 € |
| * Goka monokaskoa Zero 8 Durace 2009 karbonozko gurpilekin | 3.400 € | 2.580 € |
| * Orbea Onix karbonozkoa 2008 Sram Rival 10 ab. | 1.980 € | 1.245 € |
| * Orbea Onix karbonozkoa Shimano 105 10 ab. | 1.900 € | 1.000 € |
| * Karbonozko gurpilak | 1.190 € | 799 € |

**Mendiko bizikletetan eskaintzak:**

| | LEHEN | ORAIN |
|---|---|---|
| * Orbea aluminiozkoa freno hidraulikoarekin | 700 € | 475 € |
| * Orbea aluminiozkoa freno hidraulikoarekin Master | 980 € | 699 € |
| * Goka monokaskoa XT-LX | 1.780 € | 1.100 € |

**Jaunartzeetarako bizikletak!**

**EUSKARA** > EUSKARAREN ASTEA

# Antzerkia eta berbaldia izango dira, Euskararen Eguna gertatzen joateko

Arelarre taldeak antzezlana eskainiko du martitzenean eta Euskal Herrian Euskaraz taldeak kafe tertulia egingo du eguenean



Herriko trikitilariak, iaz, Euskararen Eguna girotzen. MIRARI ALTUBE

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Euskararen Astea egingo du Loramendi Euskara Elkarteak maiatzaren 12tik 16ra bitartean, eta, hain zuzen, 16a izango da egunik handiena: Euskararen Eguna. Egun hori girotzen joateko ekitaldi bi egingo dituzte.

**ANTZERKIA ETA KAFE TERTULIA**

Aurtengo Euskararen Astea inoiz baino herrikoiagoa izango da, herritarrek girotuko dituzte-eta ekitaldi gehienak. Martitzenean, hilak 12, Aretxabaletako Arelarre antzerki taldeak *Poti* antzezlana eskainiko du Kurtzebarri eskolan (17:30). 10 eta 12 urte arteko neska-mutikoek osatu dute taldea eta hainbat entsegu egin dituzte azken bi hilabeteotan: "Izugarrizko ilusioarekin eta inolako laguntza barik gertatu dute antzezlana gaztetxo horiek eta jendaurrean aurkezteko gogoz daude", jakinarazi dute Loramendiko arduradunek. Ume eta helduendako da; hortaz, familia giroan ikusteko apartekoa.

Eguenean, hilak 14, ostera, kafe tertulia izango da udaletxe zaharrean (19:00). Euskal Herrian Euskaraz taldeak gertatu du eta Aretxabaletako euskararen egoeraren gainean egingo dute hausnarketa hurreratzen diren herritarrekin batera.

**BABARRUN JANERAKO TXARTELAK**

Egunotan egingo dituzten ekitaldi horiek maiatzaren 16ko Euskararen Eguna girotuko dute. Urtero legez, jai dotorea gertatu du Loramendik hurrengo zapaturako, eta aurten Gazte Ekimeneko kideen laguntza izango du.

Ohiko ekitaldiak izango dira nagusi: trikitilariak, gazta dastatzea, Larrin dantza, bertsolariak eta babarrun jana. Herriko Plazan izango da bazkaria eta babarrunak Eguzki Alde, Urbaltz eta Muru Alde elkarteetako kideek gertatuko dituzte; Batzokitik kafea ekarriko dute. Bazkarirako txartelak aurrez hartu behar dituzte interesatuek eta dagoeneko salgai dauzkate 15 euroren truke Orly eta Urbaltz tabernetan eta Loramendin bertan. 200 txartel dauzkate.

Eta aparteko ekitaldia ere izango da Euskararen Egunean: Oskorri taldearen *The Pub Ibiltaria* ikuskizuna, plazan (17:30).

**LORAMENDIREN ALDEKO ZOZKETA**

Baina Loramendira ere ailegatu da krisia eta horri aurre egiteko 2 euroko errifak salduko dituzte datorren astetik aurrera. Loramendiren jardunari lagundu gura diotenek erosteko aukera izango dute uztailaren 13an egingo duten zozketara bitartean. Saria izango da profesionalen pilota partidurako sarrerak eta Belar Meta gazteendako arropa dendan gastatzeko 100 euroko txartela.

**Jon Davila** > Arelarre antzerki taldearen sortzailea

## "Antzerkigintza oso gustuko dudalako sortu dut taldea"

**M.A.** > ARETXABALETA

**Arelarre antzerki taldea sortu du 12 urteko Jon Davila aretxabaletarrak. Martitzenean *Poti* antzezlana aurkeztuko dute.**

**Nolatan sortu duzu antzerki taldea?**

Oso gustuko dudalako. Eskolan eta ludotekan egin izan ditut antzerkiak eta orain taldea sortu dut beste batzuekin batera, serioago jarduteko.

**Zenbat kide zarete?**

Zortzi; mutilak bi eta gainerakoak neskak.

**Antzezlana gertatu duzue Euskararen Asterako.**

Bai, hala da. Plaza erdian pote baten barruan bizi den mutiko baten gorabeherak dakartzagu.

**Edonorendako da egokia?**

Bai; txikiek ondo pasatuko dute eta helduei ere gustatuko zaiela uste dugu.



M.A.

**Inork lagundu dizue prestaketa lanetan?**

Ez. Gidoia eskolan eman zidaten eta guk moldatu egin dugu. Dekoratua eta gainerako guztia geuk gertatu dugu.

**Argi dago antzerkigintza gustuko duzula...**

Bai! Aktore izan gurako nuke. *Zigortzaileak* filmeko *casting*-era joan nintzen orain dela aste batzuk, eta oso ondo pasatu nuen.



M.A.

## Mitarte kaleko lanak hasteko gertatzen

Astelehena ezkero dabiltza Mitarte kaleko saneamendu eta berritze lanak hasteko inguruak gertatzen. Kalean zeuden 13 platanondoak bota egin dituzte eta jarlekuak kendu. Eroski aurretik hasiko dituzte lanok, eta lurrean seinaleak eginda dauzkate. Maiatzaren erditik aurrera Mitarte kalea itxi egingo dute autoendako, eta, hala, Geltoki plazatik eta Basabe bidetik pasatu beharko dute.

Garbittu

Errekabarren 3, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
•
Obra bukaerako garbiketak
•
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
•
Kristalen garbiketak
•
Arropa garbiketak

Mobiliario Arenaza

• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

JENDARTEA > ELKARTASUNA

# Sahararen alde dirua batzeko krosa bihar

Desagertu eta preso sahararren familien aldeko elkarteari emango dio Iesbaak jasotako dirua


Iazko otsailean egindako Sahararen aldeko Herri Krosa hasteko gertu ume eta gaztetxoak. MIRARI ALTUBE

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Sahararen aldeko II. Herri Krosa egingo du Iesbaa elkarteak, bihar, maiatzak 9 (18:30). Dirua batzea du helburu ekitaldiak eta dortsalak salgai dituzte 3 euroren truke, La Caixan. Bihar, lasterketa hasi aurretik ere eskuratu ahal izango dira. Jasotako dirua AFAPREDESA elkartearendako izango da, hau da, desagertu eta preso sahararren familiendako. Diruz lagundu gura dutenek, gainera, Euskadiko Kutxan eta La Caixan kontu bana dituzte.

**SEI KILOMETROKO IBILBIDEA**
Lasterkariak Herriko plazatik irtengo dira (18:30) eta sei kilometroko ibilbidea egin. Hona: Herriko plaza-Errekabarren-Andramari auzunea-Araba ibilbidea-Bizkaia kalea-Loramendi kalea-Arkarazoko bidegurutzea-bidegorria (Copreci parean)-Basabe poligonoa-Geltoki plaza-Basabe bidea-Durana kalea-plaza. Hiru buelta eman beharko diote ibilbide horri helduek.

Ume eta gaztetxoek helduen aurretik egingo dute takarradan eta ibilbidea motzagoa izango da horiendako: Herriko Plaza-Errekabarren-Ilargi plaza (Eroski aurrea)-Durana kalea-Herriko plaza. Baina Mitarte kaleko lanak direla-eta Eroski aurrea itxita badago Andramari auzunetik egin beharko dute buelta.

**KUX-KUXA GERTATZEKO IKASTAROA**
Krosa, baina, ez da izango eguneko ekitaldi bakarra. Goizean (11:00) kux-kux jakia zelan gertatu irakasteko asmoa daukate Urbaltz elkartean (10 euro). Horretarako taldetxoa osatzea gura dute eta aurrez jakinarazi behar da mezu bat bidalita (*iesbaa@gmail.com*) edo telefonoz deituta (626 63 91 64). Saharar bat etorriko da irakastera eta ondoren bazkaltzen geratuko dira guztiak. Gainera, Saharan bizi duten gatazkaren gainean jarduteko aprobetxatuko dute bazkalordua.

MUSIKA > 'KANTARI'

# 'Kantari' ikuskizuna, aste bukaeran

**M.A.** > ARETXABALETA
Goiena Telebistako *Kantari* karaoke ikuskizunaren saioak grabatuko dituzte bihar eta etzi Arkupen. Aretxabaletako eta Eskoriatzako neska-mutikoak elkartuko dira kantuan eta dantzan egiteko. Grabatutakoak ekainean hasiko dira botatzen GOITBn.

**142 NESKA-MUTIKO**
Bigarren aldiz antolatu dute Goiena Komunikazio Zerbitzuek *Kantari* karaoke ikuskizuna. 8 eta 12 urte arteko Debagoieneko neska-mutiko askok hartuko dute parte, tartean 142 aretxabaletarrek. Eta guztiak izango dira Arkupen aste bukaeran. Egun bakoitzean lau saio grabatuko dituzte telebistarako, 17:00ak eta 20:00ak artean: lehen saioa 17:00etan, bigarrena 17:50ean, hirugarrena 18:40an eta azkena 19:30ean. Saioak ikusteko aukera dago.


Aretxabaletako boskotea entsegu batean. GOIENKARIA

Urduri izango dira neska-mutiko asko, baina kantuak eta dantzak ondo baino hobeto dakizkite hainbat entsegu egin dituztelako. Entsegu horietan Usoa Agirre eta Maider Arregi Goienako lankideak izan dituzte irakasle eta lagun.

**SARRERAK**
Arkupeko Zaraia aretoa txikia da (99 aulki) eta arazorik sor ez dadin sarrerak banatu dizkiete parte-hartzaileei (bi bakoitzari). Hala ere, sarrera gehiago izango dituzte bihar eta etzi bertara hurreratzen direnendako.

> HEZKUNTZA

### Ikastetxeetako guraso elkarteek antolatutako jarduerendako dirulaguntzak iragarri dituzte

Irakaskuntza arautuaren barruan lan egiten duten guraso elkarteendako dirulaguntzak iragarri ditu Udalak eta eskaerak aurkezteko epea zabaldu. Elkarteak irabazi asmo bakoak izango dira eta jarduera konkretuendako eta ikasturteko jarduera programendako dira laguntzok. Udalak 4.000 euroko aurrekontua dauka.

> DANTZA

### Eguenean, hilak 14, egingo du Jaiki elkarteak dantza libre saioa (18:00-20:30) kuartel zaharrean

Jaiki elkarteak hilero egiten du dantza libre saioa eta maiatzekoa datorren eguenean, hilak 14, egingo du (18:00-20:30), kuartel zaharrean (8 euro). Izena aurrez eman behar da telefonoz deituta (669 05 80 33) edo mezu bat bidalita (*jaikielkartea@yahoo.es*).

> ERRETIRATUAK

### Maiatzaren 28an Lizarrara joateko txartelak salduko dituzte Basotxon hilaren 18an eta 19an

Basotxo erretiratuen elkarteak Lizarrara (Nafarroa) irteera antolatu du maiatzaren 28rako, eguena. Txartelak aurrez jarriko dituzte salgai bazkideendako: hilaren 18an eta 19an banatuko dituzte Basotxon bertan (11:00-12:00).

ANDRA MARI
Aholkularitza

Fiskala
Kontablea
Juridiko/laborala

2008ko ondare eta errenta aitorpenenerako epea zabalik

Andra Mari auzunea 3 ARETXABALETA Tel. 943 79 29 26

**KIROLAK** > ARETXABALETA KIROL ELKARTEA

# Eduardo Altube izango da UDAko presidentea datozen bi urteotan

Jokin Antxia buru zuen hautagaitzak erretiratzea erabaki du, "UDArendako ez direlako onuragarriak hauteskundeak"

**M.A.** > ARETXABALETA

Aretxabaleta Kirol Elkarteko zuzendaritza batzordea osatzeko bi hautagaitza aurkeztu ziren apirilaren 3an: Jokin Antxiaren taldea –Gorka Etxabe, Adrian Merino, Iker del Teso eta Iñaki Antxia– eta Eduardo Altuberena –Jon Arriola, Agurtzane Elkoro, Juan Mari Enekotegi, Angel Mari Etxabe, Javier Etxebarria, Jesus Mari Martinez, Antonio Rajado, Jose Ramon Saez de Gordoa, Galo Sanchez, Jose Migel Uribarren eta Angel Zubillaga. Hala, bada, hauteskundeak egin behar ziren batzordea aukeratzeko. Zapatuan, baina, hautagaitza erretiratzea erabaki zuen Antxiaren taldeak, eta, ondorioz, Eduardo Altube izango da presidentea eta haren taldeak osatuko du zuzendaritza batzordea.

**UDA-RI LAGUNTZEA HELBURU**

Antxiak azaldu digu Altube jarri zela eurekin harremanetan elkarlanerako gertu azalduta, eta biek uste zutela hauteskundeak ez zirela onak UDArendako: "Baina batzarra egin genuen bi taldeok eta gure harridurarako esan zuten euren hautagaitzan ez zutela inor berririk sartuko". Hori horrela, eta hauteskunderik ez egitearren, besteei aurrera egiten uztea erabaki dute: "Momentu honetan UDAri lagunduko diogu hauteskundeak baztertuta. Inportanteena UDA da", dio Antxiak.

Hala ere, talde moduan jarraitzea erabaki dute: "Etorriko da UDAri barrutik laguntzeko momentua. Jende gaztea dago gure taldean eta ilusioz hartu dute zuzendaritzan sartzeko aukera".

**LANEAN HASITA**

Altube buru duen zuzendaritza batzordea dagoeneko hasi da lanean; hau da, datorren denboraldia antolatzen. Bide batez, eskerrak eman gura dizkiete UDAren etorkizuna bermatzeko hautagaitza osatzen ahalegindu diren guztiei.

**AISIALDIA** > UDALEKUAK

# Udaleku irekietan izena emateko epea zabalik dago

Maiatzaren 20a da azken eguna; 1997 eta 2005. urte artean jaiotakoendako da

Gazteria Zerbitzuak eta Poxpolin elkarteak antolatutako udaleku irekietan izena emateko epea zabalik dago maiatzaren 20a bitartean. Eskuorria banatu dute ikastetxeetan eta harekin batera Euskadiko Kutxan 43,20 euro ordaindu diren agiria eroan beharko dute interesatuek izena ematerakoan. Hiru anai-arrebak izena emanez gero hirugarrenak ez du ordaindu beharrik izango. Izenemateak Arkupeko harreran (11:00-13:00) edo Gazteria Zerbitzuan (astelehen eta eguaztenetan, 09:00-13:00 eta 14:00-17:00) egin behar dituzte gurasoek.

Udaleku irekiak uztailaren 2tik 23ra bitartean egingo dituzte (10:00-12:30 eta 15:00-17:00) eta 1997 eta 2005. urte bitartean jaiotako neska-mutikoek jardungo dute –gaztetxoenak, goizez bakarrik.

**Zuriñe Larrinaga** > Sukaldaritza ikastaroaren gidaria

# "Sukaldeko giroa galdu egin dugu, baita amaren eta alabaren arteko transmisioa ere "

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

**Azkenburukoak edo postreak zelan egin ikastaroa antolatu du Loramendi Euskara Elkarteak. Gaur egingo dute ikastaroa (15:00-18:00), Urbaltz elkartean, eta Zuriñe Larrinaga izango dute irakasle.**

**Azkenburukoak egiten irakatsiko duzu; hortaz, sukaldaritza gustuko duzun seinale.**

Bai, oso gustuko dut, izugarri disfrutatzen dut jakiekin. Usaintzea, osagaiak zeintzuk diren jakitea... dut gustuko eta sukaldaritzaren gaineko liburu asko dauzkat.

**Nondik datorkizu zaletasuna?**

Etxetik, ama sukaldari ona da-eta. Lehen, sukaldean bizi ginen guztiok eta ama jatekoa gertatzen zebilen bitartean inguruan egoten ginen; lapiko artean ibiltzeak badu bere emozioa. Orain, sukaldeko giroa galdu egin dugu, baita ama-alaba arteko transmisioa ere.

**Sukaldean jarduten ikasi egiten da ala esku ona behar da?**

Eskua baino gehiago, sukaldaritza gustuko izatea da garrantzitsua: irakurri, probatu, egin... Eta ikasi egiten da, noski. Liburu asko ditut nik; azkena Koldo Salinasen *Dulces caprichos* erosi dut. Gainera, sukaldean lasai egin behar da lan, presarik gabe.

**Azkenburukoek, baina, kaloria asko ei dituzte?**

Baina bazkari on batek azkenburuko on bat eskatzen duela uste dut. Ardoari garrantzi handia ematen diote batzuek; ba, nik, azkenburukoei.

**Zer erakutsiko duzu gaur?**

Hostopilezko pastela egiten, melokotoiak laranja zukuarekin gertatzen eta beste zerbait ere egingo dugu; egiteko samurrak eta jateko goxoak guztiak.

**Zergatik emakumeok ez dugu gizonen ospea sukaldean?**

Egon badaude: Tafallako Tubal jatetxeko Atxen Jimenez eta Elena Arzak, esaterako; baina egia da emakumeak ezkutuan geratzen direla askotan.



Sukaldaritza ikastaroko gidari Zuriñe Larrinaga. MIRARI ALTUBE

## oharrak

IKUSKIZUNA

**> 'Liburu batean' ipuin kontaketa**

Bihar, hilak 9, *Liburu batean* ipuin kontaketa eskainiko dute liburutegian (11:30).

MERKATARITZA

**> Puzgarriak Herriko Plazan**

Merkataritza bultzatzeko egitasmo barruan gaztelu puzgarriak jarriko dituzte bihar Herriko Plazan (17:00-19:00).

ERRETIRATUAK

**> Berbaldia osasunaren gainean**

*Salud a partir de los 55 años* berbaldia egingo du El Taller taldeak astelehenean, hilak 11, Zaraia aretoan (16:00).

IKUS-ENTZUNEZKOA

**> Pirinioetako gorabeherak**

Pirinioetan gidari lanak egiten dituen Endika Uriondo gasteiztarrak *Descensos de barrancos, Sierra de Guara, Pirineo* ikus-entzunezkoa eskainiko du hilaren 14an, eguena (19:30).

KINTOAK

**> 1944an jaiotakoen bazkaria**

Aurten 65 urte betetzen dituzten gizon-emakumeek maiatzaren 30ean ospakizuna dute: meza eta bazkaria Taberna Berrin. Izena Taberna Berrin eman behar da 10 euro aurreratuta.





Egunotan, komunak eraberritzen dabiltza. Pasillotik sarrera egingo diete bi komunei. MIREIA BIKUÑA

**LANAK** > ZAHARREN EGOITZA

# San Martin egoitzako beheko solairuko berritze lanak, martxan

Besteak beste, ile-apaindedia, kafetegia, errehabilitazio gela, liburutegia, komunak eta hildakoen gela eraberrituko dituzte

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI
San Martin zaharren egoitzan eraberritze lanak hasi zituzten hilaren 20an. Hain zuzen ere, beheko solairuan egiten dihardute lanok. Zaharren egoitzan dauden bizilagunek elkarrekin erabiltzen dituzten guneak eta gelak txukunduko dituzte. "Guztiek erabiltzen dituzten guneak konponduko ditugu; besteak beste, ile-apaindegia, liburutegia, errehabilitazio gela, kafetegia eta hildakoak egoten diren gelak", esan digu obrako zuzendariak. Era berean, komunak berrituko dituzte eta pasillo nagusitik sarrera egingo diete.

Gainera, hildakoen gelaren ondoan *hall* bat egingo dute.

**ERABERRITZE ESTETIKOA**
San Martin egoitzako beheko solairuan egiten diharduten eraberritze lanak, batez ere, itxura aldaketari dagozkiola esan digute: "Oso zaharkituta dago beheko solairua. Egingo ditugun aldaketa gehienak estetikoak dira. Egoitzako bizilagunek eta senitartekoek eskertu egingo dute aldaketa. Euren egonaldia erosoagoa izan dadin, beharrezkoak dira".

Egoitzako bizilagun guztiek erabiltzen dituzten geletako eta guneetako zoruak eta lurrak aldatu egingo dituzte. Ate berriak ipiniko dituzte, eta instalazio elektrikoa aldatuko dute. Gainera, eraberritutako geletan altzari berriak jarriko dituzte.

**LANAK, ZATIKA**
Beheko solairuko eraberritze lanak zatika egingo dituzte, lanak egiten dituzten bitartean ahalik eta gela gehien erabilgarri egon daitezen. Une honetan, komunak eraberritzen dabiltza.

Zaharren egoitzako eraberritze lanak zatika kontratatu dituzte, eta lanen aurrekontua Foru Aldundiaren eta Oñatiko Udalaren artean ordainduko dute.

## Orain dela bi urte egindako lanen osagarri

Beheko solairuan egiten diharduten lanekin bukatuko dute zaharren egoitzaren eraberritzea. 2006ko abenduan inauguratu zituzten hirugarren eta laugarren solairuetan egindako berrikuntzak. Hirugarrenean psikogeriatria zerbitzua jarri zuten: jangela eta egongela propioak ditu orain eta, guztira, 15 lagunendako tokia egin zuten. Laugarren solairuan arazo arkitektoniko guztiak kendu zituzten, eta logela guztiak gurpildun aulkietan daudenek erabiltzeko moduan egokitu zituzten. Aurrekontua 1.462.000 euro izan zen. Aldundiak %54 ordaindu zuen eta gainerakoa, berriz, Oñatiko Udalak.

**MUSIKA** > SAN MIGEL TXIKI JAIAK

# Sharon Stoner, Jukebox eta Des-Kontrol gaur, Oñatin

San Migel Txiki jaien barruan kontzertua egingo dute gaur 23:00etan

**M.B.** > OÑATI
Zuzeneko indartsuarekin hasi dituzte gaur San Migel Txiki jaiak. Hain zuzen ere, kontzertua egingo dute Sharon Stoner oñatiarrek eta Jubekox eta Des-Kontrol arrasatearrek, 23:00etan. Aurretik, 19:00etan etxafuego jaurtiketarekin txorimaloak irtengo dira, eta ardo eta gazta dastatzea egingo dituzte txosna gunean. Kebab postua ere jarriko dute.

**BIHAR ETA ETZI**
Bihar umeendako marrazki lehiaketa, haur parkea eta herri kirol erakustaldia egingo dituzte, besteak beste. 23:00etan erromeria egingo du Egan taldeak.

Domekan, auzoko emakumeek bazkaria egingo dute. Bertso eskolako eta Oñatz taldeko kideek saio bana egingo dute. 22:00etan Miren, Agur eta Gorka trikitilariek musika emanaldia egingo dute jaia bukatzeko.



Sharon Stoner taldeko kideak. GOIENKARIA

> LEHIAKETA

### Zuazolako DBHko hirugarren mailako ikasleek 'Klik eta klik' lehiaketako bigarren saria jasoko dute

Zuazola-Larraña Institutuko DBHko hirugarren mailako 27 ikaslek *Klik eta klik* lehiaketako bigarren saria jasoko dute. Sari banaketa ekitaldian gaur egingo dute Donostian eta ikasle bakoitzak iPod shuffle musika-aparailu bana jasoko du.

*Klik eta klik* Digital Vascak asmatutako tresna pedagogikoa da eta Internetek hezkuntzan duen ahalmena aprobetxatuz, ikasleen artean giza baloreak zabaltzea du helburu. Oñatiarrak EAEko 50 ikastetxetako ikasleekin lehiatu dira bost hilabetez.

> DIRU-BILKETA

### Lourdesko erromesaldian parte hartuko duten gaixoendako diru-bilketa egingo dute aste bukaeran

Maiatzaren 22tik 25era Lourdesera (Frantzia) egingo duten Gipuzkoako erromesaldian parte hartuko duten Oñatiko gaixoen bidaia ordaintzeko diru-bilketa egingo dute bihar eta etzi. Gaixoen ardura dunak direnak zapatu arratsaldeko elizkizunen bukaeran egongo dira dirua batzen. Domekan, aldiz, Bidaurretan, zaharren egoitzan, Agustindarren eta benediktarren elizetan eta parrokian egongo dira mezak bukatu ondoren. Era berean, Arantzazura igoko dira domeka goizean.

> ELEKTRAINDAR SAREA

### Herriko hainbat auzoetako erdi eta behe tentsioko saretan topografia lanak egiten dihardute

Herriko hainbat auzoetan Oñargi S.L-k dituen erdi eta behe tentsioko saretan topografia lanak egiten dihardute. Hain zuzen ere, Murgia, Olabarrieta, Berezao, Lezesarri, Goribar, Larraña eta Garagaltza auzoetan. Besteak beste, lursailetatik pasatzen diren euskarrien eta eroaleen, eta baserrietara doazen argi-hartuneen datuak jasoko dituzte. Horretarako, teknikariak lursailetan sartu beharko dira. Oñargik eskerrak eman gura dizkie lursailetako jabeei topografia lanak samurtzearen.

## oharrak

DEIALDIA

**> Nesken futbol taldeko bazkarirako izenematea astelehenera arte**

Maiatzaren 23ko bazkarira joan gura duenak 30 euro sartu beharko ditu 2101 00 5753 0126831502 zenbakian. Bazkaldu aurretik partidua jokatuko dute Azkoagainen. 17 jokalarik eman dute izena dagoeneko.

EAJ

**> Europako parlamenturako posta bidezko botoa EAJren bidez**

Ekainaren 7an egingo dituzte Europako Legebiltzarrerako hauteskundeak. Posta bidezko botoa eman gura dutenek EAJren bulegotik pasa daitezke. Egunero zabalduko dute bulegoa 19:30etik 21:00etara.

HAURTZAINDEGIA

**> Txiki Txokon izenemate epea zabalik hilaren 15era arte**

Txiki Txoko haurtzaindegian izena eman gura duten gurasoek eskolatik pasa beharko dute izenemate orriak bete ahal izateko. Informazio gehiago gura duenak 943 71 64 05 telefonora dei dezake eskola orduetan.

**UDALA** > GAZTEAK

# Santa Ana 19an dagoen lokala gazte talde bati urtebetez uztea onartu dute

Lokala eskatu duen taldearen asmoa da gazteendako euskarazko ekimenak antolatzea eta, gerora begira, gazte asanbladа sortzeko lehen pausoak ematea


Santa Ana 19ko lokalean bake epaitegia jartzea aurreikusi zen aspaldi. MIRIAN BITERI

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Apirilaren 29ko osoko bilkuran, Santa Anako 19. zenbakiko etxabeko udal lokala herriko gazte talde bati dohainik erabiltzen uztea onartu zuen udalbatzak. Proposamen horrek Udal Gobernuko lau zinegotzien eta Elizateetako baten eta EAko beste baten aldeko botoa jaso zuen, eta Ezker-Batua-Berdeak eta EAJko ordezkarien kontrakoa.

Azken bi horiek kontrako botoa emateko arrazoiak azaldu zituzten. Ezker Batua-Berdeak taldeko Juan Luis Merino herriko lokal "onena" edozeini uztea ez duela egoki ikusten eta gazteriaren inguruan "hausnarketa" egitearen alde azaldu zen. Aitor Urrutia jeltzaleak, berriz, esandako lokalean bake epaitegia jartzeko aspaldiko proposamenarekin bat egin zuen. Pedro Lasagabaster alkateak Merinori jakinarazi zion eskaera egin duen taldeak "historikoki" ekimenak antolatu izan dituela, Udalarekin batera. Urrutiari, berriz, gogorarazi zion bake epaitegia han jartzeko diru asko behar dela.

Esandako bilkuran, Kultura zinegotzi Edorta Barandiaranek azaldu zuen talde horrek gazteei zuzendutako euskarazko ekimenak bultzatzeko eta, gerora begira, gazte asanblada ekintzaile eta euskalduna sortzeko lehen pausoak emateko asmoa duela. Modu horretan, herriko gazteen artean dagoen pasibotasunarekin amaitzea, euskararen erabilera sustatzea eta gaztelekua txiki geratuko zaien gazteendako alternatiba izatea bilatzen omen dute eskaria egin duten eskoriatzarrek. Hori guztiori abian jartzeko, baina, lokala behar dutela jakinarazi diote Udalari.

**KLAUSULAK**

Udalak taldearen interesa "positibotzat" jo du, eta horregatik, udal jabetzako lokala uztea adostu eta horren gaineko hitzarmena prestatu du, alde biek sina dezaten. Horretan gogorarazten da lokala ekimenak antolatzeko erabiliko dela eta, hortaz, ezin izango zaiola beste erabilerarik eman. Ordutegiari dagokionez, domekatik eguenera 09:00etatik 21:00etara eta aste bukaeretan 22:00ak arte erabili ahal izango dela dio.

Aldi berean, antolatzen dituzten ekimen guztiek izaera irekia izango dutela eta, beraz, herriko gazte guztiei zuzenduta egongo direla adierazteaz gain, beste talde batek izaera antzekoa duen egitasmoa aurkezten badu, Udalak lokal berean sartzea erabaki lezakeela azaldu du.

**ARDURAK**

Lokalari berari dagokionez, bertan ekimenak abian jartzeko beharrezkoak diren tresnak gordetzea aurreikusten badu ere, horiekin zerbait gertatuz gero Udalak horien ardura bere gain ez duela hartuko ohartarazi du. Bestalde, lokalaren mantenu gastua Udalaren ardura izango dela aipatzen du; eta lokalaren zaintza eta garbitasuna, berriz, erabiltzaileena. Gaineratu du Udalak udaltzaina edo arloko teknikaria arduradun izendatu dituela gura dutenean lokalaren ikuskapena egiteko.

Hitzarmenak urtebeteko iraupena duen arren, beste urtebeterako luzatzeko aukera izango dute alde biek. Dena den, sinatzaileetako edonork amaitutzat eman dezake, idatziz bestearen aurrean aurkeztutako salaketaren bidez.

**HEZKUNTZA** > HAURTZAINDEGIA

# Kulunka haurreskolan izena eman daiteke hilaren 15era arte

Arizmendi ikastolako Jose Arana gunean, bestalde, 0-1 urte bitarteko umeak urte osoan hartzen dituzte, eta bi urtetik gorakoen izenematea, berriz, otsailean egin zuten


Irudian, Kulunka haurreskolako ume bi. KULUNKA

**M.B.** > ESKORIATZA

Dagoeneko zabalik dago datorren ikasturteari begira Kulunka haurreskolan izena emateko epea. Astelehena ezkero apunta daitezke Partzuergoko haurreskolan 0 eta 2 urte bitarteko umeak; epea maiatzaren 15era arte izango da. Behin-behineko zerrendak ekainaren 19an argitaratuko dira eta onartutako haurrak haurreskolan hasteko eguna irailaren 4a izango da.

Kulunka hamaika hilabetez dago zabalik; irailetik uztailaren amaiera arte, hain zuzen. Ordutegiari dagokionez, 07:30etik 18:30era dago zabalik. Guztira, 42 haurrendako tokia dute.

Hango hezitzaileek jakinarazi dute, izenematea datorren ikasturterako bada ere, gaur egun plaza libreak dituztela, eta, beraz, orain ere haurrak hartzen dituztela. Informazio gehiago gura dutenek 943 71 57 70 telefono zenbakira deitu edo *kulunka.eskoriatza@haurreskolak.net* helbidera idatz dezakete.

**ARIZMENDIKO JOSE ARANA**

Bestalde, gogoratu beharra dago Arizmendi ikastolako Jose Arana gunean 0-1 urteko umeak dituztenek urte osoan eman dezaketela izena. 2 urtetik gorakoenek, berriz, otsailean bete zuen 09/10 ikasturterako eskaera orria. Udal zerbitzu horretan bi ordutegi mota dituzte: batetik, haurtzaindegia zabalik dagoen bitartean –07:30etik 19:00etara– zortzi orduz utzi ahal izango dira gehienez; eta bestetik, bost orduko ordutegi murritza eskaintzen dute. Horretarako izenemate orria Arizmendin edo *www.arizmendi.eu* webgunean jaso daiteke.





Irudian, Santa Zezilia eguna dela-eta Eskoriatzako bandak parrokian eskainitako kontzertua. GOIENKARIA

**MUSIKA** > MUSIKA ESKOLA

# Urtero moduan, kontzertua eskainiko du bihar bandak

Bandaren musika emanaldia 20:00etan hasiko da San Pedro parrokian, meza amaitu ostean

Giner, Van Lancker, Nijs, Gershwin eta Francoren obra bana joko dute kontzertuan

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Eskoriatzako Musika Eskolako bandak udaberriko kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, San Pedro parrokian. Urtero egiten duten ekimena klasiko bilakatu da dagoeneko; eskoriatzarren artean harrera oso ona du musika emanaldi horrek. Meza amaitu ostean emango diote hasiera, 20:00etan.

Urtero bost obraz osatutako egitaraua gertatzen dute bandako kideek. Aurten ere horrela izango da. Emanaldia Salvador Ginerren *L' Entrá De La Murta* piezarekin hasiko da eta jarraian, Eric Van Lanckerren *Celebration Overture*, Johan Nijsen *Spirit of Life*, Jose Francoren *Aires Vascos nº 1* eta, azkenik, George Gershwin autorearen *Porgy and Bess* joko dute musikari eskoriatzarrek.

**45 MINUTU INGURU**

Betiko moduan, seigarren obra bat ere joko dutela iragarri dute bandakoek, musika emanaldia ikustera joan direnei eskerrak emateko. Hala ere, ez dute aurreratu nahi izan pieza horren izenbururik; nahiago dute "sorpresa" izatea. Kontzertuak, guztira, 45 minutu inguru iraungo du.

Guztira, 35 bat lagunek joko dute San Pedro parrokian. Gaztetxoenek 12 urte dituzte eta nagusienak, berriz, 55 urtetik gorakoak dira.

Jakina denez, udaberrikoa ez da bandak eskaintzen duen kontzertu bakarra: azaroan Santa Zeziliaren harira, abenduan Gabonetan eta San Pedrotan ere jotzen dute.

## Gatzagako bidea konpontzen hasi dira asteon

Gatzagako bidetik joaten direnak jabetuko ziren dagoeneko GI-3310 errepidea konpontzen hasi direla. Besteak beste, Zarimutzera doan bide parean azkenaldian sortu den zulo potoloa kentzeko lanei ekin diete langileek. Horretarako, Gatzagarako bidea moztu behar izan dute eta zirkulazioa erregulatzeko semaforoak jarri dituzte alde bietan. Handik pasatzen diren gidariei, arretaz gidatzeko eskatu die Foru Aldundiak.




MIRIAN BITERI

## oharrak

UMEAK
**> Tortolis ludotekan frutamazedonia egingo dute gaur**

7 eta 12 urte bitartekoendako astero antolatzen dituzten ekintza bereziekin dihardute ludotekan. Gaur, barikua, fruta-mazedonia egingo dute han, 18:00etan. Gogorarazi dute ume guztiendako zabalik dagoela tailerra, bazkide izan ala ez.

KIROLA
**> Kirol hitzorduz josita dator aste bukaera kiroldegian**

Bihar, zapatua, saskibaloiko hiru partidu egongo dira. Kadete mailan, etxekoek Bera Bera Manteokoak hartuko dituzte. Ordu berean, junior mailan, eskoriatzarrak Bera Bera Gros taldearen kontra lehiatuko dira. Arratsaldean, berriz, senior mailan, 2. maila nazionalerako igoera faseko finalaurreko partiduak jokatuko dira. Eskoriatzak Erroibide Irungo neskak izango ditu berriro aurrean, 18:00etan. Finala, berriz, domekan jokatu da Intxaurtuetan, 12:00etan.

Bestalde, ohorezko ligako areto-futbola ere egongo da. Etxekoak Uxoa izango dute aurrean, 17:00etan.

GAZTEAK
**> Sexologia tailerra antolatu dute etzirako gaztelekuan**

Eskoriatzako gaztelekuak maiatzerako antolatu duen egitarauaren barruan, domekan sexologia tailerra egitea aurreikusi du. Saio hori 18:00etan hasiko da gaztelekuan bertan.

ONA TXARTELA
**> Eguaztenetaeguenarratsaldean lor daiteke liburutegian**

Maiatzean zehar ere aukera egongo da erabilera askotariko osasun txartela eskuratzeko Eskoriatzako udal liburutegian, honako egun eta ordutegian: eguaztenetan eta eguenetan, 16:30etik 20:00etara.

> GAZTEAK

## 'Kantari'-ko ikuskizunak daude bihar eta etzi

Herriko umeek eta gaztetxoek hitzordua dute aste bukaeran, *Kantari*-rekin. Entsegu saioen ondotik, bihar eta etzi, zapatua eta domeka, ikuskizunak egingo ditu Goiena Telebistak, Aretxabaletako Arkupe kultura etxean. Egun bietan ordu berean hasiko dira saioak: 17:00etan.

Antolatzaileek jakinarazi dute musika ikuskizunetan parte hartuko duten haurren lagun eta familiartekoek ateak irekita dituztela, esan bezala, Arkupen egingo diren grabazio saioetara joateko.

GOIENKARIA
2009ko maiatzaren 8a

## oharrak

HITZALDIA
**> Baratze ekologikoa**

Martitzenean, maiatzaren 12an, hitzaldia izango da Olaranen, 18:30ean. Lapatza baserriko Tomas Larrañagak baratze ekologikoaz jardungo du. Landaketa sasoiak, intsektizida ekologikoak, ongarriak eta konposta izango ditu, besteak beste, hizketagai. Euskaraz eta gaztelaniaz jardungo du eta galderak egiteko aukera izango da.

ELKARTASUNA
**> Mundumirako kamisetak**

Anelkar elkartasun taldeak ekainean Eskoriatzan izango den Mundumira jaialdiko kamisetak ekarri ditu Antzuolara. Itzar liburu dendan ipini dituzte salgai 24 euroren truke.

LEHIAKETA
**> Kukumarroak**

Maiatzaren 16an, zapatuan, San Isidro azokaren aitzakian, urtero moduan kukumarro lehiaketa izango da aurten ere. Lehiaketan parte hartu nahi dutenek aurrez eman behar dute izena eta maiatzaren 13ra, eguaztena, arteko epea dute horretarako.

> LITERATURA

### Patxiko Txerren ipuingintzako sari banaketa zapatuan

Liburutegian, 18:00etan, banatuko dituzte zapatuan Patxiko Txerren ipuingintza jarduerako sariak. Lehenengo mailatik seigarrenera arteko ikasleek hartu dute parte eta 111 ipuin jaso dituzte.

Liburutegiko eta eskolako ordezkariek eta herritar batek maila bakoitzetik ipuin bat aukeratu dute liburutxoan kaleratzeko. Kontuan hartu dituzte ipuinaren osotasuna, hizkuntzaren zuzentasuna, ilustrazio lana eta gaia.

Apika taldeko bi neskak gidatuko dute sari banaketa eta ikuskizuna ere eskainiko dute; besteak beste, ipuinak kontatuko dituzte.

**AZPIEGITURAK** > ITURRIA

# Auzolanean konponduko dute Gorlako iturria

1943an egokitu zuten, eta, zapatuko konponketekin, azken urteotan jaitsitako erabilera berreskuratu egin nahi dute

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Arrola elkarteak eta Antzuolako Udalak bultzatuta, bihar, zapatua, Gorlako iturria konpondu ko dute. Garai bateko ohiturak berreskuratuz, auzolanean jardutea da asmoa.

Gorlako iturriaren azken egokitzea 1943an egin zuten. Orduan, iturrira jaisteko 50 harmaila ipini eta iturri inguruko aska, jarleku eta zorua egokitu zituzten. Mendiko iturria izan arren, itxura dotorea eman zioten eta sasoi hartan asko erabiltzen zen. Azken urteotan, ordea, erabilera jaitsi egin da.

**ERABILERA BULTZATU**

Ekimen horrekin nahi dute iturrirako bidea eta ingurua garbitzea, hartunea eta kutxatilak garbituz eta babestuz eta harmailak txukunduz, eta berriz ere erabilera bultzatzea.

Auzolanean parte hartu nahi dutenak plazan elkartuko dira zapatuan 09:00etan edo, bestela, iturri ingurura agertzeko aukera ere badago. Gainera, ohitura onak gordez, hamaiketakoa egingo dute indarrak hartu eta lanean jarraitzeko.

**MUGARRIEN IBILBIDEA**

Bestalde, *Antzuola ezagutzen* ekimenarekin jarraituz, hurrengo domekan, maiatzaren 17an, mugarrien hirugarren ibilbidea egingo dute, Aizpurutxo eta Deskarga artekoa, hain zuzen ere. 09:00etan Sagastin irten eta Deskargara autoz joango dira.

**MUSIKA** > KONTZERTUA

## Bikustik talde elgoibartarraren kontzertua izango da gaur gauean Torresoroan

Arima Beltza taldean jardundako bi musikarik talde ezagunen bertsioak eskainiko dituzte modu akustikoan



Patxi Zabaletak eta Jon Gurrutxagak gitarrak izango dituzte lagun. BIKUSTIK

**I.A.** > ANTZUOLA

Jon Gurrutxaga eta Patxi Zabaleta musikari elgoibartarrek osatutako Bikustik bikoteak kontzertu akustikoa eskainiko du gaur, egubakoitza, 22:00etan, Torresoroan. Kontzerturako sarrerak hiru euro balio du.

Arima Beltza taldean jardundakoak dira biak. Bikustikeko ahots nagusia da Gurrutxagarena eta, gitarrarekin ez ezik, ahosoinuarekin edo panderetarekin ere laguntzen die Zabaletaren gitarra nagusiaren doinuei eta koruei.

Kantu klasikoen bertsioak jotzen dituzte: "Beti izan dugu bertsioak egiteko grina eta gustuko kantuak akustikoki moldatu ditugu. Emanaldietan Arima Beltzaren pare bat abesti eta atzerriko taldeen bertsioak eskaintzen ditugu: The Beatles, Led Zeppelin, Creedence Clearwater Revival, Chris Robinson...", dio Gurrutxagak.

## bere ustez



Amaia Olabarria

### Mendia menderatu nahian?

Dagoeneko ez nuen horrelakorik espero, baina bai, gertatu da: adinarekin, ardozaletasunaz gain, mendizaletasuna ere sortu zait. Ongi etorria izan bedi eta luzaro iraun beza!

Aurreko asteburuan, mendian genbiltzala, bi laguni adarra jotzen hasi nintzaien, zutabe honetan zera kontatuko nuela esanez: nola mendian txiza egiten hasi, eta asunekin ipurdia berobero jarri zitzaien. Baina, halako batean, harri batean irrist egin eta beste harri baten kontra sekulako kolpea hartu nuen, mareatzeko punturainoko zartatekoa. Kolpearekin joan zitzaizkidan aurreko harrokeria guztiak. Mendiak nor den erakutsi zidan, eta gauzak bere lekuan jarri.

**"Beldur naiz naturak gauzak bere lekuan jarri nahian, azpian harrapatuko ote gaituen"**

Abiadura Handiko Trena egiteko tematuta dabiltza agintariak – lehengoak eta oraingoak berdin, seguru asko.

Antzuolako mendiak zulatuko dituzte; baita gure poltsikoak ere. Eta ni beldur naiz naturak gauzak bere lekuan jarri nahian, azpian harrapatuko ote gaituen; gutxi batzuen harrokeriak guztiok itoko ote gaituen.

Larunbat honetan Iruñean dugu beste behin ere ezetz esateko aukera.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
•
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga
Zoruen kutxilatu eta bernizatzea
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta gozotegia
Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga
Apainketarako eta industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

**Javier Gartzia** > Baristen Espainiako txapelduna

# "Ardoarekin gertatzen den moduan, kafe munduan ere hainbat kafe mota daude"

ARANTZAZU EZKIBEL > ELGETA

**Javier Gartzia baristen Espainiako txapeldunak kafe ikastaroa eta dastatzea emango du eguenean, 19:00etan Espaloian. La Tostadora kafe etxeak antolatutako ikastaroa izango da. Harekin izan gara kafearen kulturaz eta kafearen usain eta zaporeez berbetan.**


Javier Gartzia barista, Espainiako txapelketako diplomarekin. MUNDO BARISTA

**Jende gutxik jakingo du barista izatea zer den. Azalduiguzu.**

Esan daiteke barista baten lana kafeaz egindako edariak sortzea dela. Gainera, barista batek nolabaiteko pasioa eta errespetua izan behar du kafearen produkzio guztian. Hau da, niri, kafe aletik tazarainoko prozesu guztia ezagutzea gustatzen zait.

Somelier batek ardoaren prozesu guztia dakien neurrian, guk kafearena jakiten dugu.

**Ikastaroan, *espressoa* ezagutzera emango duzu.**

Oinarrizko ikastaro bat egingo dugu *espressoa* ezagutzera emateko. Esan daiteke hemen *espressoa* oso ezaguna dela ostalaritza mailan, baina ez horrenbesteraino etxeetan. Makina horiek eskaintzen dizkiguten teknika guztiak aprobetxatu behar dira edari goxoak ateratzeko.

**Gainera, dastatze batekin amaituko duzue ikastaroa?**

Bai, Baque etxearen laguntzarekin egingo dugu. Botanikak eskaintzen dituen barietateak ezagutzeko aukera egongo da. Kafeaz berba egiten dugu modu orokorrean, baina, ardoarekin gertatzen den moduan, kafe munduan ere hainbat kafe mota daude. Nikaraguako, Etiopiako... kafea dago. Diogu ez dela kafea, baizik eta kafeak direla.

**"Kafe on bat egiterakoan kontuan hartu behar da ur kantitatea, denbora... gure amamen moduan, kafe ona egin daiteke"**

**Zer hartu behar da kontuan kafe on bat gertatzerakoan?**

Esan behar da oso jende gutxik ezagutzen duela kafea bere osotasunean; adibidez, kafe alea ez da ezaguna. Kontuan hartu behar da ur kantitatea, denbora... gure amamek kafea egiten zuten moduan, adibidez, oso kafe ona egin daiteke.

**Badugu kafe kulturarik gurean?**

Egia esan, ez. Ez dugu bereizten, ezta gozatzen ere. Esan daiteke produktua ezagutzen dugula, baina kafearen beraren elaborazioa ez dugula ezagutzen. Kafea eguneko edozein momentutan goza daiteke.

**HAURRESKOLA** > MATRIKULAZIOA

# Irailetik aurrera bi gela izango ditu haurreskolak

Matrikulazio epea zabalik egongo da hilaren 15era arte, barikua

A.E. > ELGETA

Elgetako haurreskolak matrikulazio epea zabalik dauka dagoeneko. Maiatzaren 4an zabaldu zuten, astelehenean, eta maiatzaren 15era arte egongo da zabalik, egun hori barne.

Datorren ikasturteak izango du berezitasunik: 20 ume hartuko dituen bi gela izango ditu haur eskolak.

**UME GEHIAGO**

Orain arte gela bakarra egon da, baina irailetik aurrera bi gela izango ditu haur eskolak: 0 eta 1 urte bitartekoentzat gela bat eta 1 eta 2 urte bitartekoentzat beste gela bat. Guztira 20 umerendako lekua egongo da haur eskolan, orain arte baino 10 ume gehiago, hain zuzen.

Haurreskolan izena eman nahi duenak Elgetako eskolako lehenengo solairura joan beharko du. Ordutegia izango da: 08:00etatik 15:00etara. Bestalde, telefonoz ere dei daiteke, 675 707 015 telefonora. Maiatzaren 15a izango da izena emateko azken eguna.

## frontenis txapelketa

| PARTIDUAK (Maiatzaren 9an, 18:30ean hasita) |
|---|
| Odei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga/Asier Morales-Asier Osoro |
| Mireia Berriozabal-Rebeka Ubera/Nagore Morales-Janire Lazkano |
| Idoia Serna-Nagore Ojanguren/Idoia Elkoro-Garbiñe Sarasketa |
| Eñaut Arantzeta-Aritz Gallastegi/Josu Arantzabal-Eneko Ojanguren |

| EMAITZAK | |
|---|---|
| Asier Morales-Asier Osoro/Oskar Sarasua-Roberto Mora | 25-14 |
| Mari Carmen Salas-Izaskun Ojanguren/Miren Argi Zeziaga-Idoia Lasa | 14-25 |
| Amaia Iribar-Alicia Gartzia/Mireia Berriozabal-Rebeka Ubera | 5-25 |
| Nagore Morales-Janire Lazkano/Idoia Elkoro-Garbiñe Sarasketa | 25-23 |
| Adrian Gorostiza-Sergio Bouzas/Josu Arantzabal-Fernando Zenitagoia | 24-25 |
| O. Zenitagoia-M. Beretxinaga/A. Gorosabel-I. Untzetabarrenetxea | 25-19 |

### Zapatuan finalerdiak jokoan

Frontenis txapelketa azken txanpara iristen ari da. Joan den asteko atsedenaren ondoren, indarberrituta azalduko dira bihar, zapatua, finalerdietan. 18:30ean hasita, lau partidu jokatuko dituzte. Finalak eta hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partiduak, berriz, maiatzaren 16an izango dira.

**BASERRITARREN BATZORDEA** > BILERA

# Lur-jausiak garbitzeko konpromisoa hartu du baserritarren batzordeak

Astelehenean egin zuten bileran landu zuten gaia; gainera, aurreko bilerako akta onartu egin zuten

A.E. > ELGETA

Azkenaldian herriko bideetan gertatu diren lur-jausiak konpontzeko konpromisoa hartu du Udalak, astelehenean egindako baserritarren batzordean.

Aixola eta Sestoko bideko lurjausiak garbituta daude. Uberatik Errotarako bidea ikusten egon dira asteon; eta, lanak laster egiteko konpromisoa hartu dute.

Bestalde, Gazteluaitzeko lurjausia garbitzeko agindua emanda dago. Lur-jausi horiek direlaeta, errepideak garbitzeko makina baten beharra ikusten da. Aparejadoreak bisita berehala egin dezan proposatu dute.

Arrota baserrirako sarrera konpontzekoa da Diputazioa; Arrota Azpiko konponketekin batera egingo dituzte lanok.

**FERIXA NAGUSIXA**

Asteleheneko bileran landu zuten beste gai bat uztaileko Ferixa Nagusixa izan zen. Azokan parte hartzeko izenak jasotzen dabiltza dagoeneko. Informazio gehiago hurrengo bileran emango dutela azaldu zuten.

## oharrak

KIROLAK

**> Herriko pilotalekua itxita egongo da maiatzaren 18tik ekainaren 5era arte**

Maiatzaren 18an itxiko dute pilotalekua. Bere garaian obrak egin zirenean frontoiko paretak ez ziren behar bezala geratu, eta hori konpondu behar dute orain, obrari behin betiko bukaera emateko.

KONTZERTUA

**> Domekan Oreretako Landarbaso abesbatzak kontzertua emango du**

12:00etan izango da kontzertua. Lehenengo, meza abestuko du Oreretako abesbatzak eta ondoren kontzertua emango du. Guztira hamar lan abestuko ditu Iñaki Tolaretxipik zuzentzen duen taldeak; tartean, zuzendariaren beraren *Pharitze trixte huntan*.


FELIX IRIZAR

# Elgetatik Kopako finala ikustera

Astelehenean zozketatu zituzten *Intxortako lehoiak* taldeko kideek Valentzian Bilboko taldeak Bartzelonaren aurka jokatuko duen Kopa finalerako bi sarrera. Saridunak Juan Mari Sarasua ea Mari Carmen Salas izan dira. Peñako kide Felix Irizarrek esan digu Elgetatik zortzi lagun joango direla Kopako finala ikustera Valentziara.

**NEKAZARITZA** > ARAMAIOKO BASERRITARREN ELKARTEA

# Arbel kooperatiba bihurtzea erabaki dute bazkideek

Elkartearen eguneroko lanean ez du eraginik izango aurrerantzean kooperatiba izateak

Gaur egun, 88 bazkide ditu Arbelek eta haren jarduera nagusia da pentsua ekoiztea

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

1979. urtean sortu zen Aramaioko Baserritarren Elkartea (Arbel) eta gaur egun 88 bazkide ditu. Orain arte, eraldaketarako nekazaritza-sozietate moduan egin dute lan, baina kooperatiba izatera pasako dira laster. Oraindik onartzeke dago erabakia, baina datorren batzar nagusian onartuko dute.

Jose Luis Lasaga Arbeleko presidentea da eta hark azaldu digu kooperatiba izateak ez duela aldaketarik ekarriko elkartearen lanean: "Gure funtzionamenduan ez du aldaketarik ekarriko. Erabaki honek dirulaguntzekin du zerikusia. Izan ere, konturatu gara kooperatiba izanda administrazioengandik laguntza gehiago jasotzen direla. Eusko Jaurlaritzak edo Diputazioak ateratzen dituen programa askotan puntu gehiago ematen dituzte kooperatiba izanez gero. Hori aprobetxatu behar dugula uste dugu".

Arbelen jarduera nagusia pentsua ekoiztea da. Okeletarako ganaduarendako pentsua egiten dute nagusiki, baina ardiendako eta oiloendako ere egiten dute pentsua. Sorreratik, elkartearen helburu nagusia izan da kalitatezko pentsua ekoiztea, eta prezio onean, pentsua banaka erostea oso garesti ateratzen zaieeta baserritarrei.



Aramaioko Baserritarren Elkartearen pabiloia, barrutik. ARRITXU BARRUSO

Arriola auzorako bidean daukate pabilioia, eta bertan bi pertsonak egiten dute lan. Pentsuaren banaketa ere eurek egiten dute zuzenean baserrietara. Horretarako, kamioi bat eta furgoneta bat daukate.

**BASERRITARREI LAGUNTZA**

Arbelen beste helburu nagusia da baserritarrei bultzadatxo bat ematea. "Baserritarrei laguntzea da gure asmoa, eta bereziki nekazaritzan hasi berriak direnei, gutxi batzuk badira ere. Makinak elkarrekin erosteak, adibidez, asko lagundu dezake, oso garestiak dira-eta", azaldu du Arbeleko presidenteak.

**Julian Untzueta** > Arbeleko bazkidea

## "Herritarren babes osoa izan genuen Arbelen sorreran"

**A.B.** > ARAMAIO

**Julian Untzueta Arbelen sorreran parte hartu zuen baserritarretako bat da. Elkartearen ibilbidearen inguruan hitz egin digu.**

**Zer dela-eta baserritarren elkarte bat sortzeko ideia?**

Ez geunden gustura merkatuan lortzen genuen pentsuaren kalitatearekin. Gainera, oso garestia zen. Hori horrela, sei baserritar elkartu ginen eta erabaki genuen guk geuk ekoiztea pentsua. Horrela, artekaririk ez zen egongo.

**Nola gogoratzen dituzu hasierako urte haiek?**

Ilusio handiarekin hasi genuen proiektua. Gainera, herritarren babesa jaso genuen hasiera-hasieratik. Gure ideia aurkezteko bilera egin genuen eta baserritar gehienek bat egin zuten gurekin. 98 bazkide izan ginen Arbelen sorreran.

**Nola lortu zenuten proiektua gauzatzeko dirua?**

Ba, zorionez ez genuen arazo handirik izan. Diputaziotik lortu genuen ia diru guztia, eta, zentzu horretan, zorte handia izan genuen. Gainera, esan beharra dago 30 urte hauetan ez dugula apenas dirurik ipini.



GOIENKARIA

> ELKARRETARATZEA

### Maiatzaren 11n Jon Agirrek 28 urte beteko ditu espetxean

Aramaioko Presoen Lagunek elkarretaratzea deitu dute maiatzaren 11rako, astelehena. 19:00etan herriko plazan elkartuko dira Jon Agirreren askatasuna eskatzeko. Izan ere, egun horretan 28 urte beteko dira Jon Agirre atxilotu eta espetxeratu zutela. Maiatzaren 16an, bestetik, manifestazioa egingo dute Arrasaten, 18:30ean Herriko Plazatik abiatuta.

> OHARRA

### Udaletxeko bulegoak itxita egongo dira eguen eta barikuan

Udaletxeko bulegoak jendearendako itxita egongo dira datorren asteko eguenean eta egubakoitzean, hilak 14 eta 15, egun osoan, bulegoak berrantolatu egin behar dituztelako. Edozelan ere, udaletxeko telefonoari (945 44 50 16) erantzungo diote. Udaletxeko arduradunek gomendatzen dute egun horietan han presazko tramiterik egin behar duenak dei egin dezala.

> HITZARMENA

### Sastiña ermita Udalaren esku geratu da 30 urterako

Sastiña ermita Arabako Gotzaintzarena da, azken urteotan Udalak erabili duen arren. Udal Gobernuak eraikinaren egoera zehaztu eta argi utzi nahi zuen. Hori horrela, hitzarmena sinatu du Arabako Gotzaintzarekin. Akordio horren arabera, Aramaioko Udalaren eskuetan geratuko da ermitaren erabilera datozen 30 urteetan.

Unzueta sagardotegia



sagardoa txotxetik • sagardotegiko menua • karta

eguneko menua • ospakizunak • enpresako bazkariak

Zabola z/g. Aramaio Tel.: 945 44 50 95


Gatzagako neska-mutikoak iaz, uztailean, San Fermin eguna ospatzen, udaleku irekietan. M.A.

**AISIALDIA** > UDALEKUAK

# Uztaileko udalekuak gertatzen hasi da Gurel eta izenemate epea zabalik dago

Ume kopurua zehazten joateko zabaldu dute izenematea, eta Labidean egin behar da

Ekainean Landetara egingo dute irteera, eta lehenbailehen eman behar da izena

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Gurel guraso elkarteko kideak uztaileko udaleku irekiak gertatzen hasita daude. Maiatza aurrera doa eta uztaila ailegatu aurretik udalekuei dagozkien kontu guztiak lotuta izan gura dituzte.

Hori horrela, udalekuetan izena emateko epea zabaldu dute astean. Izan ere, zenbat ume izango diren zehaztu gura dute lehenengo, ume horiek zenbat begirale beharko dituzten jakiteko gero. Gainera, badakite gaztetxo batzuk kanpoko udalekuetara joango direla uztailean, baina ez dakite herrikoetan parte hartuko duten edo ez.

Izenemate epea zabalik dago aste honetatik aurrera eta Labidea dendan egin behar dute interesatuek. Gurelek ez du jarri baldintzarik izena emateko, ezta adinari dagokionez ere, urtero legez, umeen adin tartearen araberako ekintzak antolatuko dituzte-eta gero. Herriko udaleku irekiak uztailaren 6tik 17ra izango dira aurten: uztaileko bigarren eta hirugarren asteak, hain zuzen.

**HERRIKO BEGIRALEAK**

Udalekuetarako begiraleak ere behar dituzte, umeekin egon eta ekintzak antolatzeko. Aurten –inoiz ez bezala– herriko gazteak aurkeztu dira lan horretarako, bost gazte, eta orain, hautaketa egin beharko dute antolatzaileek. Zenbat ume izango diren jakinda, bi edo hiru begirale beharko dituzten zehaztuko dute. Hautaketa hori egiteko, gainera, uztaileko bi asteotarako ekitaldien programa aurkezteko eskatu diete begirale izan gure duten bost gazteei: "Beste urte batzuetan begiraleak izendatu izan ditugu lehenengo, eta gero, ekitaldien programa egiteko eskatu, aukera bakarra izan ohi dugulako. Oraingoan, baina, aurretik eskatu diegu programa, eta horren arabera egingo dugu hautaketa", jakinarazi du Gurel elkarteko idazkari Aitziber Gorosabelek.

Azken urteotan Aretxabaletako gazteak ibili dira begirale lanetan Gatzagan. Horregatik pozik daude Gureleko kideak, aurten herriko begiraleak izango dituztelako Gatzagako umeek. Seguru asko herriko udaleku irekietan ibilitakoak izango dira gazte horiek eta ondo baino hobeto jakingo dute zein ekintza dituzten gustuko umeek.

EKAINEKO IRTEERA

## Landetara joateko izenematea, bukatzear

Uztaila baino lehen, ekainerako irteera antolatu dute Gureleko kideek Landetara (Frantzia). Aste bukaera pasatzera joango dira ekainaren 12tik 14ra bitartean, eta, lekua lehenbailehen hartzeko, jakin gura dute zenbat lagun joango diren Gatzagatik. Hala, bada, izenemate epea zabalik izan dute azken asteotan eta dagoeneko animatu dira familia batzuk. Izenemate epea bukatzear dago; hortaz, interesatuak Labidea dendatik pasa daitezela lehenbailehen. 30 euro aurreratu behar dituzte.

Akitaniako Messanges herrian dagoen Le Vieux Port kanpinera joateko asmoa dute, bungalowetara. Hondartza alboan dago kanpina eta bertako paisaiarekin gozatzeko asmoa daukate.

**LANAK** > SANTA KOLUNBA

# Santa Kolunbako teilatua konpontzen dabiltza asteotan

Eskoriatzako Razkin enpresa dabil lanak egiten, eta zortzi astean bukatuko dituzte

**M.A.** > LEINTZ GATZAGA

Apirilaren 27an hasi zituzten Santa Kolunba ermitako lanak Eskoriatzako Razkin eraikuntza enpresako langileek. Espainiako Gobernuak emandako dirulaguntzaren bitartez dabiltza konpontzen ermita –halaxe dio aurrean jarritako argibide-taulak–, baina, 44.000 euro agindu dituenez, lehen fasea bakarrik egin ahal izango dute. Hortaz, teilatua konpondukо diote eta beste txukunketaren bat egin inguruan, baina askoz gehiagorik ez. Zortzi astean bukatuko dituztela lanok iragarri dute, ekainaren bukaera ingururako.

**INFORMAZIOGUNE**

Elizak urte hasieran eman zion Udalari Santa Kolunbaren izenean egindako ermita, Dorletara bideko zubi ondoan dagoena, hain zuzen. Ermitak ez dauka santuen irudirik orain, baina barruan aldaretxo bat dauka eta sasoi baten bi San Antonio zeuden. Udalaren asmoa da ermita hori Eugenio Otsoa gatz museoko informaziogune eta sarrera bihurtzea. Bisitariak hartuko lituzkete bertan eta handik hasiko gatz museoaren bisita.

Asmo horrek itxaron egin beharko du oraingoz, bigarren faseko lanak egin arte, behintzat, eta horiek zehaztu barik daude.


Santa Kolunbako ermitaren teilatua konpontzen dabiltza. MIRARI ALTUBE




Aretxabaletako taldekideak, martitzeneko entrenamendu saioan, domekako partidua prestatzen hasi aurretik; garaipena dute buruan, baina ez dute igoerarekin itsutzeko asmorik. XABIER URTZELAI

**FUTBOLA** > PREFERENTEA

# Matematikoki, Aretxabaleta domekan hirugarren mailako taldea izan daiteke

Horretarako, UDAk Mundarrori irabazi egin behar dio eta, gainera, Hernanik eta Tolosak ezin dute irabazi

**XABIER URTZELAI** > ARETXABALETA

Denboraldi osoan egindako lanaren ondoren, Aretxabaleta (64) ezin hobeto iritsi da denboraldiko azken txanpara. Lau jardunaldi geratzen dira liga amaitzeko, 12 puntu daude jokoan, eta UDAk zazpi puntuko aldea dauka.

Hala, zenbakiak dagoeneko hasi dira *kantuan,* eta, karanbolak direla-eta, asteburuan UDA hirugarren mailako talde bihur liteke. Horretarako, UDAk irabazi egin behar du domekan (16:30), Aloñak (53) Hernani (57) mendean hartu –berdinduz gero Hernanik oraindik izango luke UDA harrapatzeko aukerarik, gol abantaila aldeko dute-eta–. Eta hirugarren baldintza da Tolosak (55) Euskaldunari (32) ez irabaztea.

Hala, lau jardunaldiren faltan, Ibarra futbol zelaian inork ez du gura *otsoaren larrua ehizatu aurretik saldu*, baina urtean zehar UDAko zenbakiek izan duten logikari jarraituta, helburua lortzeko ez dago beldurrik: Aretxabaletak azken bederatzi partiduak irabazi ditu, eta denboraldi osoan sei partidu baino ez ditu galdu. Gainera, gol gehien egin dituen taldea ez bada ere (49), duda barik txapelketa osoko defentsako lan biribilena egin du, eta, neurri handian, horri esker dago dagoen tokian (24 gol bakarrik jaso ditu taldeak): "Baina oraindik ez dugu igoeraren gainean berba egin gura. Gu gurera, orain arte ibili garen moduan. Izan ere, futbolean gauza asko ikusi ditugu eta liga ez da amaitu". Igor Gordobilen berbak dira, aste barruan, normala den moduan euforia orori eutsi guran.

**ALOÑA, HERNANIRA**

Aurreratu moduan, UDA asteburuan izan daiteke hirugarren mailako talde. Horretarako, zeharka bada ere joan den astean Mondrako (32) mutilek egindako *fabore* bera egin beharko dute orain Aloñakoek (53); hau da, Hernaniri garaipena galarazi. Zapatuan, Aloñako mutilak erabat motibatuta irtengo dira Zubipe futbol zelaira (16:30). Eta ez inori *faborea* egitearren, ezta gutxiago ere. Izan ere, Aloñak inori begira egon barik helburu garbia du: hirugarren mailara igotzeko promozioa ahalbidetzen duen bigarren postua eskuratzea.

Orain Hernani dago bigarren, baina bi taldeen artean lau puntuko aldea baino ez dago. Kontutan izan behar da, baina, bigarren izateko Aloñak borroka-lagun izango dituela Tolosa (55), Pasaia (54) eta Real Union (53).

**MONDRAK, TRINTXERPEN**

Mondra beste borroka batean dabil, atzekoak saihesteko lehian. *Harmailatik* saioan Azkargortak onartu moduan, bihar Pasai Antxon izango duten partidua baino ez dute buruan (17.00): "Ez dugu etxean jokatzeko ditugun partiduetan pentsatu nahi. Orain Trintxerpe baino ez dugu buruan". Joan den astean egin zuen Mondrak ligako partidu biribilena, zer eta bigarrenaren kontra; eta gehien behar dutenean.



Mondra, Arizmendiren kontrako partiduan, Almenen.

## Emakumezkoen Gipuzkoako txapelketa jokoan

Emakumezkoen Gipuzkoako txapelketa egongo da jokoan bihar, zapatua (18:00), Bergarako Ipintza futbol zelaian. Igoera faseko lehenengo multzoan Soraluze sailkatu da, 32 puntu eskuratuta –Bergarako hainbat jokalari daude talde horretan jokatzen, desagertuta dagoen BTLS taldetik Soraluzera joandakoak–. Eta bigarren multzoan Mondrako neskak izan dira onenak, 33 puntu batuta. Hori horrela, bi multzoetako talde onenek jokatuko dute bihar, Gipuzkoako txapeldun nor den erabakiko den partiduan.

**SASKIBALOIA** > LAUKO FINALA

# Eskoriatzak talde gogorrenaren aurka hasiko du lauko finala bihar, zapatua

Intxaurtxuetan jokatuko dute asteburuan lauko finala; bihar (18:00), Eskoriatzak Erroibide Irun izango du aurrean, ligako talde indartsuena




Joan den astean Eskoriatzako neskek lanak izan zituzten Erroibide Irun geratzeko. J.A.

**XABIER URTZELAI** > BERGARA
Liga txapelketa amaituta, asteburuan Intxaurtxuetan jokatuko dute aurtengo lauko finala, bigarren mailarako txartela emango duen fase erabakigarria.

Eskoriatzako neskak etxeko zaleen aurrean jokatzeak ematen duen motibazioarekin kantxaratuko dira bihar, eta, egia esateko, dena beharko dute, aurrean ligako talde indartsuena izango dute-eta: "Kanporaketa zaila dugu, ondo dakigu hori, joan den astean ere talde horren kontra jokatu genuelako (38-48). Talde oso beteranoa da, jokalari ia guztiek bigarren mailan jokatu izan dute, eta, hori gutxi balitz, Hondarribia taldetik egin berri duten azken fitxaketak talde horrek zuen gabezia bakarra bete du: 37 urteko joko antolatzailea da, eta joan den astean erakustaldia egin zuen Eskoriatzan", adierazi du Fernando Raso entrenatzaileak.

**BADAGO AUKERARIK**
Erronka gogorra badute ere, Raso konbentzituta dago Eskoriatzak baduela aurrera egiteko aukerarik: "Ondo jokatzen badute zaila izango da, baina makal jarduten badute eta guk dakigun moduan jokatu, aurrera egiteko aukerak ditugula uste dut". Lan horretan, Intxaurtxuetako harmailetan batuko diren zaleek zeresan handia izango dute.

20:00etan, berriz, Añorga eta Cafes Aitona taldeek bigarren kanporaketa jokatuko dute: "Ligan elkarren kontra jokatu dutenean Cafes Aitonak birritan irabazi du, baina partidu batera kontuz ibili behar da Añorgarekin, horrelako kanporaketetan arriskutsua da-eta".

Biharko kanporaketan aurrera egiten duten taldeek domeka eguerdian jokatuko dute finala.

## Lauko finaleko ordutegiak

**9, zapatua**
18:00 Eskoriatza-Erroibide Irun
20:00 Añorga-Cafes Aitona

**10, domeka**
12:00 Finala.




FAGOR sukaldeko altzariak %25eko **deskontua** 4 modelotan.

iKER

**SUKALDEAK:** ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

**PILOTA** > HERRI ARTEKO TXAPELKETA

# Kanporaketari buelta emateko asmoz, Bergara eta Arrasate

Bergarako mutilek Andoaingo pilotariak hartuko dituzte gaur Udal Pilotalekuan eta Arrasatek Ataunen jokatuko du



Beñat Arabaolatza sakea egiten, Uarkapen, Ataunen kontra. J.A.

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Bergarak eta Arrasatek kanporaketari buelta emateko asmoz jokatuko dute gaur Andoainen eta Ataunen kontra. Bergararrek etxean jokatuko dute, 20:00etan, eta Andoainen eskuratutako 2-1ekoari buelta ematea izango da helburua. Aurrera egiteko mahoneroek derrigor irabazi behar dute kadete edota gazte mailako partiduetako bat, eta noski, Andoainen egin zuten moduan, seniorrek neurria eman –horrekin batera, ororrean kontrarioek baino zazpi tanto gehiago egin behar dituzte–.

Kadetetan Gallastegik eta Beñat Resustak jokatuko dute eta gazte mailan Haritz Resustak eta Irizarrek osatuko dute bikotea. Seniorretan, azkenik, aldaketa bat izango da, Eneko Mugurutzak Jon Larrañaga ordezkatuko du- eta, eta atzelari lanetan Ander Mugurutzak jardun beharko du, nahiz eta aurrelaria den.

**ARRASATEK ERE, MALDAN GORA**

Arrasateko pilotariek ere maldan gora dute kanporaketa (gaur, 19:00, Ataun), Uarkapen ez zuten-eta emaitza onik eskuratu (1-2): "Zaila izango da, Ataungo Arratibel eta Albisu maila oso oneko pilotariak dira-eta", adierazi du Mauri Zubillagak. Kadetetan Arabaolatzak eta Etxagibelek jokatuko dute, gazteetan Agirregabiriak eta Bolinagak eta seniorretan Lazkanok eta Agirrek osatuko dute bikotea; Uribarren ez da errekuperatu.

## asteburuko hitzorduak

### FUTBOLA

**Bigarren maila**
Alicante-Reala
Domeka. 18:00. Alicante.
Eibar-Hercules
Zapatua. 18:30. Ipurua.

**Gazte mailako Euskal Kopa**
Cult. Durango-Aretxabaleta
Zapatua. 16:00. Durango.

**Preferente maila**
Hernani-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Zubipe.
Trintxerpe-Mondra
Zapatua. 17:00. Pasai Antxo.
Aretxabaleta-Mundarro
Domeka. 16:30. Ibarra.

**Lehen erregionala**
Tolosa-Aretxabaleta
Zapatua. 17:00. Usabal.
Mondra-BTLS
Domeka. 12:00. Mojategi.
Lazkao-Antzuola
Zapatua. 16:30. Arizti Handi.
Bergara-Lagun Onak
Zapatua. 16:30. Agorrosin.

**Bigarren erregion. Igoera**
Union Txiki-Bergara
Domekan. 15:30. Errenteria.

**Ohorezko mailako gazteak, Kopa eta jaitsiera**
Aloña Mendi-Beti Gazte
Zapatua. 17:30. Azkoagain.

**Lehen mailako gazteak, igoera fasea**
Mondra-Añorga
Zapatua. 16:00. Mojategi.

**Gazteak, kopa**
Aretxab. Arizmendi-Amaroz
Zapatua. 16:30. Ibarra.

**Ohorezko mailako kadeteak, igoera fasea**
Bergara-Aretxab.Arizmendi
Domeka. 12:00. Ipintza.

**Ohorezko mailako kadeteak. Kopa eta jaitsi.**
Aloña Mendi-Elgoibar
Zapatua. 15:30. Azkoagain.
Arrasate-Añorga
Zapatua. 18:00. Mojategi.

**Lehenengo kadeteak, igoera**
Aretxabaleta-Usurbil
Zapatua. 10:15. Ibarra.

**Emakumezkoen igoera fasea**
Mondra-Soraluce
Zapatua. 18:00. Ipintza.

### SASKIBALOIA

**Lehenengo maila. Jaitsiera fasea**
MU-UPNA
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**Emakumezko seniorrak, lauko finala**
Eskoriatza-Erroibide Irun
Zapatua. 18:00. Intxaurtxu.
Añorga-Cafes Aitona
Zapatua. 20:00. Intxaurtxu.
Finala
Domeka. 12:00. Intxaurtxu.

**Gipuzkoako seniorrak**
Aloña mendi-Santo Tomas
Zapatua. 17:45. Zubikoa.
Astigarraga-MU
Zapatua. 16:00. Astigarraga.
Tximista-Soraluce BKE
Zapatua. 16:00. Legazpia.
Ordizia-Aloña Mendi
Gaur. 20:00. Ordizia.

**Gipuzkoako gazteak, gizonezkoak**
Transbretaña-Aloña Mendi
Zapatua. 12:35. Mariaren lag.

**Gipuzkoako gazteak, emakumezkoak**
Soraluce BKE-Aluminios Al.
Zapatua. 18:00. Mariaren.

### ESKUBALOIA

**Gipuzkoako Kopa. Senior emakumezkoak**
Verkol Aloña-Tecnifuelle
Gaur. 20:15. Zubikoa.

**Gipuzkoako Kopa. Senior gizonezkoak**
Arrasate-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Musakola.

**Gipuzkoako Kopa. Gazte gizonezkoak**
Arrasat Chap.-Donibane
Zapatua. 17:30. Musakola.

**Gipuzkoako Kopa. Kadete gizonezkoak**
Arrate-Bergara
Zapatua. 12:00. Labegaraie.
Irurena-Bergara
Domeka. 10:30. Ordizia.
Berezao Aloña-Aldaketa
Zapatua. 17:30. Zubikoa.

**Gipuzkoako Kopa. Gazte emakumezkoak**
Bera Bera-Citroen Chapime
Domeka. 12:00. Donostia.

**Gipuzkoako Kopa. Kadete emakumezkoak**
Urnietako-Bergara
Zapatua. 16:00. Urnieta.
Verkol Aloña-Egia Servi
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

### PILOTA

**Herri Arteko Txapelketa**
Bergara-Andoain
Gaur. 20:00. Udal Pilotalek.


Debagoieneko
**PROFESIONAL LIBERALAK**



**ABOKATUAK**

**BERNARDINO MAIZTEGI**
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**
Bergara / Irizar 2
T: 943 76 03 35

**LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER**
Arrasate / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

**RAFAEL ARANBURU**
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL**
Aretxabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

**AHOLKULARITZAK**

**AIERDI AHOLKULARITZA**
Bergara / Artekale 1
T: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
aretxabaleta / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

**ARKITEKTO TEKNIKOAK**

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

**EKONOMISTAK**

**ARROBI / ANDONI URIBE ETXEBARRIA**
ESKORIATZA / Hidalga kalea 22, behea
T: 943 533 888
F: 943 533 865
uribe.arrobi@euskalnet.net

**ETXE ADMINISTRAZIOAK**

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

**PROKURADOREAK**

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.



**> MUSIKA**
Musikegunak Oñatin: lehen hitzordua domekan **> 38**



**> MAGIA MOSTRA**
Puntako magoak izango ditugu astebukaeran Elgetan **> 39**

**> SANTI BERNAL**
Areto futbol taldeko entrenatzailea da Santi Bernal 27 urteko oñatiarra. Zahor lantegian dihardu eta asteburuetan zerbitzari dabil **> 42**



# Lori Meyers taldearen eskutik pop-rock gaua bihar Jamen

Pop-rock-indie estiloa jorratzen duen talde ezagunak joko du bihar Bergarako Jam aretoan, 20:30ean hasita

Emanaldi osatua izango da: Lori Meyers taldearen aurretik Elastic Band proiektu kuriosoak joko du



Zuzeneko indartsu eta abestietako hitz zuzen eta itsaskorrengatik egin da famatu Lori Meyers talde granadarra. HEINEKEN MUSIC SELECTOR

**JOKIN BEREZIARTUA** > BERGARA

Bergarako Jam aretoa puntako emanaldi baten lekuko izango da aste bukaeran. Oraingoan pop-rockaren txanda da, eta gurean estilo hori gustuko dutenek Espainiako Estatuan aurki dezaketen eskaintzarik interesgarriena izango dute bihar, etxean bertan. Izan ere, egun, Lori Meyers Estatuko puntako pop-rock taldeen artean dago. Biran datoz Bergarara, Heineken Music Selector egitasmoaren barruan antolatu den zuzenekoan. Euren aurretik Granadatik datorren beste proposamen interesgarri eta ezberdin bat igoko da agertokira: Elastic Band. Aretoko ateak 20:30ean zabalduko dituzte eta sarrerak 12 euro balio du aurrez eta 15 euro leihatilan bertan.

**HAMARKADA BAT LANEAN IRMO**

1998. urtean jaio zen Lori Meyers, Granadako Loja hirian. Laukote moduan hasi ziren eta egun ere laukote moduan jarraitzen dute. Aldaketa gutxi izan ditu taldeak hamarkada luzean zehar: Julian Mendezek baxuan utzitako hutsunea bete zuen Sergio Martinek –gitarra ere jotzen du–. Hortaz, hasierako taldearen oinarria ez da aldatu. Egun, hauek dira taldekideak: taldeko buru Antonio Lopez *Noni* (gitarra eta ahotsa), Alejandro Mendez (gitarra), Sergio Martin (gitarra eta baxua) eta Alfredo Nuñez (bateria).

Taldearen bilakaera ukaezina izan da hamar urte pasatxotan: jaioterrian ia ezezagunak izatetik, Estatuko pop musikaren elitera. Musika munduan arrakasta lortzeko taldearen jardunaz haratago dauden beste hainbat faktore izan ohi dira, eta Lori Meyersek faktoreok alde izan dituela esan behar da, euren eskuetan egon dena ezin hobeto egin baitute. Izan ere, irmo egin dute lan gustuko duten pop-rock-indie –pop independientea– kantuak egiten. Horrek eta laukotearen bereizgarri diren zuzeneko kementsuek eta publikoa harrapatzen duten hitz itsaskor eta zuzenek ekarri diete arrakasta.

**'CRONOLÁNEA', ABIAPUNTU BERRIA**

2008ko martxoaren 11 aukeratu zuen Lori Meyers taldeak azken lana argitaratzeko: *Cronolánea*. Euskal Herrian aurkeztu zuten aipatu lana; Bilboko Kafe antzokian, esaterako.

Abiapuntu berri bat da euren hirugarren albuma –*Viaje de estudios* (2004) eta *Hostal Pimodán* (2005 eta 2006an, berrargitalpena) diskoen ostean–. Bi urteko etenaldia hartu zuten, adierazi dutenez, "deskantsatzen, bizitza soziala errekuperatzen, etorkizunean pentsatzen eta konposatzen".

Hala, *Cronolánea* bi urte horien emaitza da. 13 kantuz osatua, thereminak, teklatuak eta melodia ederrak dira diskoaren bereizgarri. Gainera, taldearen eragile izan diren King Crimson, Sufjan Stevens eta Flaming Lips taldeei erreferentzia ez da falta; eta ereserki moduan sendotu egin dira, besteak beste, *Copa para dos*, *Cúmulo de propósitos* eta *Luces de neón* abestiak. Egina dago, hortaz, gurean ezberdina den hitzordurako gonbita.

HASIERAKO TALDEA

## Elastic Band, ohiko taldeen itxura hartzea ukatuz

Lori Meyersek goi mailako taldea izango du aurretik: Elastic Band. Haiek ere Granadatik datoz. Proiektu kuriosoa da Pablo Roman konposatzaile eta abeslariak gidatzen duena. Euren lehen lana 2008ko azaroan kaleratu zuten, *Boogie beach days* izenburupean. Euren zeinu bereizgarria -beste taldeetatik bereizten dituena- samplers, loops eta mandolina elektrikoaren erabileran dago. Diskoa aurkeztu zutenean hauxe adierazi zuten: "Ez dugu gitarra, baxu eta bateriaz osatutako ohiko taldea izan nahi".



Elastic Band, diskoaren promoziorako argazki batean. GOIENKARIA



Argazkian, Ampurdako Ganbera Orkestrako kideak. GOIENKARIA

**MUSIKA** > OÑATIKO UDALAK ETA FORU ALDUNDIAK ANTOLATUTA

# Domeketan, Musikegunak Oñatin

Askotariko musika eskainiko dute maiatzeko lau domekatan Santa Ana antzokian, 19:30ean; sarrerak 6 eurotan salduko dituzte kultura etxean

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI
Oñatiko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta, 31. Musikegunak hasiko dituzte domekan. Hain zuzen ere, maiatzeko lau domekatan musika izango da protagonista Santa Ana antzokian. Emanaldi guztiak 19:30ean hasiko dituzte eta sarrerak aldez aurretik eros daitezke kultura etxean, sei eurotan.

Lehen emanaldia Iñaki Alberdi eta Iñigo Aizpiolea akordeoilariek egingo dute. Bost pieza eskainiko dituzte. Jaialdi askotan parte hartu dute bikote moduan eta 1996. urtean *Coleccion nº 8 Juventudes Musicales de España* diskoa grabatu zuten.

### HARI-LAUKOTEA

Hilaren 17an Ampurdako (Girona) Ganbera Orkestra izango da protagonista. Besteak beste, Tchaikovskiren eta Sarasateren piezak eskainiko dituzte. Ganbera Orkestraren errepertorioa musika barrokotik garaikidera doa, eta arreta berezia jartzen dute Kataluniako konpositoreen obretan. 1992an Musikako Sari Nazionala eskuratu zuten.

Idoan hari-laukotea igoko da oholtzara hilaren 24an. Maialen Rezabalek, Asier Arabaolatzak, Jon Larrazek eta Amaia Zipitriak osatzen dute laukotea. Laurak hari-tresnen eta pianoaren eskola gorenetik datoz, eta soinu eta interpretazio teknika handiak lortu dituzte.

Azken kontzertua, hilaren 31n, Andeka Gorrotxategi tenoreak eta Josu Okiñena pianojotzaileak egingo dute. Gorrotxategik Irungo Luis Mariano lehiaketa irabazi zuen 2007an. Okiñena Donostiako Orfeoiko kide izan da.

## Musikegunetako egitaraua

**Maiatzaren 10a**
19:30 Iñaki Alberdi eta Iñigo Aizpiolea piano-jotzaileak. Bost pieza eskainiko dituzte.

**Maiatzaren 17a**
19:30 Ampurdako Ganbera Orkestra.

**Maiatzaren 24a**
19:30 Idoan hari-laukotea.

**Maiatzaren 31**
19:30 Andeka Gorrotxategi tenorea eta Josu Okiñena piano-jotzailea.

**MUSIKA**

# Joxe Mari Anduaga kantautorea Arrasaten

Amaia antzokiko 'hall'-ean egingo du emanaldia, bihar, 20:00etan

**M.B.** > ARRASATE
Joxe Mari Anduaga kantautoreak kontzertua egingo du bihar Arrasateko Amaia antzokiko *hall*-ean, 20:00etan.

Bakarlari oñatiarrak *Garunak dantzan* diskoaren aurkezpena egingo du. Era berean, lehen diskoko kantuak eskainiko ditu. Joxe Mari Anduagarekin taula gainera igoko dira Igor Sala eta Jon Gardoki arrasatearrak eta Iñigo Agirre tolosarra.

### HURBILTASUNA

Entzuleekin hurbiltasuna lortzeko asmoz, mahaiak eta kandelak jarriko ditu. "Kantautoreen erronka da entzuleengana hurbiltzea. Giro goxoa eta hurbila sortu gura dugu. Entzuleak oso gertu egon daitezen mahaiak jarriko ditugu", esan digu.




ALMACENES ARRASATE
FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
**Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.**

Eska ezazu sukalde eta horma-armairuen aurrekontua konpromisorik gabe!



1000 b/min
6 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA ALF-1106
310 €
-105 € (Renove plana)
205 €



2 URTE BERMEA
1000 b/min
7 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA AWO - 8011
305 €
-105 € (Renove plana)
200 €

pirolisis labea HP-7660 X + 3 fokoko indukzioa VI-3 TS









Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13
Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

**MAGIA** > V. MAGIA MOSTRA

# Puntako magoak izango dira egunotan Elgetan

Gaur, egubakoitza, Gaetan Bloom frantziar magoak erakustaldia egingo du Espaloian, 22:30ean

**MIRIAN BITERI** > ELGETA

Magia Mostraren edizio berria izango da gaurtik domekara bitartean Elgetan. Espaloian puntako magoak ikusteko bi eguneko bonuak salgai daude, 21 eurotan bazkideendako eta 28 eurotan bazkide ez direnendako.

Aurtengo Magia Mostrari Gaetan Bloom frantziarrak emango dio hasiera gaur, 22:30ean. Magia egiten duen mago originaletarikoa da, sortzailea. Dituen egiteko moduek eta efektuek, publikoaren txalo zaparradak eragiteaz gain, gainontzeko magoen arreta bereganatzen dute. Urte askoan Parisko Crazy Horse kabaretean eta Las Vegasen ibili da lanean. Bloom ikusteko sarrerak hamabost euro balio du; hamabi, bazkide direnendako.

Bihar, ordu berean, magia gala egongo da, Leongo Juan Mayoral, Txinako Jane, Bartzelonako Xabi Tapias, Frantziako Sebastien Dethise eta Madrilgo Karimen eskutik. Gala horretarako sarrera hamasei edo hamabi eurokoa izango da. Eta gala amaitzen denean, ateak zabaldu eta magia golfoa egongo da Espaloiko tabernan. Hori 01:30ean hasiko da.

**MAGIA KALERA DOMEKAN**

Domekan, azkenik, magia doan zabalduko da herriko kaleetara, 12:30ean. Modu horretan, domeka eguerdiari berebiziko kolorea eman nahi diote zenbait magok.



Gaur gauean Gaetan Bloom frantziarraren magiaz gozatuko dute Elgetako Espaloira joaten direnek. GOIENKARIA



Altube, 'Donostia Opera Prima' saria jasotzen. GOIENKARIA

**LITERATURA** > AURKEZPENA

## 'Ihes-Lerroak' nobela kaleratu du Xabier Altubek

Aretxabaletarrak 'Donostia opera prima' saria jaso zuen martxoan, nobela horrekin

**M.B.** > DONOSTIA

Xabier Altube aretxabaletarraren *Ihes-Lerroak* liburua dagoeneko Euskal Herriko liburu dendetan aurki daiteke. *Donostia opera prima* saria jaso duen nobelaren aurkezpena joan den eguaztenean egin zuten Donostian, Erein narratiba sariaren irabazle Joseba Gabilondoren *Apokalipsia guztioi erakutsia* lanarekin batera.

Idazle aretxabaletarrak maitasun istorioa kontatzen du. Xabier Altube berak azaltzen duenez, nobelak hiru pertsonaia nagusi ditu; tartean, Alice eta Olatz. Bata arrotza, urrutikoa, miresgarria hargatik. Bestea gertukoa, hurbilekoa, maitagarria, beraz. "Nobela honetako protagonista bataren eta bestearen artean mugitzen da. Mugimendu horrek eramaten du, esaterako, hiri batetik bestera. Eta bitarte horretan, Gasteiz eta Paue arteko bidean aurkituko du zerbait, beste hiri bat, iragan eta etorkizunaren artean aurkitzen den orainaldia, nor den esatera iritsiko ez den hizkuntza", dio.

**IZENBURUA**

Izenburuari dagokionez, Altuberen arabera, "idazlea ez da idazle idatzi aurretik, ezta idatzi ondoren ere. Idazlea idazle da tarteko mugan, idazketaren unean. Lerroak ihes egiten dion une horretan. Horregatik Ihes-Lerroak". Nobela Erein argitaletxeak atera du.

**MUNDUMIRA**

## Gertu pintura eta marrazki lehiaketa

**M.B.** > ESKORIATZA

Mundumira jaialdiak ikastetxeetarako antolatu duen marrazki eta pintura lehiaketan izena emateko epea gaur, egubakoitza, amaitzen da. Parte hartu gura dutenek Eskoriatzako kultura etxera eraman edo bidali beharko dituzte lanak, 13:00ak baino lehen. Lanekin batera, partaideek izen-abizenak, adina, helbidea eta telefono zenbakia aurkeztu behar dituzte.

Debagoieneko ikastetxeetako ikasleek taldeka izango dute lehiaketan parte hartzeko aukera. Horren harira, talde bakoitza lau kidez osatuta egon ahalko da, gehienez. Bi maila daude: 6 eta 9 urte bitartekoak eta 10 eta 12 artekoak, hain zuzen ere. Gaiari dagokionez, *Munduari bira* izango da; eta lanen tamaina, berriz, DIN-A3.

ULMA ULMA Hormigón Polímero, Koop. E
Oñati

**OHIKO BATZAR NAGUSIA**

**D E I A**

**Eguna:** 2009ko maiatzaren 15a.
**Ordua:** 15:30ean lehen deialdia eta16:00etan bigarrena.
**Tokia:** Santa Ana antzokia - Oñati.

**GAI ZERRENDA**

1. Aurreko akta onartzeari buruzko txostena eta Batzar Nagusi honen akta onartzeko bazkideak izendatzea.
2. 2008ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea, eta 2009ko gestio plana berrestea.
3. ULMA Taldeari buruzko txostena.
4. 2008ko ekitaldiko kontuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
5. Auditorea izendatzea.
6. Emaitzak banatzea.
7. Bihurketa faktoreari buruzko erabakia berrestea .
8. Heziketako eta Kooperatiba Sustapeneko eta interes publikoko beste xede batzuetarako ekarpenaren (H.K.S.E.) erabilera.
9. Egituraz gaindiko erakundeekin zerikusia duten gaiak.
10. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak.
11. Mendeko ekarpen finantzarioen jaulkipena.
12. Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
13. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea.
14. Galderak eta eskaerak.

*Oñati, 2009ko maiatza*

OHARRA: Bazkide guztiei gogorarazten zaie kontabilitate liburuak, emaitzak banatzeko proposamena eta kanpo auditoriak egindako gestio txostena egoitza sozialean eskura dituztela Batzar Nagusiaren epean aztertu ahal izateko.

COPRECI
COPRECI, KOOP. ELK.

**2009ko OHIKO BATZAR OROKORRERAKO DEIA**

Kontseilu Errektoreare erabakiz, Elkartearen Ohiko Batzar Orokorrera deitzen da. Batzarra, Gesalibarko Aita Menni Hospitalean, Areto Nagusian, egingo da 2009ko maiatzaren 15ean, 15:30ean lehen deia eta, kasua balitz, bigarrenean, 16:00etan, egun eta toki berean, hurrengo eguneko gai zerrendaren arabera:

**GAI ZERRENDA**

1. Aktak onartzeari buruzko txostena eta akordioa.
2. Memoria irakurtzea eta onartzea.
   2.1. 2008ko Gestioari buruzko akordioa.
   2.2. 2009ko Gestio Plana eta Plan Estrategikoetako politika eta estrategia orokorrak onartzea.
3. Mondragon Componentes eta Fagor Taldeari buruzko txostenak.
4. 2008ko Kontuen eta Balantzeen azterketa.
5. 2008ko Emaitzen banaketa.
6. Erregimen ekonomikoari buruzko xedapen estatutarioak.
7. 2009 ekitaldirako lan Aurrerakinen eta salbuespen neurrien inguruko erabakiak.
8. Kooperatibako Estatutu Sozialen 6, 18, 25, 27, 29, 33, 34, 48, 51, 52, 55, 56, 60 eta 61 artikuluak aldatzea*.
9. Kooperatibako Barne Erregelamenduaren 38, 39 eta 65 artikuluak aldatzea.
10. Heziketa eta Kooperatiba Sustapeneko Fondoa aplikatzeko irizpideak, 2/2005 Arauaren indarraldia zabaltzea.
11. Entitateen gaiak
    11.1. Mondragon
    11.2. Euskadiko Kutxa
    11.3. Lagun-Aro
12. Kontseilu Errektorearen jakinarazpenak: Fagor Taldearen Berregokitze eta Indartze Proiektua.
13. Kanpoko Auditoreak izendatzea.
14. Kontseilu Errektorea berritzea.
15. Kontseilu Soziala berritzea.
16. Galderak eta eskaerak.

*Kontseilu Errektoreko Idazkaria*
*Aretxabaletan, 2009ko apirilaren 23an*

*Bereziki jakinarazten da bazkide guztiek dutela Estatu Sozialei buruz proposatutako aldaketen testu osoa eta berorren txosten justifikatzailea egoitza sozialean aztertzeko eskubidea, eta dokumentu horiek dohainik eskuratu edo bidaltzekoa.

# Presta zaitez udarako



***ILARGI** umeen denda*
BERGARA
Ibargarai 14 – 943 08 29 65

Umeentzat eta haurdunentzat arropak eta puerikultura.



***JOLAS** opariak*
BERGARA
Barrenkale 27 • 943 76 46 48

EseOese jantziak eta osagarriak




***MARKELIÑE umeendako arropak***
BERGARA
Herrilagunak 6 • 943 76 05 24

Neurriak 0tik 14 urtera



***JIFH***
ARRASATE
Olarte 9 – 943 76 06 82

Neska eta mutilentzako arropa eta osagarriak




***KILIMA***
ARETXABALETA
Ilargi plaza 6 – 943 53 34 96

*Ume eta haurdunentzako arropak*



Santi Bernal > Areto futboleko entrenatzailea

# "Candelas hautatzaileak ditudan zalantzak argitzen laguntzen dit"

Santi Bernal oso lanpetuta ibiltzen da aste osoan zehar. Esan digu entrenatzaile moduan ez dela odol berokoa, baina "partidu batzuetan egoerak horrela eraginda asko berotu izan naiz eta harmailetan amaitu dut". Aitortu digu gehien gustatzen zaion txokolatea zuria dela eta zerbitzari lana "oso gustuko" duela, nahiz eta batzuetan nekatuta amaitzen duen.

JASONE ZABALA > OÑATI

**Santi Bernal 27 urteko oñatiarra herriko areto futboleko entrenatzailea da. Duela zortzi urte hasi zen lan horretan eta gustura dabilela esan digu; horretaz gain, Zahor lantegian ari da lanean eta baita zerbitzari lanetan ere asteburuetan; autoa gidatzea eta mendiko motorrean ibiltzean oso gustuko du.**

**Txokolatea derrigorrez gustatu behar, ezta?**

Bai, noski, gustuko dut; Zahorren egiten dut lan bonboiak egiten eta beste batzuetan kaxatan sartzen ditut; 2000. urtean sartu nintzen bertara lanera, eta ondoren bi urtean zehar mantentze modulua ikasi nuen, eta bertan jarraitzen dut.

**Areto futboleko entrenatzailea ere bazara; noiztik?**

Oso gustuko dut areto futbola; duela zortzi urte hasi nintzen entrenatzaile lanean eta orain arte bertan jarraitzen dut; gainera, nahiago dut entrenatzaile lanetan aritu jokatzen baino, gustukoago dut.

**Zer nahiago futbolean aritzeko, zelai handia ala areto futboleko kantxa? Zergatik?**

Egia esan, futbola gustuko dut, baina areto futbolak daukan bizitasuna handiagoa da, eta hori dut gustuko. Jokatzeko orduan ere biak dira desberdinak; areto futbolean kantxan jokatzeko teknika asko erabiltzen da, joko zelaia txikiagoa delako.

**Odol beroko entrenatzailea al zara?**

Nik nerbioak bare ditudala uste dut, baina partidu batzuetan egoerak horrela eraginda asko berotu izan naiz eta harmailetan amaitu dut, epaileak kaleratuta; hala eta guztiz ere, badakit nirekin ibili diren askok esango dutela odol berokoa naizela.

**Neska-mutikoak entrenatzen ere gustura ibiltzen zarela jakin dut.**

Azken denboraldian eskola kirolean gutxiago ibiltzen naiz, areto futbolean entrenatzaile lanaz gain zuzendaritzan ere banabilelako; baina azken zortzi urteetan buru-belarri aritu izan naiz neska-mutikoekin –oso ondo konpondu naiz haiekin–, astean zehar bi egunetan areto futboleko eskola kirola egiten eta zapatuetan partiduak jokatzen; beste askotan, berriz, epaile lanak egiten aritu naiz.









JASONE ZABALA

PERTSONALA

**Herria:** Oñati. **Adina:** 27 urte. **Ikasketak:** Mantentze modulua. **Zaletasunak:** Areto futbola eta automobilak gidatzea. **Bidaiatzeko leku bat?** Ameriketako Estatu Batuak. **Zer gorrotatzen duzu?** Gutxi batzuk aberasten direla langileen kontura. **Txokolate zuria ala beltza?** Zuria. **Areto futboleko jokalari gustukoena:** Borja, Inter Movistarreko jokalaria. **Biziorik?** Gazta eta irasagarra (menbrilloa) jatea. **Maniarik?** Burugogorra naizela, eta gauza bat egiten hasten banaiz, amaitu arte egon behar dut.

**Zeintzuk portatzen dira hobeto: neska-mutikoak ala nagusiagoak?**

Gazteago edo nagusiagoak izan, garrantzitsuena gogoa izatea da; baina, egia esan, ondoen portatzen direnak alebin eta infantil mailetako neska-mutikoak dira; kadete mailan daudenak ere ondo portatzen dira, eta adin edo maila horretatik aurrera daudenekin, berriz, gehiago egon behar da gainean entrenamendua ondo egiteko.

**Eta, horiekin guztiekin, oraindik denbora soberan duzu zerbitzari lanetan aritzeko.**

Aurtengo Gabonetan izango dira bost urte Ongi tabernan zerbitzari lanetan ari naizena; egia esan, gogorra egiten da batzuetan eta nekatuta amaitzen dut, baina oso gustura nago.

**Asteburuetan lagunekin egoteaz gain, entzun dut mendiko motorrarekin ibiltzea ere gustuko duzula?**

Duela urtebete, mendiko motorra erosi nuen; orain arte ez naiz askorik ibili, denbora faltagatik gehienbat , baina oso gustuko dut mendian zehar motorrarekin ibiltzea; errepidekoa baino gustukoagoa dut mendikoa.

**Jesus Candelas Espainiako areto futboleko selekzioko hautatzailea ere ezagutu duzu eta aholku batzuk eman eta zalantzak argitzen ere laguntzen dizu...**

Hura ikusi nuen lehen aldian areto futboleko entrenatzaile ikastaroan izan zen, eskola praktikoak ematen; egun hartan helbide elektroniko bat eman zidan edozein galdera edo zalantza galdetzeko, erantzungo zigula-eta; eta halaxe, nire zalantzak bidali nizkion. Jesus Candelasek edozein arazoren aurrean beti du konponbidea; hark esandako gauza asko kontuan hartu ditut nire taldea aurrera eramateko eta beste batzuk, berriz, gorde egiten ditut aurrerago irakasteko jokalariei.

**Krisi garai hauetan, zer eskatzen diozu etorkizunari?**

Zaila da eskatutakoa gero betetzea, baina eskatzea libre denez: osasuna guztiondako; lana guztiondako eta krisi egoera amaitu eta ekonomiak bere bide zuzena har dezala; eta noski, zailena, baina aukera hor dagoenez... Athleticek Kopako finala irabaztea eguaztenean.

# Nagusiendako tartea 'Goiena magazinea'-n laster

Kutxako Urrezko Zerbitzuak babestuta, nagusiei zuzendutako tartea 'Magazinea'-n

**GOIENKARIA** > ARRASATE
Nagusiei eskainitako *Zaharrak berri* saioak agur esango digu, baina agur horrekin batera ongietorria emango zaio *Goiena magazinea*-n nagusiei zuzendutako tarte bereziari. Kutxako Urrezko Zerbitzuak babestutako tartea izango da hori ere, eta bertan, osasunaz, aisialdiaz, nagusiek izaten dituzten kezkez eta haiei zuzendutako beste hainbat gairen gainean arituko dira.

*Zaharrak berri* saioan egin moduan, *Magazinea*-n ere Kutxako Urrezko Zerbitzuak babestutako zozketan parte hartzeko aukera izango dute zerbitzu horretako bazkideek. Nagusiei eskainitako eta Kutxako Urrezko Zerbitzuak babestutako saioa laster hasiko da GOITBn.

**GOITB, 'Magazinea'**
> Egunero, 19:45ean



Kutxak babestuko du nagusiei zuzendutako tartea. GOIENKARIA

## telebegi

**Edorta Arana**
'www.goiena.net/blogak/hamaika'

### Markak

Hainbat produktu, izan galletak ala jogurtak, jatorrizkoa duten markatik kanpo ez direla salgai jartzen dioten iragarkiak ugaritu dira. Krisiaren eraginez, jendeak produktu zuriak erosten ditu sarriago eta sistema kapitalistaren oinarrian dauden markek kolpea sentitu dute. Orain arte, telebista marken iragarkietatik bizi izan da. Baina, behera egin duenez publizitate-fakturazioak, mugimendu interesgarriak ekarri ditu. Lehena, TVEk mugatua izango duela publizitatearen presentzia. Bigarrena, legez, kanalak batzeko zeuden mugak desagertu egingo direla. Laster Cuatro eta Tele 5 ala A3 eta La Sextaren arteko bateratzeak etorriko dira, denontzako publizitaterik ez dagoela ikusita. Telebista kanalak ere markak dira eta gaur egun zaila egiten zaie hain ugaria den merkatuan bereiztea eta izaera propioa erakustea. Eskerrak, horretan, euskarazko kanalek abantaila dutela.

# Auzolan ekimena Arrasaten

**GOIENKARIA** > ARRASATE
Arrasateko Udalak badu Auzolan izeneko programa, beharrak dituztenei laneratzen laguntzeko abiarazitakoa. Bada, horren gaineko xehetasunak landuko dituzte irratian, astelehenean. Bestalde, Ekin elkarteak deialdi berezia egin die herritarrei, bereziki, Arrasaten bizi diren emakumezko euskaldunei. Deialdi horren zergatia ere aztertuko dute irratian asteleheneko albistegian.

**Arrasate Irratia, 'Albiste zerbitzuak'**
> Astelehenetik egubakoitzera 10:00etatik 11:00etara.



GOIENKARIA

# Futbola, pilota eta saskibaloia 'Harmailatik'-en

Aretxabaletako UDA futbol taldeak zazpi puntu ateratzen dizkio bigarrenari, eta denboraldia bukatzeko lau partidu gelditzen dira. Domekan, UDAk Astigarragako Mundarroren kontra jokatuko du, eta *Harmailatik* kirol saioan arreta berezia eskainiko diote partiduari. Eskoriatzan jokatuko den emakumezkoen saskibaloiko lauko finala ere ekarriko dute saiora, eta baita herri arteko pilota txapelketa ere.

**GOITB, 'Harmailatik'**
> Astelehena, 22:15

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Zaharrak Berri (pertsona nagusiendako)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com edo goiena.net* atarian, irratiko bloga)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## astea GOITBn

**Egubakoitza, 8**
**08:00** Trikitraka trikiton.
**09:00** Marrazki bizidunak.
**11:30** 28 klip.
**12:00** Erloklip
**12:30** Ikuskizuna.
**13:00** Erreportajea.
**13:45** Solaskide.
**14:15** Eltze beroa.
**15:15** Gure saltsan.
**15:45** Marrazki bizidunak.
**18:15** Trikitraka trikiton.
**19:15** Erreportajea.
**19:45** Solaskide.
**20:15** wasemak.
**21:15** Euskal herria lau haizetara.
**21:45** Berbaire.
**22:45** Golb tb.
**23:15** Ilunpean.
**00:00** Itsasora begira.
**00:30** Emisio amaiera.

**Zapatua, 9**
**08:00** Marrazki bizidunak.
**10:30** Trikitraka trikiton.
**11:30** Golb tb.
**12:00** Euskal herria lau haizetara.
**12:30** Ikusmira.
**13:00** Eltze beroa.
**14:30** Trikitraka trikitron.
**15:30** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:30** Solaskide.
**19:00** Erreportajea.
**19:30** Berbaire.
**20:30** Golb tb.
**21:00** Ikusten.
**21:30** Ilunpean.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Erreportajea.
**23:30** Wasemak.
**00:30** 28 klip.
**01:00** Emisio amaiera.

**Domeka, 10**
**08:00** Trikitraka trikiton.
**09:00** Marrazki bizidunak.
**11:30** 28 klip.
**12:00** Erloklip
**12:30** Ikuskizuna.
**13:00** Erreportajea.
**13:45** Solaskide.
**14:15** Eltze beroa.
**15:15** Gure saltsan.
**15:45** Marrazki bizidunak.
**18:15** Trikitraka trikiton.
**19:15** Erreportajea.
**19:45** Solaskide.
**20:15** wasemak.
**21:15** Euskal herria lau haizetara.
**21:45** Berbaire.
**22:45** Golb tb.
**23:15** Ilunpean.
**00:00** Itsasora begira.
**00:30** Emisio amaiera.

**Astelehena, 11**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Erlo klip.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Itsasoari begira.
**15:45** Erreportajea.
**16:15** 28 klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Wasemak
**18:15** Musikantoi
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45**Solaskide.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Harmailatik.
**23:00** Erreportajea.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

**Martitzena, 12**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Ikusten.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Solaskide.
**16:20** Erloklip.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Erreportajea.
**18:05** Harmailatik.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Wazemak.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean.
**23:00** Euskal Herria lau Haizeetara.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

**Eguaztena, 13**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Ikusmira.
**14:15** Gure saltsan
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Golb tb.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Solaskide.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Mugaz kanpo.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Erreportajea.
**22:45** 28 Klip.
**23:15** Goiena Magazinea.
**00:15** Emisio amaiera.

**Eguena, 14**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Euskal herria lau haizetara.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ikusmira.
**15:45** Mugaz kanpo.
**16:15** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Musikantoi.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Berbaire.
**23:15** Erreportajea:
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.





**Miguel Romero** eta **Catalina De Anta** arrasatearrak orain dela 40 urte, 1969ko maiatzaren 31n, Oñatin ezkondu ziren. Ezkontza urteurrenerako ospakizuna egingo dute. Ia ondo pasatzen duzuen bazkarian. Seme-alaben partetik, zorionak.



**Angel Menayo** eta **Dolores Agiriano** ezkondu zireneko urteurrena ospatzeko bazkaria egingo dute maiatzaren 8an Oñatiko Zelai-Zabal jatetxean. Familia guztiaren partetik patxo handi bat eta zorionak!



**Iker Barbero** eta **Maite Zumarraga** bergararrak bihar ezkonduko dira Bergarako udaletxean. Bazkaria Oñatiko Etxe-Aundi jatetxean egingo dute, eta ezkon-bidaian Tanzaniara eta Zanzibarrera joango dira. Lagun guztien partetik zorionak, bikote!



Oñatiko **Iñaki Kortabarria** eta Ordiziako **Oihana Noain** maiatzaren 9an ezkonduko dira Ordizian. Bazkaria Zumarragako Etxeberri Jatetxean egingo dute eta ezkon-bidaian AEBetara joango dira. Zorionak, etxekoen eta koadrilakoen partetik.



**Marcela Montoyak** eta **Francisco Mateos *Txikuri*-k** apirilaren 25ean Arrasateko pilotazaleekin ospatu zituzten euren urrezko ezteiak. Familia guztiaren partetik zorionak eta beste 25 urte gehiago bete ditzatela.



Bergarako **Laura Sanchez** eta Arrasateko **Pablo Muñoz** maiatzaren 2an ezkondu ziren Bergarako Udaletxean. Bazkaria Lasa jatetxean egin zuten eta bidaian Argentinara joan dira. Bergarako koadrilakoen partetik zorionak eta ondo pasa Argentinan.



Arrasateko **Aitziber Ibarrondo** eta Elorrioko **David Vicente** San Agustin elizan ezkonduko dira zapatuan. Bazkaria Mendigoikoa jatetxean egingo dute. Bidaian Estatu Batuetara eta Punta Canara joango dira. Zorionak eta ondo pasa, koadrilakoen partetik.



Bergarako **Ainhoa Basauri** eta Tolosako **Jon Martin** maiatzaren 9an ezkonduko dira Santa Marinan. Gero, Itziarko Salegi jatetxean ospatuko dute. Zorionak, bikote, lagunen eta familiakoen partetik.

## bono fotoa

Garmendia Ardoak — Larchago

Garmendia Ardoek emandako
**Ardo botila packa***
zozketatuko du GOIENKARIAk
asmatzaileon artean!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa 2008.
Larchago kriantza 2006.
Larchagoko Izarbe bereziki aukeratutako erreserba 2001.

ERANTZUNA ..........
IZEN-DEITURAK ..........
HERRIA .......... TEL.: ..........

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**Eraikin horretan INEMeko bulegoak daude gaur egun. Aurretik zer izan zen ?**

**Argazkia eta galdera** > Joxe Felix Diaz de Tuesta.

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
Arrasateko **Pilar Urkia**.
Zorionak!
**Erantzun zuzena:**
**Bergara. Oxirondo plaza.**






**Asun Ezkurra** eta **Bixente Etxebarria** 1959ko maiatzaren 8an ezkondu ziren. Urrezko ezteiak betetzen dituzten honetan, familiakoekin ospatuko dute asteburuan. Etxekoen partetik, zorionak bikote!



**Juan Ramon Agirre** eta **Maria Begoña Larrañaga** bergararrak 1969ko maiatzaren 10ean ezkondu ziren San Pedro parrokian. Ezkontzako 40. urteurrenean zorionak etxekoen eta lagunen partetik.

URTEURRENA

## Angel
## Etxezarreta Lopez



Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 10ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina elizan ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Jesus
## Larrañaga Lizarralde



Bosgarren urteurreneko meza domekan, maiatzaren 10ean, 12:30ean, Arrasateko San Frantzisko elizan ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

OROIGARRIA

## Juan Antonio
## Elorriaga Aranburu

'Txismes'

Bergaran hil zen 2009ko maiatzaren 1ean, 52 urte zituela.



*Betiko izango zaitugu gogoan.*

Zure lagunak.
Bergaran, 2009ko maiatzaren 8an.

URTEURRENA

## Rosario
## Bolinaga Garai



Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 10ean, 12:30ean, Arrasateko San Juan Bataiatzailea parrokian ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Marcelino
## Moyua Biain



Lehen urteurreneko meza zapatuan, maiatzaren 9an, 18:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Juan Antonio
## Elorriaga Aranburu

'Txismes'

Bergaran hil zen 2009ko maiatzaren 1ean, 52 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2009ko maiatzaren 8an.

URTEURRENA

## Luis
## Artola Barrenetxea

Maria Insaustiren alarguna



Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 10ean, 11:00etan, Antzuolako Errukizko Amaren parrokian ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Pedro
## Larrañaga Odriozola



Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 10ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina elizan ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

OROIGARRIA

## Lide
## Kortabarria Ugarte

Oñatin hil zen 2009ko maiatzaren 1ean, 75 urte zituela.



Ondrak maiatzaren 16an, zapatua, 19:30ean, Oñatiko Agustinotan ospatuko dira.

Alkarrekin aspaldi lan egin giñuan Txaketua tabernako zure lagunak: Sebe Ibabe, Mª Karmen Anduaga, Mª Jesus Arkauz eta Mª Karmen Arriaran.

Oñatin, 2009ko maiatzaren 8an.

## guardiako farmaziak

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 9 | Amezua | Santa Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| Domeka, 10 | Etxeberria | Zarugalde, 42 | 943 77 16 30 |
| Astelehena, 11 | Ruiz | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |
| Martitzena, 12 | Etxeberria | Zarugalde, 42 | 943 77 16 30 |
| Eguaztena, 13 | Azkoaga | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |
| Eguena, 14 | Azkoaga | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |
| Egubakoitza, 15 | Corcuera | Maisu Aranbarri | 943 79 22 26 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 9 | Urritikoetxea | Oxirondo plaza, 4 | 943 76 11 74 |
| Domeka, 10 | Urritikoetxea | Oxirondo plaza, 4 | 943 76 11 74 |
| Astelehena, 11 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Martitzena, 12 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Eguaztena, 13 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Eguena, 14 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Egubakoitza, 15 | Urritikoetxea | Oxirondo plaza, 4 | 943 76 11 74 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 9 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Domeka, 10 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Astelehena, 11 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Martitzena, 12 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Eguaztena, 13 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Eguena, 14 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Egubakoitza, 15 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 9 | Anitua | Belorrieta,1 | 943 08 11 43 |
| Domeka, 10 | Anitua | Belorrieta,1 | 943 08 11 43 |
| Astelehena, 11 | Fraile | Herriko plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 12 | Fraile | Herriko plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 13 | Fraile | Herriko plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 14 | Fraile | Herriko plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 15 | Fraile | Herriko plaza, 10 | 943 79 21 99 |

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2009ko egutegia.
Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZa.

ESKER ONA

## Floren
## Kortabarria Ibabe

Gasteizen hil zen 2009ko maiatzaren 2an, 74 urte zituela.



*Gurekin egon zara,*
*gurekin zaude,*
*eta gurekin betirako*
*egongo zara.*

—

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Aramaion, 2009ko maiatzaren 8an.

ESKER ONA

## Lide
## Kortabarria Uriarte

Oñatin hil zen 2009ko maiatzaren 1ean, 75 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Oñatin, 2009ko maiatzaren 8an.

ESKER ONA

## Pepita
## Uranga Olabe

Hipolito Etxebarriaren alarguna

Arrasaten hil zen 2009ko apirilaren 28an, 91 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2009ko maiatzaren 8an.

Babeslea:
Euskalduna
Hileta Zerbitzuak
Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea
Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

# Maiatzak 7-14

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa
eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 05** • Faxa: **943 25 05 13**

## Musika



OÑATI

**> Sharon Stoner, Jukebox eta Des-Kontrol gaur San Migel Txiki jaietan**

Oñatiko San Migel Txiki jaien barruan kontzertua izango da gaur, egubakoitza, San Anton plazan, 23:00etan. Arrasateko Des-Kontrol eta Jukebox (goiko argazkian) eta Oñatiko Sharon Stoner taldeek joko dute.

## Musika




ARRASATE

**> Eskolarteko abesbatzen topaketa zapatuan Uarkape pilotalekuan**

Arrasate, Aramaio, Eskoriatza eta Tolosako ikasleek hartuko dute parte Arizmendik eta Ikastolen Elkarteak antolatutako topaketan. Zapatuan, 17:00etan. Sarrera, 3 euro. *Sua amaitzean* eskainiko dute talde guztiek bukaeran.

## Musika



BERGARA

**> Lori Meyers eta Elastic Band taldeen kontzertua zapatuan Jam aretoan**

Lori Meyers eta Elastic Band taldeek joko dute zapatuan Jam aretoan. *Cronolánea* da Andaluziako Lori Meyers talde indie-aren azken lana. Ateak 20:30ean irekiko dituzte. Sarrerak 12 eurotan aurrez eta 15 eurotan Jameko leihatilan.

## Musika

ARRASATE

**> Chrome Hoof gaztetxean gaur**

Londresko taldearen kontzertua, Gaztemaniak! programaren barruan.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan. 5 euro.

ANTZUOLA

**> Bikustik taldearen emanaldia gaur**

Jon Gurrutxaga eta Patxi Zabaleta elgoibartarrek osatzen dute Bikustik. Kantu klasikoen bertsioak joko dituzte: The Beatles, Led Zeppelin, Queen...

Gaur, egubakoitza, Torresoroan, 22:00etan. 3 euro.

ARRASATE

**> Bi kontzertu asteburuan 3.60 aretoan**

Gaur, egubakoitza, Norman, Foxy Boxxi eta The Shaggin Wagon taldeak; bihar, zapatua, La Txusma, Dirty Shadow eta Mendeku Itxua.

Bi kontzertuak 22:30ean izango dira.

ARRASATE

**> Joxe Mari Anduaga zapatuan Amaia antzokian**

Pop musika emanaldia oñatiarraren eskutik.

Bihar, zapatua, Amaia antzokiko hall-ean, 20:00etan.

ARRASATE

**> Gosemari & Marigose taldea Gure Lekun**

Arrasateko taldearen emanaldia.

Domekan 20:00etan.

## Erakusketak

OÑATI

**> 'De saldo' erakusketa kultura etxean**

Erakusketa eta arte-saltoki kontzeptuek bat egingo dute, eta bertan hainbat artista latinoamerikarren lanak erosteko aukera izango da, arrazoizko salneurrian, gainera.

Gaur, egubakoitza, irekiko dute erakusketa, 19:00etan. Gaztelekuak eta Kultur Etxeak antolatuta, maiatzaren 20ra arte izango da zabalik.

ARETXABALETA

**> 'Toda una vida siendo niños'**

Espainiako Gerra sasoiko argazkiak eta dokumentuak.

Arkupen, maiatzaren 16ra arte.

BERGARA

**> Bearteko gaztetxoen erakusketa**

Pintura erakusketa kultura etxean.

Maiatzaren 9ra arte. Zapatuan 12:00etatik 14:00ak arte.

## Hitzaldiak

ARRASATE

**> Tomas Muro Ugalde elizbarrutiko teologoaren hitzaldia**

*Esperanza en tiempos de desesperanza* izenburuko hitzaldia egingo du.

Eguenean, hilak 14, Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan, 19:00etan. Arrasateko parrokiek antolatuta.

## Ikastaroak

ARETXABALETA

**> Haur masaje ikastaroa**

Maiatzaren 25ean eta 28an; ekainaren 1ean, 8an eta 11n, 17:330ean, Aretxabaletako Kurtzebarri Eskolan. Hilabete batetik lau hilabetera bitarteko haurren gurasoei zuzenduta.

Izenematea edo argibideak 653 72 23 59 telefonoan.

ARRASATE

**> Emakumeei zuzendutako sexualitate ikastaroa**

Gure gorputzari buruz dugun irudia hobeto ezagutzeko aukera izango duzu, gorputzaren hizkuntza ikusteko, ematen digun plazer espazioa aurkitzeko, dituen erritmoak lantzeko. Maiatzaren 22an (16:00-20:00) eta 23an (10:00-14:00/15:30-19:30). 10 euro Arrasatekoendako; 15 euro gainerakoendako.

Izena emateko epea maiatzaren 8ra arte zabalik. Argibide gehiago Emakume Txokoan, 943 79 41 39 telefonoan.

ARETXABALETA

**> Dantza libre topaketak hilean behin**

Jaiki elkarteak dantza libre topaketak antolatu ditu. Isabel Altzola izango da irakaslea. Saio guztiak hilabetean behin, eguenean izango dira, 18:00etatik 20:30era.

Maiatzaren 14an eta ekainaren 18an izango dira hurrengo saioak. Izenematea 669 05 80 33 telefonoan edo *jaikielkartea@yahoo.es* helbidera idatzita.

ARRASATE

**> Eskulan ikastaroa eta makillaje ikastaroa**

Ekin Emakumeak Elkartearen eskutik. Eskulan ikastaroa martitzenero: 15:30-17:30 edo 18:00-20:00 (ekainaren 16ra arte); makillaje ikastaroa maiatzaren 9an 11:00etatik 14:00etara.

Argibideak 943 79 83 70 telefono zenbakian.

PROPOSAMENA



ELGETA

**> Magia Mostraren V. ekitaldia**

Gaurtik domekara bitartean Elgetako Magia Mostraren V. ekitaldia ospatuko da Espaloia Kafe Antzokian. Gaur, magia erakustaldia Gaetan Bloom frantziar mago famatuarekin; bihar, zapatua, magia gala izango da Juan Mayoral (Leon), Jane (Txina), Xabi Tapias (Bartzelona) eta Sebastien Dethise-rekin (Frantzia). Karim izango da aurkezlea. Eta domeka eguerdian kaleetan barrena zabalduko dute magia.

Espaloia Kafe Antzokian. Gaurko sarrerak 15 eurotan eta zapatuko magia galarako 16 eurotan salgai.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

**ERAKUSKETA IRAUNKORRA:** 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimentu eta objektuen manipulazioa erabiliz

PLANETARIUM BERRIA

**Kupula osoan proiektatzen diren erresoluzio handiko irudi ikusgarriak.**

**Asteburu eta jai-egunetako saioak:** 12h.eusk / 13h.gazt./ 15:30h. fran./ 16:15h. gazt./ 17h. eusk./ 18h.gazt.
**Donostiatik zerura begira:** Zuzeneko saioa.
**Itsua izar begiekin:** Itsu bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat.
**Biziaren jatorria:** Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa.
**Infinity Express:** Unibertsoa eta Eguzki Sisteman zehar bidaia.
**Kartoizko suziriaren sekretua:** Haurrei zuzendutako saioa.
**Eboluzioa (Berria!)** Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu.

ETA GAINERA...

**Elektrizitate ikuskizuna:** Ileak puntan jarriko dizkizun esperientzia.
**Planetarium Txikia:** 4-9 urte bitartekoek ere izarrak ikus ditzaten.
**Simulagailuak:** Errusiar mendia eta tranbia gidatzailearekin disfrutatzeko aukera.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

kutxa | www.kutxasocial.net

ARRASATE

**> Emakume Txokoaren eskutik hainbat ikastaro**

Arrasateko Emakume Txokoak hainbat ikastaro iragarri ditu: *Antzinako emakumeak: gure amandreengandik ikasten* (maiatzaren 12tik ekainaren 9ra); *Biziklatak konpontzeko ikastaroa* (maiatzaren 11tik 25era arte); eta, azkenik, *Gure erotismoa: gorputzaren hizkuntza* (maiatzaren 22an eta 23an).

Izenematea eta argibideak 943 79 41 39 telefonoan edo *emakumetxokoa@arrasate-mondragon.net* helbidean.

ARRASATE

**> Ikastaroak Gazte Bulegoaren eskutik**

Arrasateko Udal Gazte Bulegoak hiru ikastaro antolatu ditu: argazkigintza digitala; flamenkoa euskaraz deritzona; eta munduko sukaldaritza. Datorren astean hasiko dira aipatutako ikastaroak. Matrikula 20 euro da; 12 euro ikasle edo langabeendako.

Izenematea edo argibideak 943 25 20 65 telefonoan.

# Lehiaketak

ARRASATE

**> San Juan jaiak: irudi lehiaketa deitu du Udalak**

Lehiaketa honetan edozein pertsonak har dezake parte. Kartelek derrigorrez testu hau izan beharko dute: 2009 San Juan Jaiak Arrasate. Irabazleak 750 euroko saria jasoko du.

Lanak entregatzeko epea maiatzaren 22ra arte izango da zabalik. Argibide gehiago Biztanleen Arreta Zerbitzuan, 943 25 20 00 telefono zenbakian.

ARRASATE

**> Film labur lehiaketa deitu du Emakume Txokoak**

Arrasateko Emakume Txokoak film labur lehiaketa antolatu du. Emakumeenganako biolentzia da landu beharreko gaia. Iraupen mugatua izan beharko dute film laburrek. Lanak DVD euskarrian bakarrik aurkez daitezke eta bakarka zein taldeka parte hartu ahal izango da lehiaketan.

Lanak entregatzeko epea ekainaren 22ra arte zabalik. Argibideak 943 79 41 39 zenbakian.

BERGARA

**> Jaietako zapirako marrazki lehiaketa**

Edonork har dezake parte. Marrazkia jaiekin lotutakoa izan beharko da. Irabazleak 60 euroko saria jasoko du. Lanak entregatzeko epea maiatzaren 13ra arte dago zabalik.

Argibide gehiago Jardun euskara elkartean, 943 76 08 19 telefonoan.

LEKEITIO

**> Euskal Zine eta Bideo Bilera Lekeition**

Edozein bideo sortzaile har dezake parte. Lanak DVD formatuan aurkeztu beharko dira, euskaraz, irailaren 11rako.

Argibideak 94 624 34 82 telefono zenbakian edo *www.bideobilera.com* webgunean.

# Zinema



## La sombra del poder **

**Zuzendaria:** Kevin MacDonald.
**Aktoreak:** Russell Crowe, Ben Affleck, Rachel McAdams. AEB, 2007. 127 min.

Politikaren munduan kokatutako *thrillera* da *La sombra del poder*. Enpresa handiak, politikariak, kazetariak nahastuko dira ustelkeria kasu korapilatsu batean. Hilketak izango dira: batzuk kasuan sartuak zeudelako hilko dituzte, baten bat zoritzarrez momentu horretan hiltzailearen bidean agertu delako. Filma ez da aspergarria, baina azken finean ematen duen baino konbentzionalagoa da.

Istorioak film eta eleberri beltzaren egitura jarraitzen du: ikertzaile batek (detektibe pribatua, polizia edo, kasu honetan, kazetaria) gertakizun bitxi batzuen aurrean horien zergatia eta nor dagoen gertakizun horien atzean jakin nahi izango du. Ikerketa aurrera doan neurrian, datu berriak eta pertsonaia gehiago agertzen dira, eta, azkenean, kasua hasieran ematen zuen baino askoz konplexuagoa izaten da. Hau dela eta, filma ondo ikusten da: muntaia azkarra du, eszena batetik bestera gauzak aldatu egiten dira, eta horrela, ikuslearen jakin-minak gora egiten du. Sortzen den azpijokoan gai asko agertzen dira: desleialtasunak, etika profesionala eta kazetaritzan eman diren aldaketak, lagun arteko traizioak,... Baina gai horiek guztiak azalean geratzen dira, ez dira garatzen eta istorioa korapilatzeko baliako duten osagaiak besterik ez dira. Intrigaren aldetik, BBCk egindako telesail baten oinarritutako istorioak orokorrean ondo funtzionatzen badu ere, bukaerako partea ez da oso konbentzigarria: hiltzailearen profila, Irakeko gerraren azalpena.

Aktore onak agertzen dira filmean (Russell Crowe, Helen Mirren); *thriller*-en misterioa beti erakargarria izaten da; erritmoa eta aldaketa ugari ditu eta film entretenigarria da. Baina ez zaio askorik eskatu behar. Erabiltzen dituen osagaiengatik gehiago dela ematen badu ere, azkenean nahiko konbentzionala da.

**Antonio Zabala**

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**Los abrazos rotos**
Egubakoitza: 22:00.
Domeka: 19:30.

**Superpoli de centro comercial**
Domeka: 17:00.

**El luchador**
Eguena: 20:30.

### OÑATI

**KULTURA ETXEA**

**Los abrazos rotos**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

### BERGARA

**ZABALOTEGI**

**La buena nueva**
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.

**Atrapado en un pirado**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Los limoneros**
Eguena: 20:00.

### ARAMAIO

**KULTURA ETXEA**

**El intercambio**
Egubakoitza: 22:15.

### EIBAR

**UNZAGA**

**Hanna Montana: la película**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehenetik eguaztenera: 19:30, 22:15.

### GASTEIZ

**GURIDI**

**Hanna Montana: la película**
16:30, 18:30, 20:30, 22:30 (zapatuan eta domekan).

**The International**
22:30.

**La sombra del poder**
17:30, 22:30.

**X-Men orígenes: lobezno**
16:30, 18:30, 20:30, 22:30 (zapatuan eta domekan).

**Fuga de cerebros**
16:30, 18:30, 20:30 (zapatuan eta domekan).

**Star Trek**
17:00, 19:45, 22:30 (zapatuan eta domekan).

**Paraiso travel**
20:00.

**La montaña embrujada**
16:30, 18:30 (zapatuan eta domekan).

**25 kilates**
20:30, 22:30 (zapatuan eta domekan).

**17 otra vez**
16:30, 18:30 (zapatuan eta domekan).

**Gran Torino**
20:30, 22:40 (zapatuan eta domekan).

Egubakoitzetik domekara.

**FLORIDA-GURIDI**

**Destellos de genio**
17:30, 20:00, 22:30.

**Seraphine**
17:30, 20:00, 22:30.

**Un buen hombre**
20:15.

**Munduaren bira, doan!**
18:00.

**La vergüenza**
20:15, 22:30.

**La reina Victoria**
17:30, 20:00, 22:30.

**Nunca es tarde para enamorarse**
18:00, 20:15, 22:30.

**Déjame entrar**
18.00, 22:30.

**La reina Victoria**
18:00, 20:15, 22:30.

**Génova**
17:30, 20:00, 22:30.

Egubakoitzetik domekara.

**YELMO-GORBEIA**

**Star Trek**
15:30 (zapatuan eta domekan), 17:45, 20:05, 22:30, 00:50.

**Vamos a la luna**
16:30 (zapatuan eta domekan), 18:20, 20:10, 22:00, 23:50.

**X-Men orígenes: lobezno**
16:00 (zapatuan eta domekan), 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

**17 otra vez**
16:30 (zapatuan eta domekan), 18:30, 20:30.

**La reina Victoria**
16:40 (zapatuan eta domekan), 18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

**Hanna Montana: la película**
15:45 (zapatuan eta domekan), 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

**The International**
20:05, 22:15, 00:25.

**Fuga de cerebros**
16:20 (zapatuan eta domekan), 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**Fast and furious: aún más rápido**
20:35, 00:45 (zapatuan); 22:35 (domekan).

**Dragonball evolution**
15:50 (zapatuan eta domekan).

**Monstruos contra alienígenas**
15:45 (zapatuan eta domekan), 17:45.

**Al final del camino**
19:45, 21:45, 23:45.

**La sombra del poder**
16:30 (zapatuan eta domekan), 19:00, 21:30, 00:00.

**Señales del futuro**
22:15, 00:30.

**Los abrazos rotos**
22:20, 00:35.

**Ponyo en el acantilado**
16:05 (zapatuan eta domekan), 18:05.

**La montaña embrujada**
16:15 (zapatuan eta domekan), 18:15, 20:15.

**Gran Torino**
15:35 (zapatuan eta domekan), 17:45, 19:55, 22:05, 00:15.

**Slumdog millionaire**
17:40, 19:50, 22:00, 00:10.

**Más allá de los sueños**
16:00 (zapatuan eta domekan).

Maiatzaren 8tik 14ra. Gauerdiko emanaldiak egubakoitz eta zapatuan.

**ÁBACO BOULEVARD**

**Star Trek**
17:00; 19:40, 22:15, 00:45.

**Vamos a la luna**
16:25, 18:25, 20:20, 22:05.

**Gran Torino**
20:20, 22:35, 01:00.

**Fuga de cerebros**
16:05, 18:10, 20:15, 22:25, 00:45.

**Nunca es tarde para enamorarse**
16:30, 18:30, 20:30, 22:20, 00:30.

**Al final del camino**
16:05, 18:05.

**The International**
20:15, 22:35.

**X-Men orígenes: lobezno**
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

**La montaña embrujada**
16:00, 18:05.

**Un conejo sin orejas**
15:50,18:05.

**17 otra vez**
16:15, 18:15, 20:15, 22:20.

**Hanna Montana: la película**
16:00, 16:15, 18:00, 18:20, 20:10,20:30, 22:15, 22:40, 00:30.

**Monstruos contra alienígenas**
16:15, 18:15.

**La sombra del poder**
20:10,, 22:35, 01:00.

**Señales del futuro**
20:10, 22:30, 01:00.

Maiatzaren 8tik 14ra. Gauerdiko emanaldiak egubakoitz eta zapatuan.



**Los abrazos rotos** **
Espainia, 2009. Zuzendaria: Pedro Almodovar. Aktoreak: Penelope Cruz, Lola Dueñas, Angela Molina, Ruben Ochandiano. 120 minutu.
Pedro Almodovarren azken filma Arrasateko Amaia antzokian botako dute asteburuan. Gizon bat ezkutuan bizi da, idatziz, maitatuz... Hamalau urte lehenago auto istripu larria izan zuen Lanzaroten; ikusmena eta Lena, bere bizitzako emakumea, galdu zituen han...

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**El intercambio** ****
AEB, 2008. Zuzendaria: Clint Eastwood.
Los Angelesen, 1928an girotutako filma. Langileak nagusi diren auzo baten ezkongabeko ama batek, Christine Collinsek, 9 urteko semea agurtuko du zapatu goiz argitsu baten, lanera joan aurretik... Hortik aurrera erabat aldatuko da Christine Collinsen bizitza... Benetako gertakarietan oinarrituta.

**25 kilates**
Espainia, 2008. Zuzendaria: Patxi Amezkua.
Zorrak ordaindu ez dituztenei kobratzen egiten du lan Abelek; autoak lapurtzen ibiltzen da Kay; haren aita Sebasek lapurtutako gauzak erosten ditu; Garro lapurreten aurkako brigadako inspektorea da... Azken kolpearen zain daude denak.

**El curioso caso de Benjamin Button** *****
AEB, 2008.
Zuzendaria: David Fincher. .
David Fincher zuzendariaren (*Zodiac*) azken lana Oscarretako galtzaileetako bat izan genuen, bigarren mailako hiru sarirekin konformatu behar izan zen-eta. Benjamin Button (Brad Pitt) 80 urterekin jaioko da eta urteak atzetik aurrera beteko ditu...

**The reader**
AEB, 2009. Zuzendaria: Stephen Daldry.
Michael Berg 15 urteko gaztea gaixotu egingo da etxetik eskolarako bidean, eta Hanna Schmitz emakumeak jasoko du. Haien artean pasiozko harreman bat piztuko da, Hanna desagertzen den arte... Nazien eskuetan eroriko da Hanna. Oscar saria Kate Winslet protagonistarendako.

**Gran Torino** ****
AEB, 2009. Zuzendaria: Clint Eastwood.
Walt Kowalski Koreako gerrako soldadu ohi bat da. Egun batean deskubrituko du bere altxor preziatuena lapurtu nahi diola Asiako jatorriko bizilagun nerabe batek: 1972ko Gran Torino autoa. Arrazismoaren inguruko drama.

**Ponyo en el acantilado**
Japonia, 2007. Zuzendaria: Hayao Miyazaki.
Sasuke bost urteko umearen eta Ponyo arrainaren arteko harremana kontatzen du Hayao Miyazakiren (*El viaje de Chihiro*) marrazki bizidunetako film honek. Gizaki bihurtzea da Ponyoren ametsa...

## nire aukera



**Pedro Rico**
Bergarako Kirol Elkarteko presidentea

## Egubakoitzero afaria lagunekin

Okina izanda, txoriak baino goizago esnatzen da, gauerdi aldera. Hiru aste jarraian lan egin ondoren, laugarrena atseden izaten du. Hurrengo astean Galiziara, Behe Itsasadarretara joateko aprobetxatuko du.

Lanean ibili arren, egubakoitzero lagunarteko afaria izaten du San Antonioko Gure Ametsa elkartean, beste hiru lagunekin batera. Sukaldean, gainera, primeran moldatzen da, haren lagunen gozamenerako... Bergarako futbol taldea preferentera igo dela-eta, zapatuko Lagun Onak taldearen aurkako partidua zaleei eskainitako festa izatea nahi du.

**Asteburuirako zer plan?**
Lan egitea tokatzen zait eta aisialdirako tarte txikia izango dut. Hala ere, egubakoitzeroko afariarekin eta zapatuko partiduarekin ez dut hutsik egingo. Bestalde, jai daukadanean lagunartean ibili eta paseatzea gustatzen zait. Domeka gehienetan Gorla elkartera joaten naiz, hamarretakoa egitera.

**Igoera lortuta, biharko partidua lasai ikusiko duzu...**
Bai, zaleei omenaldia egin nahi diegu eta sarrera debaldekoa izango da. Hurrengo denboraldian sufritzea tokatuko zaigu, baina orain igoera ospatzea tokatzen da: zapatuan Agorrosinen festa izatea nahi dugu. Zaleen laguntza eskertu nahirik, urtetan hutsik egin ez diguten bi emakumeri omenalditxoa egingo diegu: Mari Karmen eta Mari Kontxi Gonzalez ahizpek lore-sorta bana jasoko dute partiduaren aurretik. Horrelako zaleak ez ditugu saltzeko...

**Zer egingo du Athleticek Kopako finalean?**
Partidu bakar batera edozer gauza gerta daiteke... Zalerik onenak Athleticek dauzka eta haien laguntzarekin, auskalo... Oso partidu bereziak izaten dira finalak, jokalariengan motibazio berezia pizten dutenak. Ondo egongo litzateke Athleticek Kopa irabaztea.

**Edu Mendibil**

# Aretxabaletatik moda ibiltokira

**IKASKETAK** Bartzelonan moda diseinu ikasketak amaitzen dihardu Uxue Eraña aretxabaletarrak

**LEHIAKETA** BECen aurkeztu ditu, asteon, emakumearen gorputza markatzen duten diseinuak

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARETXABALETA

Modeloek pausoa seguru ematen dute moda ibiltokian eta Uxue Eraña aretxabaletarrak ere seguru izan du beti modan jardun nahi duela; moda diseinuan, hain zuzen ere. "Bartzelonan egin ditut ikasketak. Azken urtea da oraingoa, proiektua amaitu dut eta kapelen gaineko ikastaro bat egiten dihardut", esan digu.

Uxue Eraña bera ez, baina diseinatzaile gaztearen lanak moda ibiltoki gainean ikusteko aukera izango da asteon. Izan ere, BECen, Barakaldon, egiten diharduten Creamoda jardunaldietan, lehiaketa batean hartu du parte. "Nire ikasketa amaierako proiektuko lau diseinu auzkeztu ditut. Hiru egunetan dira desfileak eta finalera iritsiz gero finala beste egun batean izango da", azaldu digu Uxue Erañak.

Aurrez ere lehiaketa batean parte hartutakoa da. "Vigon lagun batekin hartu nuen parte moda diseinu lehiaketa baten. Gogoa neukan ezagutzeko horrelako lehiaketek eta desfileek nola funtzionatzen duten barrutik. Konturatu nintzen jende askok diharduela moda kontuan eta maila handia dagoela", dio Erañak.

**DISEINU FEMENINOAK**

BECeko lehiaketan aurkeztuko dituen diseinuak pertsonalak dira, Uxue Erañaren esanetan: "Bizitzan eragina izan duten gauzetan oinarritu naiz. Rock-and-rolla, Paris hiri moduan… Diseinu oso femeninoak dira, emakumearen gorputza markatzen dutenak. Koloreei dagokienez, beltza, grisa eta gorri puntu batzuk erabili ditut. Nire koloreak direla esango nuke".

Lanak ibiltoki gainean erakutsiko ditu, bai, baina aurrerantzean ere moda diseinuan jarduntea da Uxue Erañaren nahia: "Ikasketak amaitu eta nire asmoa da etxera bueltatzea eta Euskal Herrian barrena moda diseinuaren arloan lanen bat aurkitzea".

**LAGUNENDAKO EZER GUTXI**

Lehiaketetarako ez ezik berarendako eta lagunendako ere inoiz egin du diseinurik, baina askorik ez: "Ez didate ezer bereziki egiteko eskatzen", esan digu. Hala ere, egin du lantxo berezirik ere: "Joan den astean ezkondu zen anaia eta haren emazteari ezkontzarako egin nion bururako diseinu bat".

Moda ibiltokirako pausoa eman ostean, ea debagoiendarren soinetarako bidea egiten duten Uxue Erañaren arropek.



**PERTSONALA** Eragiten dizkioten gauzetan oinarritu da Eraña diseinatzeko. M. ALTUBE

## ahobero

### "Gauza batekin konturatu naiz: gustukoago dut giza gorputza kanpotik barrutik baino"

**Antonio Zabalburu** > Aktorea

*Hospital Central* telebista saioko aktoreak zenbat denboraldi behar izan ditu horrekin ohartzeko? Ez ote da konturatu mediku paperean diharduenean operatzen dituen "gorputzen" barrukoak ez direla gizakiarenak? Zein animaliarenak ote dira?

## iturri onetik

### Uztailaren 11n eta 12an hirunako saskibaloi txapelketa jokatuko da Bergaran

Bergara Kirol Elkarteko saskibaloi sailak antolatuta, hirunako saskibaloi txapelketa egingo dute uztailaren 11n arratsaldez eta 12an egun osoz San Martin plazan. Sei kantxa gertatuko dituzte horretarako. Senior mailan Euskal Herri osora zabaldu dute izenematea, Debagoienekoek senior mailan eta gazte mailan jokatuko dute eta kadete, infantil eta alebin mailak Bergarakoendako izango dira.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Lopez jauna

Hitz horiekin eman zuen botoa Antonio Basagoitik, Patxi Lopez lehendakari izan zedin. "Ibarretxe jauna" entzun genuen aurretik, eta Lopezen aldeko batzuk ere bildu egin ziren euskal formulara. Ez genuke gutxietsi behar euskarak duen indar hori, hainbat esparru sinbolikotan gutxieneko presentzia lortzeko.

Doana ez zen elebiduna, baina elebakarrago dator gobernu berria. Hala ere, oraingoan Patxi Lopez erosoago ikusi dut euskaraz irakurtzen aurrekoetan baino, eskolak hartzen ari omen da gogor. Jakinda agintea hartzeak eragin berezia duela politikariengan, hori izan daiteke euskara ikas dezaten arma sekretua. Pasa daitezela guztiak aginte goreneko postuetatik, eta itzul daitezela etxera elebidun. Ibarretxerekin balio izan du.

## ai, ene!



### Platanoa gordetzeko zorro berezia

Meriendarako platanoa batera eta bestera eramana; baina formak zailtzen du lana. Horra zorro gogorra txukun eramateko banana.

wwwi.taringa.net/posts/imagenes



*Eraman dotoretasuna zure etxera*

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51